



ttipi-ttapa



INAUTERIAK gehigarria / 21



Ane BERGARA ARTIEDA | Berako futbolaria

«FAMILIARI ETA FUTBOLARI ESKER NAIZ ORAIN NAIZENA»

Ttikitako ametsa egia bihurtu du beratar gazteak. 15 urtez Lehen Mailan jokatu ondotik, joan den udan, futbola uztea erabaki zuen. Kontent dago oraingo bizimoduarekin. / 8

SINADURAK



ZURINE
ZUBILLAGA
IZAGIRRE / 3



AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3



MIKEL
RODRIGUEZ
LANDA / 4



ELURRE
IRIARTE
BANEZ / 4



ZOKKETA / 64



'Drogarik gabe hezi'
programa Doneztebe
eta Lekarozko
institutuetan / 10



Jose Luis Anso
Oizko artisaua
oihangintza
gehigarrian / 48

Elizondoko Benito
Menniko langileak
enpresa ereduaren
aurka protestan / 44

Larungo proiektuaren
baitan bertze
proposamenak
aurkeztuko dituzte / 53



KOTETO EZKURRA

Erremontista ohia



NAFARROAKOA ETA SASOIKOA

Gozatu une bakoitzean gure lurak eskaintzen digun guztiaz. Izan ere, **Nafarroako produktuak** kontsumitzeak on egiten digu denoi.

Eta **sasoikoak** kontsumitzeak propietateak, zaporea eta testura askoz ere freskoagoak izatea ekartzen du.



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Ikusi bideoa



NIRE TXANDA

ZURIÑE ZUBILLAGA IZAGIRRE

Sutondoan

Batzuetan errailetan bizi naiz. Azken aldian buruan nenbilen ostatu hartzeko saiakeretan. Baina bihotzera joatea erabaki nuen. Aspaldian ikusten zintudan pasadan. Nire bihotzak egongelatxo bat dauka, eta egongelatxo horrek leiho txiki bat. Eta bertatik ikusten zintudan. Inpultsu batek eraman ninduen dei egitera, eta bertara gonbidatu zintudan. Hantxe geunden biok parez pare,

egongelatxoan. Izotza gainetik kendu genuen, sutondoan. Oroitzapenak bata bestearen segidan etorri ziren. Zure aurpegian marraztutako irribarretxoak adierazi

zidan zein ongi egin nuen bihotzera jaisten eta bertan ostatu hartzen, denboralditxo batez behintzat. Goxoa da bertan egotea, eta goxoa ingurura begiratzea. Goxoa aspaldian izan ez genuen elkarrizketa edukitzea, eta hitz atseginenez janztea. Goxoa da lagun egitea. Eta goxoa distantziak hoztutakoa berotzea. Batzuetan buruan bizi naizelako, eta besteetan errailetan. Zu, batzuetan, bihotzeko penetan. Eta ez zaitut ikusten egongelako leihotxora hurbiltzen ez banaiz.

**«BATZUETAN
BURUAN BIZI NAIZ
ETA BESTEETAN
ERRAIETAN»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Sartu eta atera

Pobreziatik aterarazteko sartuko gara zuen etxean lehendik ukatutako gure giza-laguntzarekin, baina miseriari ihesi gurean ogi bila sartu nahi dutenak atera edo atakatik kanpo utziko ditugu. Demokrazia ezartzera sartuko gara, baina biolentziatik ihesi datozenak aterako ditugu. Petrolio ateratzek eta dirua sartzek ez du zerikusirik honetan.

NABARMENTZEKOAK



**MATHILDE
LUCETE**
DENDARIA



**ITSASO
ELIZAGOIEN**
INFORMATIKARIA

Tikiak ixten ari dira. Ikaratzekoak dira datuak. Tarteka, ordea, izaten dira bertzelako notiziak. Goizuetan, adibidez, Mathilde Lucetek denetarik salduko duen denda ireki berri du.

Gradu amaierako proiektu gisa Etxalar izeneko aplikazioa aurkeztu du Itsaso Elizagoien etxalartar informatika ingeniariak. Turistei erraztasunak eskaintzea da aplikazioaren helburua.

ATZERA BEGIRA



2009-02-19 · TTIPI-TTAPA · 488 zk.

Jon Bru Berako txirrindulariaren agurra

Zazpi urte profesioaletan egin ondotik, 2018ko irailean «halabeharrez» txirrindularitza utzi behar izan zuen Jon Bru beratarak, talderik aurkitu ez zuelako. Duela hamar urte, berriz, sorterrian eskaintzekoa zioten omenaldiaren atarian, elkarrizketa egin zion TTIPI-TTAPA. Omenaldia «niretzat luxu bat» dela azaldu zuen eta horrekin batera, «hainbertze urteren ondotik, txirrindularia ez zarela onartzea, gogorra» egiten zitzaiola onartu zuen. Aldi berean, «profesioaletan aritzeko nire ametsa bete» zuela adierazi zuen, «txirrindularitzako kategoriarik altuenean egon naizelako». Zapore «gazi-goza-ekin» gelditu omen zen, baina gaineratu zuenez, «orokorrean egindakoarekin pozik egoten ahal naizela uste dut».

ttipi-ttapa

erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Usua Vicente

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Fernando Etxeberria, Mattin
Larrañe, Juan Mari Barriola, Iñigo
Imaz, Marga Erdosain, Maitane
Maritorea, Arantxa Iturralde,
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi,
Xabier Maritorea, Maialen Iantzi,
Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebexa
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdi Aklarre elkarte

2019ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	38€
Leitza	26€
Hego Euskal Herria	44€
Ipar Euskal Herria, Europa	83€
Amerika eta Australia	130€





KOLABORAZIOAK

ELURRE IRIARTE BAÑEZ

Barne bidaia

Martxoaren 8ko atean gauden honetan, aberasgarria da elkartzea, solastatzea eta eztabaidatzea greba eguna antolatzearen aitzakiarekin. Nire inguruan (hurbila eta ez hain hurbilean) ematen den eztabaidetako bat emakumeek bakarrik egiten ditugun ekitaldiekin izaten da.

Batzarrek ez hainbertze, baina emakumeendako bakarrik antolatzen bada ikastaro bat, edo martxoaren 8a bezalako egun batean emakumez osaturiko erreibindikazio bat, bazkari bat, besta bat... horrek denen barnak gehiago mugitzen ditu. Nahiz eta egia erran, gauza bera izan! Espazio autonomo feministak dira, eta beharrezkoak.

Espazio autonomoak zapalketa zehatz bat duen jendeez osatuak daudenak dira. Emakumeenak bezala, izaten ahal dira pertsona arrazializatuenak, homosexualenak, gazteenak... hainbat dakit!

Zergatik espazio autonomo feministak? Ba leku hori behar dugulako gure gauzez solastatzeko, seguruak sentitzeko eta

erdigunean egoteko. Kitto. Eta hala sentitu behar gara, berdin emakumeen greba bat antolatzen, gai zehatz batekin batzar bat egiten, ikastaro bat egiten edo otordu batean.

Bizi izan ditudan espazio mistoetan, gizonek izan

dute beti presentzia gehiago, hitza gehiagotan hartu dute eta beren hiztak pisu gehiago izan du. Patriarkatuan bizi gara, ez naiz deus deskubritzen ari.

Normalki zapalketa baten kontra egin behar duzularik, zapalketa horren subjektuak direnekin elkartu behar zara. Ez du zentzurik ni beltzen askapenerako batzar batean izateak, edo bai? Nik, heterosexual gisa, ez diot erranen homosexual bati zer egin behar duen bere bizitza sozialarekin, norekin elkartu behar den eta norekin ez. Edo bai?

Horregatik transexualak direnek behar dituzte beren espazio autonomoak, arrazakeria pairatzen dutenek berea, aniztasun funtzionala dutenek berea... Eta emakumeek, gurea.

Imajinatzen duzu alderdi politiko baten batzarrean bertze alderdi politiko bateko kideren bat agertzea? Edo irakasleen greba batean pankarta zurgin batek eramatea?

Elkarrekin egiten baditugu gauza horiek guziak elkarren ondoan egon nahi dugulako da. Elkarren esperientziak eta iritziak konpartitu. Libre sentitu dugun zapalketan pentsatzeko, adierazteko eta hausnartzeko. Gure egoera eta posizio berean dauden bertze emakumeekin egiteko. Gero elkartuko gara espazio mistoetan gure hausnarketak konpartitzeko, hala ikusten badugu.

Urte osoa izanen dugu manifestazioak konpartitzeko, herri-bazkariak, poteoak eta nahi dugun guzia. Martxoaren 8a gure greba eguna da, eta inportantea da guretako, emakumeen arteko aliantza lortzea.



MIKEL RODRIGUEZ LANDA

Baztan

Duela gutti *Baztan* filma eman zuten telebistan, 2012an estreinatua. Agoteek Baztanen jasan zuten diskriminazioa da filmaren ardatza, eta planteamendu bitxi batekin, bi istorio paralelotan kontatzen du: bata, XVII. mendean gertatzen da, agoteen aurkako jazarpena puri-purian zegoenean. Bertzea orainaldian garatzen da. Agoteak dira protagonista, baina filmak, zeharka, bertze hainbat kontu erakusten ditu: XVII. mendeko antolaketa soziala eta gatazkak, Inkisizioa... eta bada bertze kontu bat segur aski modu oharkabeagoan pasatzen dena, hagitx naturalizatuta baitago. Hizkuntzaren egoera da. XVII. mendean baztandar guziak euskaraz bertzerik ez dira mintzo –hor ez dago bereizkeriarik agoteen eta bertzeen artean–, eta inkisidore espainiarra bailarara ailegatzean, alkateak, apaizak eta Urtsuako jaunaren anaiak baino ezin diote ulertu. Orainaldiko istorioan, berriz, baztandar aunitz gaztelaniaz aritzen dira, baita haien artean ere. 400 urtetako jauzi bat dago bi istorioen artean, hizkuntza egoeraren aldaketa horren artean. Espainiako Estatuak sustatu duen

ikuspegi nazionalistaren arabera, eboluzio bat izan da hori; baztandarrak inkomunikaziotik eta analfabetismotik atera dira gaztelania ikasi dutelako, nahiz eta batzuek euskara ahanzi. XVII. mendean herritar gehienek ez zekiten

«GAZTELANIAZ TUTIK ERE EZ ZEKITENAK GAZTELANIA HIZTUN BIHURTU ZIREN»

ez irakurtzen, ez idazten. Gizartean mailaz igo nahi zuenak edo goitiko mailan zegoenak ezinbertzean jakin beharra zuen guttienean irakurtzen, eta Espainiako Erresuman baimenduta zegoen hizkuntza formal bakarra gaztelania zen, euskal herritar gehienentzat arraroa eta arrotza zen hizkuntza. Euskararen bazterketak arrazoi etnikoa eta klasista zituen. Espainian estatu liberala ezarri zenean, identitate nazional espainola inposatzeko helburua hartu zuen, eta, horretarako, espainol-gaztelarra ez ziren hizkuntza guziak desagerrarazten saiatu zen. Modu bat izan zen hezkuntza unibertsalizatu eta gaztelania inposatzea hizkuntza bakartzat. Gaztelaniaz tutik ere ez zekien eta hizkuntza hori deusetarako behar ez zuen jendea egun batetik bertzerantz gaztelania hiztun bihurtu zen, eta herri aunitzetan euskara desagertzen hasi zen. Horrela pasatu zen katastrofea: Nafarroa Garaian, XIX. mende hasieran herritar gehienak euskaldunak ziren; mende berdinen bukaeran, ordea, ez. Hainbertze borrokatu eta hainbertze odol isuri ondotik euskara administratziora, hezkuntzara eta produkzio kulturaletara ailegatu zenerako, baztandar guziek aspaldi zekiten gaztelaniaz. Nazionalista espainol bati eboluzioa eta bedekazioa idurituko zaio hori. Euskal nazionalista bati inposizio bidegabea eta akulturazio prozesua iduritu beharko litzaioke. Bidezkoena litzateke Madrildik erregearen, presidentearen edo dena delakoaren ordezkari batek Baztane-
ra etorri beharko balu, euskaraz egin behar izatea baztandarreri. Edo, akaso, hobe horrelako inor ez etortzea, eta tokian tokioak bakean uztea kanpoko hizkuntzarik inposatu gabe.

11 GALDERA LABUR

MARIJO ETXEBERRIA GOIZUETAN BIZI DEN OIARTZUARRA

«Inauteriak herriaren identitatearen isla dira»

Aurkeztu zure burua.

46 urteko emakumea, sortzez oiartzuarra, Goizuetan gustura bizi dena eta orain bere osasunerako bizitza lasaia hartzen saiatzen ari dena.

Zein zaletasun dituzu?

Kirolzalea izan naiz beti. Hori nire bizitzaren parte izan da. Horrez gain, ostiraletako pintxo-potean lagun eta familia-rekin ibiltzea, musika entzutea... gogoko dut.

Inauterizalea al zara?

Beti izan naiz. Gazteago nintzenean gehiago gozatzen nituen, orain 14 eta 10 urteko seme-alabak ditudanez beste modu batera bizi ditut...

Zer dira inauteriak zuretzako?

Herri bakoitzak bere identitatea erakusteko modua. Inau-

teriak propioak, berezkoak, dira: Oiartzunen, esaterako intxisuari buruzko kondairak dituzte; Goizuetan, berriaz, zahagi-dantza...

Nola bizi dituzu egun horiek?

Egun guztiak dira bereziak baina astelehena dut gustukoan. Guraso eta haurrok gai jakin bat aukeratu eta horretaz mozorrotzen gara. Gure eguna izaten da: ekitaldiak, bazkaria... egiten ditugu. Haurren aitzakian ederkipasatzen dugu!

Antolatzen aritzen zara?

Egun horretarako prestaketa lanetan bai. Mozorroak goizetik mendira joan eta ilunabar barrera arte etortzen direnez astelehena bizitzeko zerbait antolatzeari ekin zieten eta horri eusteko lan egiten dugu.



Noiz hasten zarete prestaketetan?

Hilabete lehenago biltzen gara, gaia pentsatzeko. Gaia erabaki ondotik, astean bitan biltzen gara plazan jartzeko apaingarriak egin eta dantzak entsegatzen ditugu.

Gautxoria zara?

Izana. Orain eguneko parranda gehiago gustatzen zait baina gaba luzatu daiteke...

Luzatzen denean... biharamuna...

Ahal den bezala. Gaztetan lo egin dezakezu baina guraso

zarenean lo gutxi! Baina egin egiten da.

Zer eskatzen diezu inauteriei?

Eguraldi ona; ez baita gauza bera mozorroentzat, mendira joateko: ezta guretzat dantza egiteko ere, euria ari badu frontoian egiten dugu eta...

Nola animatuko zenituzke Goizuetako inauterietara?

Hemengo hitza Umore Ona dela jakinta, bereziak dira, indar handia dute eta lan asko egiten dute.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Merkealdia

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

IRAKURLEAK MINTZO

'Gara' eta lan-taldeari elkartasuna**TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA ETA XORROXIN IRRATIA**

Urtarrilaren 31k egun alaia izan behar zuen *Gara* egunkariko lankideentzat. Hogei urte bete ziren lehen zenbakia argitaratu zutenetik, eta ospatzeko moduko lorpen handia da hori, batez ere komunikabideentzat zaila den aro honetan. Aitzitik, poztasun zantzurik ez genuen sumatu *Gararen* arduradunek egunkariaren urteurrenean egindako agerraldian: erredakzioa hutsik eta erdi ilunpetan zegoela, datozen urteotan hiru milioi eurotik gora ordaintzera derrigortuta daudela azaldu zuten, zer eta Espainiako justiziak berak legez kanpokotzat jotako *Egin* egunkariaren itxieraren ondorioak ordaintzeko.

Lerro hauen bidez, ERRAN.EUS osatzen dugun TTIPI-TTAPA eta *Xorroxin Irratiak* eta Euskal Herri osoko 66 toki komunikabide batzen dituen Tokikomek *Garari* ezarritako zor horren bidegabekeria publikoki salatu nahi dugu, komunikazio proiektuaren bideragarritasuna kolokan jarritz prentsa askatasuna eta aniztasuna ere kaltetzen dituelako, eta elkartasuna adierazi nahi diogu *Gararen* lan-talde osoari. Toki komunikabideetan ongi badakigu prentsa aniztasunak duen garrantziaz, eta haren alde diharduenak ondoan izanen gaitu.

Zergatik ez osasungintza publikoan?**AMAIA ZUBIETA GARCIAINDIA**

Berriki kubitoa eta erradioa hautsi ditut eta Kanarietako osasun sistema publikoaren aldetik eta Nafarroako Ospitaleko larrialdi zerbitzuen aldetik jaso dudana tratua eskertu nahiko nuke.

Baina aldi berean, traumatologiako material eta terapia batzuen inguruko zalantzak sortu zaizkit. Zoritzarrez, zerbitzu horretako erabiltzaile sutsua bihurtzen ari naiz, goiko eta beheko gorputz-adarretan ditudan hiru hausturak hala ziurtatzen dute. Bisita

horietako batean, mediku azterketara joan eta gainean nuen ferula igeltsu gogor batekin ordezkatu zidaten, askoz ere astunagoa eta beso guztia hartzen didana. Igeltsuaren ordeztu bertz hainbat herrialdetan erabiltzen duten beira-zuntza zergatik ez duten erabiltzen galdetu nien, aunitzez ere eroso goa eta arinagoa delako (nire esperientzian oinarrituta diot). Erantzuna irmoa izan zen: sistema publikoan ez da erabiltzen. Ez zidaten zergatia azaldu. Horri bueltak ematen ari nintzela, materialaren gainkostuagatik eta osasun sistema publikoaren aurrezteko politikengatik izan zitekeela pentsatu nuen, baina ez nuen ulertzen benetan aurrezten ote den, igeltsuarekin, gerora izan daitekeen muskuluen eta artikulazioen gehiegizko kargaren ondorioz lehendik lesionatu gabe zeuden gorputzeko atal batzuek errehabilitazioaren beharra izan baitezakete. Zalantzak argitzeko osasungintzako arduraduna den lagun bati galdetu nion. Zerbitzu bakoitzak bere erabakiak hartu eta bere lehentasunak zehazten dituela argitu zidan, eta baliteke trauman bertze teknikan aitzinera egiteko interes haundiagoa izatea, adibidez, protesien gaian. Gero gehiago bizi garenez, ongi iruditzen zait hobeki bizi ahal izatea. Baina gaiarekin bueltaka segitu dut: zenbat protesi paratzen dira eta zenbat hezur hautsi? Protesien teknikan aitzineratzeak gaixoei onura bera eta erosagoak diren materialen erabilera galarazten du? Beira-zuntza erabiltzeak kontraindikaziorik badu?

Protesiekin ere zalantzak ditut. Nire lagunak urteak daramatza aldakako minez eta mugikortasun arazoekin. Traumatologiara bidali duten aldi oro gauza bera gertatzen da: bizitza normala egiten duen galdetzen diote (bizitza normala zer den jakin nahiko nuke...) eta bere aldaka protesia paratzeko bezain gaizki ez dagoela erraten diote. Alegia, mugitu ezin duenean paratuko diotela eta bitartean minez segi dezala. Iazko azken bisitan,

ezagun batzuegan arrakasta izan duen terapia biologikoei buruz galdetu zuen. Eratzuna hauxe izan zen: sistema publikoan ez dira erabiltzen. Sistema publikoa irmoki defendatzen badugu ere, azkenean pribatura jo behar izan genuen, horretarako aukera badugulako. Emaitzak hagitz onak izan dira. Terapiak ez du miraririk egiten, baina gastuak tikiak dira eta hobekuntza nabarmena da, protesia paratzeko aukera gibelatuz edo saihestuz. Hori hala izanda, zergatik ez dago guztion eskura? Zergatik egon behar dugu guztiz hondatu arte alternatiba baten esperoan eta zergatik ez da bizi-kalitetea hobetzeko terapiarik eskaintzen? Gaian ezjakina naiz, baina nire galderak erantzutea nahi nuke. Eta sistema publikoan zergatik ez?

Minetako tximini-zuloen, lur-erortzen eta leize-zuloen arriskua**JOXE ORONOZ**

Eskualde osoan (Leizatik Etxalarra) 'Totalan' gisako zenbat dauzkagu? Inork uste baino zulo gehiago. Bai ote da inbentario edo gai-zerrendarik minetako tximini, erortza eta leize-zulo arriskutsu guztiena? Hainbeste izanik, zertarainoko zailtasunak ote dira horretarako? Denak babestu ote litezke?. Minetan lanean ibilitakoek kezka handia izaten zuten tximini eta erortza horiekin, kezka eta konponezina. Ez minero izandakoek bakarrik, baita mendizale eta abeltzain askok ere, aspalditik eskatu izandu dituzten neurriak hartu beharko lirake. Gerorako utzi gabe. Badirudi Administrazioaren aldetik ez dela gauza haundirik egin orain arte. Aurrerantzean erne ibili beharko lukete. Totalaneko Julenen heriotzaz geroztik, gauzak ez dira berdin izan. Gauzak aldatu dira.

Zer lan polita egin litekeen, bertakoek ezagutzen dituztenekin hasita, GPSan markatu eta Administrazioarekin batera babeste-lanak bukatu. Nahi bada noski.

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus



948 63 54 58

Goizuetako inauteriak 2019

AINHOA ZABALETA

GOIZUETAKO MOZORRO TALDEAREN
IZENEAN

Inauteriak ate joka ditugun honetan, mozorrook prest ditugu arropa zuri-gorriak, afinatu ditugu kornetak eta dantzatzeko gogoa piztu zaigu! Oraindik ez zarela apuntatu? Garaiz zabiltza! Zahar-gazte, emakume-gizon, parrandazale zein mendizale, gerturatu Motzane tabernara eta zatoz gurekin inauteriez disfrutatzera!

Guztion gozamenerako egitarau ederra antolatu dugu azken hilabeteotan. Zuen gustukoa izango delakoan gaude. Apaindu etxeko leiho eta balkoiak, mozorrotu eta atera kalera Goizuetaz gozatzeraz!

Azkenik, mozorroen taldeak eskerrik beroenak eman nahi dizkizue baserriko ateak ireki eta gurekin jan-edanaren bueltan, tertulian elkartzen zareten baserritar guztioi. Ezin dugu hitzez eskertu zuen eskuza-baltasuna. Aurtengoan ere korneta soinuek ozen abisatuta baserri atarian elkar ikusiko dugulakoan...

BOTA BERTSOA

JOSEBIÑE AGIRRE
ZUGARRAMURDIKO BERTSOLARIA

Andrea

Doinua: Ez nau izutzen negu hurbilak



*Espaloi ertzean dago andrea,
Politeziatz agurra
Bisai samin gogorreko irriak
Iraupena du laburra.
Ibiltzen doazen guzien
Pausoa sobera ziurra
Eta andrearen neke postura
Hiltzen doa, makurra.*

*Andrea ttiki ta zaharra da,
Badirudi ipotxa
Oraino ere ez dio inork entzun
Beldurraren ahotsa.
Kalea duen etxe zikina,
Ohean hotza (e)ta izotza
Sufrimendua luzeegia
Ta bizi sobera motza.*

*Astean lautan du bakarrik
Afaltzen edo bazkaltzen
Esperantzaren indarra zaio
Aspaldidanik ahultzen.
Begiradako argi gaztea
Saminarekin itzaltzen
Arnasa botatzerakoan
Bizi gehiago du galtzen.*

*Zure ondotik pasatua naiz,
Begiratu ta aitzina
Iskina horretako zikinaren
Zati osoa bazina.
Baina orai sentitu egiten dut
Zure sakoneneko mina
Barrena bezain hutsik dago
Ohe hotza zen iskina.*

GOITI ETA BEHEITI



EDURNE BIGURIA

Elizondoko Koro Ttikik hamar urte



Hamar urte ez direlako egunero betetzen, urteurren berezia izatea nahi dute Elizondoko Koro Ttikin. Hala hainbat tailer eta emanaldi egiten ari dira. Zorionak eta segi horrela!

HEMEROTEKA



«Ez nuen sekula pentsatuko Googlen lan eginen nuenik [Zurichen]. Bertan lan egiten zuen irakasle bat ezagutu eta proiektu batean parte hartzea proposatu nion. Googleko bere taldea ezagutu nuen, gustatu zitzaidan eta lanpostu baterako apuntatu nintzen (...) Presio haundia izan zen, baina ongi prestatuta...».

LIERNI SESTORAIN

LEITZAKO IKERTZAILEA I
D. NAVARRA. 2019.02.04



«Nazio markagintza bailarako identitate eraketara eta marka kontzeptura itzuli dugu (...) Orain artio hainbat arlotako autonomo aunitz barreiatuak bazeuden, markaren arrimuan pittanaka eremu horiek antolatu ditugu (...) Baliagarria izan da Baztango eremu ekonomikoa antolatzeke».

M. ALZUART, M. GOÑI ETA J. OTONDO ARRAS BAZTAN I
GARA. 2019.02.02





Ane Bergara Artieda beratarra bere lehenbiziko futbol-partidak jokatu zituen Matzada zelaian. TTPI-TTAPA

«Kontent nago ttikitatik nahi nuena egiteko aukera izan dudalako»

ANE BERGARA ARTIEDA BERA KO FUTBOLARIA

15 urtez Lehen Mailan aritu ondotik, joan den urteko udan futbola uztea erabaki zuen. Futbolak «dena» eta «aunitz» eman diola dioen arren, kontent dago hartu zuen erabakiarekin

G. PIKABEA BERA

Urte berezia izaten ari da Ane Bergararentzat (Bera, 1987). Ez dabil baloiaren gibeletik, ez dago entrenamendu edo partidetan murgilduta; futbola ez da lehenetasuna beretzat. Halaxe ibili da Lehen Mailan emandituen azken 15 urteotan. Baina iazko udan, «ttikitako ametsa egia bihurtu» ondotik erretiroa hartu zuen. Ez da damutu botak utzi eta zelai berdea agurtu izanaz. Atzelari ohia kontent sumatu dugu. **Nondik datorkizu futbolarekiko lotura?**

Egia erran ez dakit. Hiru ahizpa gara, ni gazteena, bertze biak ez dira futbolean ibili, eta gurasoak ere ez dira bereziki

futbolzaleak izan. Lehengusuak, ordea, futbolean aritzen ziren eta beraiekin ordu aunitz pasatzen nituen. Akaso lehen-gusuengandik etorriko zait...

Nolako haurtzaroa duzu gogoan?

Hagitz alaia. Lagunekin jolasean ibiltzen nintzen eta orduko sentsazio onak ditut. Orduan ere kirola nuen buruan. Ikastolan nire ametsa zein zen galdetzen zidatenean, futboletik bizitzea zela erraten nuen. Hori lortu dut. Baina gauza gehiago ere probatu ditut. Haurrak ere gustatzen zaizkit eta orain eurekin ari naiz lanean, irakaskuntzan.

Zer eman dizu futbolak?

Dena eman dit. Familiari eta futbolari esker orain naizena

naiz. Ttikitatik aritu naiz futbolean, nire bizitza horren inguruan mugitu da eta gauza aunitz eman dizkit; aunitz ikasi dut eta lagun aunitz egin

ditut. Baina bidean gauzak utzi behar izan ditut. 16 urterekin etxetikatera nintzen. Sakrifizioa izan da baina nahi nuelako hartu nuen bide hori. Erabaki guztiek badute bere alde positiboa eta negatiboa.

Zein izan da hainbertze urtez goian aritzeko sekretua?

Arduratsua eta konstantea izatea eta une oro nahi nuen hori lortzeko borroka egitea. Zerbait derrigortzen denean ez da halako ahaleginik egiten.

Gure Txokoa hasi zinen...

Bai, etxeko taldean. Baina asteburuetan ez zen nire adinekoentzako partidarik izaten eta Hendaia Eglantins taldera joan nintzen. Lau urteren ondotik, 12 urterekin, berriz Berara bueltatu nintzen.

Lagunak, Espanyol, Real, Bartzelona, Athletic... Izen haundiko taldeetan ibili zara.

Neronek aukeratutako ibilbidea egin dut eta talde bakoitzak bere alde onak eta txarrak izan ditu. Iruñeko Lagunak taldeak Lehen Mailara salto egiteko aukera eman zidan. Espanyol-en sei urte pasatu nituen eta titulu gehien irabazi dudana taldea izan da, familia bat bezala. Gero Realera etorri nintzen. Nire ttikitako ametsa Realean jokatzeari eta taldeak bertze amets bat betetzeko aukera eman zidan. Bartzelonan bertze mundu bat ezagutu nuen, profesionaltasun ikaragarria duen talde bat. Eta Athleticen Lehen Mailan jokatzen segitzeko eta etxera hurbiltzeko bide eman zidan.

Motzean

Zure burua hitz guttitan.

Pertsona antolatua, arduratsua eta lehiakorra.

Bizitzeko toki bat? Bera.

Berako txokorik gustukoena? Nire etxea.

Liburu bat? Ez naiz irakur-zalea.

Futbol talde bat? Real.

Hondartza ala mendia?

Hondartza.

Bisitatu zenukeen toki bat?

Ameriketako Estatu Batuak.

Musika talde bat?

Manolo Garcia.

Futbola ez den bertze kirol bat?

Praktikatzeko igeriketa eta ikusteko tenisa.

Liga, hiru Kopa eta Europako Txapelketa irabazi dituzu. Mundialean ere ibili zara. Zer erran nahi dute titulu horiek?

Tituluak garaipenak dira eta poztasun haundiasortzen dute. Baina garrantzitsuena egin dudana ibilbidea izan da. Tituluek urte aunitzetan hori egon naizela erran nahi dute eta horrekin geldituko nintzateke. **Athleticen 2019ko ekaina bitarteko kontratua zenuen, baina etetea erabaki zenuen. Zergatik?** 31 urte nituen, eta gustatzen ez zitzaizkidan gauzak ikusten nituen. Ordura arte egin nuen ibilbidearen ondotik, ez nuen horrelakorik jasan nahi eta uztea erabaki nuen. Argi nuen etorkizunean bertzelako bizitza bideratu nahi nuela eta urte bat lehenagotik bideratzen hasteko aukera ikusi nuen.

Azken bi sasoiak zailak izan zirela erran zenuen. Zergatik?

Bartzelonako azken urtean lesioak izan nituen eta ez zen erraza izan. Gero Athleticen hasi eta bat-batean jolasteari utzi nion. Baina ez zen hori izan futbola uzteko arrazoi; tratu pertsonalagatik utzi nuen, ez nuelako nahi nuena jaso. **Eskaintza gehiago ere bazenituen lehen eta bigarren mailetan. Baina ez zenuen nahi...**

Ez, uztea erabaki nuen. Une hartan indartsu sentitzen nintzen eta ez naiz damutzen egin nuen aukeraketarekin.

Lesio garrantzitsurik izan duzu?

Bartzelonan egin nuen urtean orkatileko lesioak izan nituen baina ez ziren larriak izan. Lesiorik larriena profesionalen mundua utzi ondotik gertatu zitzaidan. Joan den irailean, Mariñorekin ari nintzela, Aki-lesen tendoia hautsi nuen. Oraindik ere errehabilitaziora joaten naiz.

Futboleko aritu zaren urteetan, ikasten ere ibili zara. Azaldu.

Argi nun futbola utzi ondotik nire bizitzak aitzinera segitu behar zuela. Hortaz, Bartzelonan Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Zientziak ikasi nituen, irakasle izateko masterra ere egin nuen eta kirol masaia

ikasteko eta entrenatzaile izateko ikastaroak ere egin ditut. Fisioterapia ikasten bi aldiz hasi naiz baina ez dut bukatu. **Nola uztartzen zenituen ikasketak eta futbola?**

Antolakuntzaren bitartez. Nire bizitza egunez egun antolatzen nuen eta horrela uztartzen nituen. Batzuetan egunak 24 ordu baino gehiago izatea nahi nuen, baina nahiko antolatua naiz eta moldatu naiz.

Etetik 16 urterekin joan zinen. Zer ikasi duzu horrela?

Etxean hagitz ongi bizitzen dela baina kanpoan ere mundua badagoela eta bakoitzak autonomo izaten eta bere izaera moldatzen ikasi behar duela.

Gurasoak eta familia maiz aipatu izan dituzu...

Nire oinarria izan dira. Hartu izan ditudan erabakiak babes-tu izan dituzte eta hagitz garrantzitsuak dira niretzat.

Gutti dira futboleko bizitzeko aukera duten emakumezkoak. Zuk, ordea, lortu duzu.

Bai, eta kontent nago lortu dudalako. Egunean eguneko dirua lortzeko aukera baino ez dit eman baina ikaragarri kontent nago. Futboleko emakumezkoen duten egoera zaila da, baina aldi berean, gero eta hobea. Ni hasi nintzenetik aunitz hobetu da, eta ea bide horretan segitzen duen.

Aholkurik emanen zenieke mundu horretan daudenei?

Trukean deus espero izan gabe lan egiteko. Ez dugu jakinen lanaren fruitua eurentzat edo ondorengoentzat izan den baina lanean segi dezatela.

Egun nolakoa da zure egunerokoa?

Labiaga Ikastolan (Bera) ordezkapen bat egiten ari naiz eta kirola egiten segitzen dut. Tendoiak igeri egiten eta bizikletan ibiltzen uzten dit eta horretan nabil. Gerora, lasterka ibiltzea ere gustatuko litzaidake.

Etorkizunera begira zer?

Irakaskuntzan gustura segituko nuke, baina bertze aukeraren bat etorri gero, zabalik nago.



Bergara Gure Txokoan, 2002an.



2005etik 2011ra Espanyolen ibili zen.



2011tik 2015era Realean jokatu zuen.



Athleticekin 2017an sinatu zuen.



Bartzelona talde haundian bi denboraldi egin zituen, 2015etik 2017ra.



2017an Matzada futbol-zelaian omenaldia egin zioten. Argazkian familiakoekin.



'Nafarroako Gazteria eta Osasun Inkesta'ren arabera, Nafarroan 13-14 urterekin hasten dira alkohola eta tabakoa kontsumitzen.

Prebentzioa da drogarik gabe hezteko gakoa

Joan den irailetik, 'Drogarik gabe hezi' programa lantzen ari dira Lekarozko eta Doneztebeko institutuak. Ilundain Haritz-Berri Fundazioaren gidaritzapean ari dira eta bi urtez elkarlanean ariko dira

G. PIKABEA

Drogarik gabe hezte. Horixe da erronka eta horretan ari dira Lekarozko eta Doneztebeko institutuak, Ilundain Haritz-Berri Fundazioaren laguntzarekin lantzen ari diren *Drogarik gabe hezi* programarekin. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren Droga-mendekotasunaren Foru Planak finantzatutako programa da eta DBH, Lanbide Heziketa eta Batxilergoa eskaintzen duten ikastetxeei bideratua. 2014tik martxan da, baina eskualdean 2018ko irailean hasi ziren.

Andrea Elkarte Irigibel fundazioko droga-mendekotasunen aurkako prebentzio programako teknikariak azaldu digunez, «programaren helburu nagusia prebentzioa lantzea da». Horretarako, «gaita-

sun jakin batzuk garatzen laguntzen» diete ikasleei, «osasunari eta ongizateari dago-kienez libreki eta arduraz jokatu eta aisialdi alternatiboa eskaintzen duten jardueretan parte har dezaten bultzatuz».

Lekarozko eta Donezteben

Elizondoko Osasun Zentrotik «alarma-mezua» jaso zutenean erabaki zuten Lekarozko institutukoek programan parte hartzea. «Kontsumo kasuak osasun zentrokoei ailegatzen zaizkie, asteburuetan alkohola barra-barra, gurasoen kezka...», eta haiek eta gizarte zerbitzuekin «elkarlanean» ari direnez, «haiek eman ziguten egoeraren berri», azaldu digu Loles Iturzaeta Barno Lekarozko institutuko zuzendariordeak. Programaren berri jaso eta parte hartzeko eskaera egin

zuten. Ikastetxe barneko eta kanpoko eragileen babesarekin eskatu zuten eta «programaren talde eragilea» osatu; Ilundain Fundaziokoek, zuzendaritzak, orientatzaileak, bizikidetzatzaileak, guraso elkarteak, gizarte zerbitzuek eta osasun zentrokoei pediatriako erizainak osatzen dute.

Doneztebeko Mendaurren Institutuan, «hezitzaileak» izanda, «gaiari dagokionez zer egin badugula» iritzita erabaki zuten programan parte hartzeko gonbitea onartzea. Hala kontatu digu Bihotz Unanua Ber-

«KONTSUMOA APALTZEKO EZ DA ASKI INFORMAZIOA»

ANDREA ELKARTE, ILUNDAIN FUNDAZIOA

tiz institutuko zuzendariak. Institutuko, Doneztebeko Udaleko eta Ilundain Fundazioko ordezkariak osatzen dute talde eragilea baina guraso elkarteak ere luzatu diete mezua: «haien inplikazioa garrantzitsua dela iruditzen zaigu».

Kontsumoaren datuak

Nafarroako Osasun Komunitarioaren Behatokiak argitaratutako 2014ko *Nafarroako Gazteria eta Osasun Inkestaren* arabera, Nafarroako ipar-mendebaldeko 14-29 urteko gazteen %45,1ek alkohola gehiegi kontsumitzen dute eta Nafarroan batez bertzekoa %37,8koa da. Tabakoaren eguneroko kontsumoaren kasuan, eskualde horretan %19,6koa da eta Nafarroan batez bertzekoa %22,6koa. Egutegiko kalamua kontsumitzen dutenak %3,1 dira Nafarroan, baina inkesta egin zuten azken hilaurretan %13,2 izan ziren. Inkesta berak alkohola eta tabakoa kontsumitzen 13-14 urterekin hasten direla dio. Estudes inkesta ere aipatu du teknikariak: «estatu mailan alkoholak eta kalamuak duen kontsumoaren batz bertzekotik goiti daude Nafarroko 14-18 urteko gazteak».

Eskualdeko errealitatea

Unanua kontatu digunez, «gure kasuan kontsumoa edo hori ahalbidetzen duten ekin-tzak ez dira eskolan gertatzen. Baina horrek ez du erran nahi gure ikasleek kontsumitzen ez dutenik». Gaineratu digunez, «gure inguruan bertzelako drogak kontsumitzen direla badakigun arren, alkoholarekin dago arazorik handiena; erabat normalizatua eta ongi ikusia dagoen kontsumoa da, eta goiztiarrena». Hortaz, «batez ere» hori landu nahi izan dute. Kontsumoa «saihestu» nahian, 1. DBHko ikasleekin ari dira: «kontsumitzen hasi aitzineko adinean zentratzea garrantzitsua iruditzen zaigu, prebentzioa hori baita, gertatu aitzinetik gerta ez dadin saiatzeari».

Lekarozko institutuan, berriz, DBHko 2. eta 3. mailetak ikasleekin ari dira. Baina programak «etorkizunean denengan eragina izanzen duela» azpimarratu du zuzendariordeak. Ikastetxean «drogarekin arazorik ez» dutela dio, «institutua herritik kanpo dago, ikasleak ez dira hemendik ateratzen eta ez dugu inolako kezkarik eskola orduetan gertatzen denarekin». Arazoa «asteburuetan eta ikastetxetik kanpo» omen dago: «baina ezin dugu aiantzi gure ikasleak direla. Pertsona berak dira hemen astegunez eta karrikan asteburuetan daudenak».

Bi urteko elkarlana

Bi urteko iraupena izanzen du programak: «bi urtez ikastetxeekin lanean ariko gara eta hirugarrenean behar dutenerako hor egonen gara», kontatu digu Elkartek. Programaren bitartez, «nola prebenitu jakin dezaten, lanerako eredu bat» eskaini nahi diete ikastetxeari, «zentro bakoitzaren errealitatera eta beharretara egokituz». Bi ikastetxeetan sortu diren lantaldeen garrantzia azpimarratu du: «agente prebentiboak bihurtzea nahi dugu, gure babesarekin, prebentzioan oinarritutako kultura sortuko dutenak izatea».

Behin talde eragilea sortuta, bi ildotan lan egiten dute Ilundaineko ikastetxeekin, norbanakoan eta testuinguruan zentratuz. «Norbanakoaren kasuan, gaitasun pertsonalen garapena eta bizi-ohitura osasungarriak indartzen» saiatzen dira, «arriskuetatik babestuz», dio Elkartek. Horretarako, «prebentzio-jarrera prebentiboak eta osasungarriak garatzeko nerabeengan interesa duten ekintzak egiten ditugu».

«ARAZOA KANPOAN DAGO BAINA GURE IKASLEAK DIRA»

LOLES ITURZAETA, LEKAROKO BHI

Testuinguruari dagokionez, «drogarik gabeko espazioen alde» egiten dute, «kontsumoa saihesteko araudiaren beharra nabarmenduz eta nerabeak beraien osasunari dagozkien erabakien erantzule direla eta ikastetxean daudenean, kontsumitu gabe egon izanaren sentsazioa indartuz». Teknikariak azaldu digunez, «ikastetxean kontsumitu gabe egoteko gai badira, aukera gehiago izanen dute eskolatik kanpo gauza bera egiteko». Honela, «autokontrolaren eta autoefikaziaren pertzeptzioa areagotzen» omen da, «baita autoestimua ere». Hortaz aparte, «arauak bete ditzaten ikastetxeko espazioa egokitu behar» dela uste du Elkartek.

Formazioa jasotzen

Orain arte, egoeraren analisia egin dute Lekaroz eta Doneztebeko institutuetan. Eta ikasleei test bat ere egin diete. Horretan oinarrituz, orain, formakuntza jasotzen ari dira, ikasleak zein gurasoak. Erakusketa ere antolatzekoa dute.

«Hasi bertzerik ez gara egin» eta hortaz, «oraindik balorazioa egiteko goizegi» dela uste badu ere, Iturzaeta «egindako urratsekin kontent» dago. Unanuk ere «balorazio positiboa» egin du: «gaia behar bezala lantzeko beharra ikusten dugu, pizuzko zerbait da eta programak horretarako aukera emanen digu». Baina gisa berean, «lan honek eraginkortasunagaltzen» ahal duela ohartarazi du, «segidarik edo koordinaziorik ez badu». Eta horretarako «ikasleen heziketan eta egunerokoan parte hartzen duten berte eragilean erantzukizuna eskatu du: gurasoena batez ere, baita aisialdiko eragileena ere. Denon artean eta norabide

«GAIA BEHAR BEZALA LANTZEKO BEHARRA BADAGO»

BIHOTZ UNANUA, DONEZTEBEKO BHI



Loles Iturzaeta, Lekarozko BHI.



Bihotz Unanua, Doneztebeko BHI.



Ilundain Fundazioko Carmen Marañon eta Andrea Elkarte. UTZITAKOA

bakarrean egin beharreko elkarlana da».

Teknikariak ere «balorazio positiboa» egin du, «proiektua aitzinera ateratzeko gogotsu dauden lantalde aktiboak dira». Eta aldi berean, «errealistak» direla dio: «droga kontsumoaren prebentzioak dituen zailtasunez jakitun dira. Gazteenengan alkohola, tabakoa eta kalamuaren kontsumoa normalizatu dago, baina bereziki helduengan». Bide beretik jo du Iturzaeta: «alkoholaren kontsumoa arras barneratua dugu eta zaila da gaia tratatzea».

Prebentziorako gakoak

«Komunikazioa, denbora partekatzea eta mugak. Mugak musuekin eta musuak mugarik gabe». Horiak dira Ilundaineko gurasoei ematen dizkieten aholkuak. Beraien ustez, «familia da eragile prebentibo garrantzitsua». Familiaren aldetik «loturak indartu» behar direla dio, «komunikaziorako espazioak bultzatuz». Gurasoak

nerabeen «eredu» direla ere adierazi du: «sortzen direnetik helduen jarrera guztien lekuko dira eta horiek barneratzen eta normalizatzen dituzte». Baina ikastetxean paperaz ere aritu da: «drogarik gabeko espazioa bermatu behar dute».

Drogen beharrik ez izateko «gaitasun pertsonal egokiak eta bizi-ohitura osasungarriak garatzea» garrantzitsutzat jo du Elkartek. Kontsumorako arazoak «anitzak» direla oinarritu du, eta «aisialdirako aukera osasungarriak ez izatea ohikoa» dela. Bere hitzetan, «gazteek badakizkitez diren drogen ondorioak, eta informazioa ematea ez da aski. Sentsibilizazio lana egin behar da, beraingana hurbilduz». Bide horretan, «nerabeen hurbileko inguruarekin lan egitea» gako omen da: ikastetxea, familia, osasun zentroa... «Prebentzioan ere tribu bat izatea garrantzitsua da; gutako bakoitza arazoaren eta irtenbidearen parte gara».

Musikari ttikiak tailerra antolatu dute aurten ere

Lau urte beteko dituzten haurrei zuzendua, otsailaren 26ra apuntatu daiteke eta lau saio eskainiko dituzte

TTIPI-TTAPA

Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolak, Udalararen eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz *Musikari ttikiak* musika tailerra antolatu du, aurtengoan 2015ean jaiotako haurrei zuzendua, gurasorik edo heldurik gabe. Izena emateko epea otsailaren 26ra arte dago zabalik. Matrikularen prezioa 35 eurokoa izanen da eta plaza mugatuak dira, eta guttieneko kopurua behar da tailerra egiteko. Berako haurrek lehentasuna izanen dute. Hain zuzen, 45 minutuko lau saio egingen dira Musika Eskolan martxoaren 15, 22 eta 29an eta apirilaren 5ean, ortzirale arratsaldetan (ordutegiak matrikularen arabera egokituko dira). Aralar Udal Musika Eskolako Klaudia Oyarzun irakasleak emanen du ikastaroa. Izena emateko 948 012 012 telefonora deitu behar da (astelehenetik ortziralerara 08:00etatik 19:00etara).

Musikaren, jokoaren eta esperimentazioaren bidez gorputza eta ahotsaren jabetza landuko dute. Tailerren



Musikari ttikiak iazko ikastaroan.

ikuspen globala hagitx zabala da, bertan ikasleen kapazitate espresiboak, musikalak, intelektualak eta motrizak garatuko dituzte eta kantuen erreperitorio egokia ere landuko dute.

Gaita bai, atabala ez

Aitzineko alean gaita eta atabala jotzen ikasteko ikastaroak abiatu zirela aipatu genuen. Gaita ikastaroan zortzi lagunek eman zuten izena eta hasiak dira larunbatero biltzen musika eskolan, 13:00etatik 14:00etara. Ekaina bitarte ari tuko dira. Atabal tailerra, aldiz, ez da hasi. Hiru lagunek bakarrik eman zuten izena eta guttienez borts behar ziren ikastaroa hasteko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Santa Ageda bezperan kantari atera dira

Azken urteotako ohiturari eutsiz, Santa Ageda bezpera ospatu zuten otsailaren 4an. Labiaga ikastolako ikasleak, gurasoak, ataxi-amatxiak, irakasleak eta ikasle ohiak herriko karriketan barna ibili ziren, Iban Garro lesakarrak eta Julen Zelaieta beratarrek bertso-koplak kantatzen zituzten bitartean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Dama beltzen ahotsa hedatu du Pinatxok

Estitxu Pinatxo herriko abeslariaren eta Mikel Santxez gitarra-jotzaile lesakarraren *Dama beltzak* lana entzungai izan zen hilaren 2an kultur etxean. Erran daiteke Pinatxo profeta izan zela bere sorterrian. Jende aunitz bildu zen kultur etxean eta zorutzen atera zen bertan aditutakoarekin.

ANTZUZELAI
S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



JAIONE-GOXOTEGIA

Etxean
egindako
produktuak

948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.eus



Emaizta antzerki taldekoak 2017an eskainitako emanaldian. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ergelak, onak eta gaiztoak berriz ere taula gainean

Emaizta taldeak 'La buena, la mala, la ergela y la madre que las parió' eskainiko du hirugarren aldiz igandean Kultur Etxean

TTIPI-TTAPA

Aitzineko emanaldietan sarrera guztiak agortu zirela eta, hirugarren aldiz *La buena, la mala, la ergela y la madre que las parió* antzezlan eskainiko du Berako Emaizta antzerki taldeak otsailaren 24an Kultur Etxean, Kultur Batzordeak eta Udalak antolatuta. Larunbat horretan 19:00etan hasiko da emanaldia, baina sarrerak dagoeneko salgai daude Agara prentsa-dendan (4 euro).

Inma Uranga, Marian Yanci, Inma Danboriena eta Dominica Mercadal dira gaztelaniaz eskainiko den emanaldi umoretsu honetako protagonista eta sinopsiak dioenez, «itxurak engainatzen gaitu; pertsonak ez dira beti hain on, hain gaizto edo hain ergel. Aunitz nahi duena, gutirekin gelditzen da eta horregatik aunitzetan gauzak ez dira aka-

batzen nahiko genukeen bezala. Mac. Pardos familiaren historiak erakusten digu hori».

'Ghero' martxoan

Antzerki kontuek segida izanen dute. Martxoaren 16an, Tartean Teatroa antzerki taldeak *Ghero, azken euskalduna* antzezlan taularatuko du kultur etxean. Euskaltzaindiarekin batera ekoitzi dute antzezlan, Akademiaren mendeurrenaren harira egingen diren egitasmo kulturalen artean. Antzezlanak 3000 urtera garamatza eta azken euskaldunaren istorioa kontatzen du.

SARRERA GUZTIAK AGORTU ZIREN AITZINEKO BI EMANALDIETAN



UTZITAKO ARGAZKIA

Zahar etxekoak Mendiko sagardotegian

San Jose zahar etxekoek aurten ere sagardotegira bisita egin dute, zazpigarren urtez segidan, Ibardingo Mendiko sagardotegiko Ignacio Irazokik egindako gonbidapenari erantzunez. Bertako sukaldeko jaki goxoak dastatzeko eta neurrian sagardoa txotxetik edateko aukera izan zuten.

Dronak egiten eta hegatzten ikasteko ikastaroa egingen dute martxoan

TTIPI-TTAPA

Ikasi dron bat egiten ikastaroa antolatu dute Udalak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak, 16 urtetik goitikoei zuzendua. Martxoaren 9, 16, 23 eta 30ean eskainiko du Andres Abrego Arlegik Beralandetan, larunbatetan 09:00etatik 14:00etara (dena 20 orduko ikastaroa). Izen-ematea martxoaren 1a arte egin daiteke (10 euro), 948 012 012 telefonora deituta, astelehenetik ortziralerara 08:00etatik 19:00etara.

Ikastaroak honako hau du helburu: bertaratzen direnek dronak nola funtzionatzen duten ikastea, nola erabili, nola eraiki eta nola konpondu. Etxean praktikatzeko simuladore batzuk eskainiko dira eta segurtasuna izanen da lehen-tasuna, egungo legeria azalduz.



Dronak eraiki eta hegatzeko dituzte.

Erakustaldia, simulagailuak, multierrotoreak, hegazkinak eta hegaldi saioa ere egingen dute, azken hau Sunbillan seguruenean.

NUP antena udalerrria da Bera. Izendapen hori Nafarroako Unibertsitate Publikoaren jardura bildu eta zabaltzean datza; baita unibertsitateak sustatutako ekimen batzuetako ezagutzak herritarrei ematean ere, tartean ikastaro hori.

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

U
xuga
tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera



Nafarroako Gobernuko eta udal ordezkariak, lanak bisitatzen. A. AROTZENA

Udal haur eskola hurrengo ikasturtean hasiko da lanean

Maria Solana Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak 0-3 urteko zentroko lanak bisitatu zituen otsailaren 8an

AITOR AROTZENA

0 eta 3 urte bitarteko haurrei zerbitzua eskainiko dien Magala Udal Haur Eskola 2019-2020 ikasturtean hasiko da lanean. Otsailaren 8an, zentro berriaren lanak bisitatu zituen Maria Solana Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak, departamentuko bertz zentzaitzordekariaren eta udal agintarien laguntzarekin. Itxasagur eraikuntza enpresa egin ari da lana, 103.652,03 euroko aurrekontuarekin eta dagoeneko azken ukituak ematen ari da. 414 metro koadro eraikiak izanen ditu eta 360,26

metro koadro erabilgarri. Barneko ekipamendua osatzeko lana bertze enpresa batzuekin egingen dute. Kudeaketa egiteko kontratua ere esleitu du Udalak eta Maite Goia Irazoki buru duen lan taldeak kudeatuko du ikastetxea, 136.000 euroren truke.

36 haurrentzako lekua eskainiko du, zortzi 0-1 urtekoak, hamabi 1-2 urtekoak eta hamasei 2-3 urtekoak. Jose Luis Etxegarai alkateak aipatu zuenez, «aspaldidanik herriak eskatzen zuen zerbitzu bat da eta honekin erantzuna eman zaio».

Arbolaren Eguna ospatuko dute Gardelkopagoetan

Joan den larunbatean eremua garbitu, piketeak sartu, zerrakura egin eta gisako lanetan aritu ondotik, larunbat honetan zuhaitzak landatuko dituzte Gardelkopagoetan inguruan. Helduak 08:00etan abiatuko dira eta haurrak 09:00etan.

Zakozarrak betetzen laguntzeko deialdia egin du Arranak

Joan den larunbatean egin zuten Arranon zakozarren bilera. Urtero bezala, herritarren laguntza eskatu dute, inauterietako igandean zakozarrak belarrez bete eta zakuak josteko lanean. Handiak baino lehenago zakozar tikiak ere aterako dira kalejiran.



A. AROTZENA

Santa Ageda bezperan kantari atera dira

Otsailaren 4an Santa Ageda bezpera ospatu zuten Tantirumairu ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasle eta irakasleek, aurtengoan ere ikastetxeko txistulari eta atabalarien doinuekin. Herrian barna kalejiran ibiltzeaz gain, Andra Mari Zahar Etxekoak ere bisitatu zituzten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gurasoen lanbideen berri ikastolan

Tantirumairu ikastolako Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek jarduera berezi bat egin dute klase-orduetan. Beraien gurasoen lanbideen berri izan dute. Aita eta amak pasatu dira ikasgelatik, ikasleek adi entzun dituzte gelakideen gurasoen ofizioen berri eta galdera zorrotzak ere egin dizkiete guztiei.

Denak Bat
Hemen erabili
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

744 484 361
ttipi-ttapa

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - BERA

Aurten lehenbiziko aldiz herritik pasatuko da Korrika

Nahi duenak kilometroak erosteko aukera dauka Euskara Batzordekoengana joz

IRUNE ELIZAGOIEN

Aurten lehenbiziko aldiz Korrika herritik pasako da. Larralde azpitik Lizaietaraino dauden zortzi kilometroak hartzeko aukera dago. Aportazioak hiru modutara egin daitezke: kilometroak erosiz, *Korrika lagun* aportazioa egi-

nez bakoitzak ahal duenarekin eta aportazio pertsonala eginenez. Hori egiten duenari pin bat emanen zaio eta txartel bat izanen du zenbait komertziotan deskontuak izateko. Nahi duenak Euskara Batzordeko kideengana jo beharko du kilometroak hartzeko.

Etxalar aplikazioa sortu du Itsaso Elizagoienek

Ingeniaritza informatikoko ikasketak bukatzeko gradu amaierako proiektua defenditu zuen Itsasok otsailaren erdian. Bere proiektua Etxalar aplikazioa izan zen. Aplikazio hau herrira etortzen diren turistei erraztasunak eskaintzeko asmotan sortu du. Bertan gps bidez bisitatzeko lekuetara erraz iritsi daiteke, landetxeen informazioa aurkitu daiteke, ostatuak, baita herriko ekintzen egutegia ere.



IRUNE ELIZAGOIEN



ARANTXA MIKELESTORENA

Arkupeak elkarteak bazkaria eta musa

Otsailaren 3an Arkupeak elkarteko kideen besta izan zen. 33 lagun elkartu ziren Herriko Ostatuko bazkarian. Mus txapelketan txapeldun Jose Mari Maia eta Jose Mari Olagarai izan ziren; bigarren Manuel Arrosamena eta Periko Iratzoki, eta hirugarren Jesus Arribillaga eta Benantzio Elizagoien.

Ortzegun Gizen egunean antzezlanak eskainiko dituzte eskolako ikasleek

I. ELIZAGOIEN

Landagain eskolako ikasleek antzerki emanaldiak eskainiko dituzte, Ortzegun Gizenegun 14:30etik aitzinera. Haur Hezikuntzakoek *Tontolapiko* antzeztuko dute eskolako atarian; LHko 3. mailakoek Harizpeko belardian *Irakasle berriak gure*

eskolan; 2. mailakoek Domekeneko atarian *Lehen Jon eta orain Jone*; 1. mailakoek Maixterneko atarian *Superbirziklo-te eta hiru txerrikoteak*; 4. mailakoek Martikoneko atarian *Ortzegun Gizeneko akrobatak* eta 5. eta 6. Mailakoek *Mugalariak* frontoian.

Lehen jaunartze eguna

Menu ezberdinak
Haurrentzako animaziora

Bazkal ondoren haurrek jolastu, dantzatu eta ongi pasatzeko espazio berezia dugu, **animatzaile** baten eskutik. Eguraldiak ez badu laguntzen egokitutako leku estalia dugu.



ETXALAR | T. 948 63 50 00 | www.etxalar.com | info@etxalar.com

KONTSULTATU GURE ESKAINTZAK



Aurtengo inauteriak ate joka heldu dira ekitaldiz gainezka

Ortzirale eta larunbat honetan ibiliko dira etxez etxe gazteak eta haurrek berendua eta erakustaldia izanen dute larunbatean

TTIPI-TTAPA

Hilaren 22 eta 23an izanen dira aurtengo inauteriak. Ibilbidea Berrizaundik hasiko dute ortziraletan goizean moztarok, eta, auzo auzo ibili ondotik, larunbat ilunabarretarako herrian izanen dira. Haurrek, berriak, inauterietaz bi aldiz gozatzeko aukera izanen dute. 23an, 17:00etan hasita, berendua izanen dute pilotalekuan eta ondotik *Indiana Jones* izeneko erakustaldia ikusiko dute. Eguneko gaia *Piratak* izanen da. Ortzegun Gizen egunean, otsailaren 28an, etxez

etxe eskean ibiliko dira goizez, Biltokin bazkari berezia izanen dute eta 14:30ean urteroko antzerkiko protagonistak izanen dira Baratzondoko aretoan.

Argiteriaren lanak

Aspaldi samar hasi ziren argiteria egokitzeko lanak. Orain arteko laranja koloreko bonbilla gehienak kendu eta led teknologia erabiliz gutiago kontsumitzen duten bonbilla zuriak paratu dituzte. Mugimendua detektatuz argiaren intentsitatea egokitzen duten tresnak ere paratu dituzte.

Inaxi Etxeberriak 103 urte bete ditu

Ilbartzaren 29an 103 urte bete zituen Olaetxe Inaxi Etxeberriak. Iriberean jaio zen 1916an, baina Berrizaunera ezkonduz geroztik, bertan eman ditu urte guztiak. Etxeko giro goxoan pasatu zuen eguna. Aunitz urtez Inaxi!



OSKAR TXOPERENA

Zuhaitz landaketa Frainen

Otsailaren 14an eskolako ikasle eta irakasleek landaketa Fraingo magalean egin zuten. Ekialdeko ixurialdea hagitxura polita hartzen ari da. Bidebatez, Ilundainen animaliak errekupeatzeko dagoen egoitzatik zapelatza ekarri eta askatu zuten, 2002an Landabizkarren egin zuten bezalaxe.



OSKAR TXOPERENA

Arkupeak elkartearen mus kanporaketa

Otsailaren 2an jokatu zuten Arkupeak Elkartearen Igantziko bazkideek mus txapelketaren kanporaketa. Bi bikote sailkatu ziren Doneztebeko ekitaldira joateko: Irabazleak, Raimundo Telletxea eta Gerardo Sein, alde batetik, eta Jabier Telletxea eta Amador Txoperena txapeldunordeak, bertetik.



caser
residencial

www.caserresidencial.es

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimer eta bestelako demenziak dituzten gaixoen egonaldiak
- Egunko zentroak:
 - 365 egunetan irekiak
 - Garraio zerbitzua Irun, Hondarribia eta Hendaiara
 - Iparraldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169



MARTIKO

Dasta ezazu!

DENDA ORDUTEGIA Astelehenetik-ortziralerara 08:00-17:00
Martiko. Zalain Ind z/g. 31780 Bera. Nafarroa
Tel: 948 625 016 · www.martiko.com · martiko@martiko.com

Etiket urruti eta orain bakarrik dago Karrera

Berez, Lannemezango gartzelan egotea dagokio eta behin eta berriz eskatu du horrat lekualdatzeko

NEREA ALTZURI

Joan den otsailaren 7an, *Motxilaren umeak* izeneko dokumentala ikusteko aukera izan zen eskolan. Estatu espainiarreko eta frantziarreko gobernuak oraindik etenik eman ez dioten espetze politikaren ondorioz, gartzeletan dituzten ama edota aita ikusteko, ehunka eta ehunka kilometro egiten dituzten umeen lekukotzak biltzen dira aipatutako dokumentalean.

Euskal preso bakarra

Dokumentala ikusteaz gain, Paris inguruan, Reau Sud Franciliengo kartzelan dagoen Mikel Karrera herriko presoaren bikotekideak, Eli Iturriak, euren egoera zein den azaldu zuen. Mikelen eskubideak urratuak direlako, senide eta lagunek, tartean borts urteko bere alabak, mila kilometrotik goiti egin behar izaten dituzte bera ikustera joaten direnean. Iturriak azken urteotan etxean bizi duten egoeraren berri eman zuen. Zinez hunkigarria izan zen bere testigantza.

Borrokalidia

Mikelen egoerari buruz, berriz, urtarilaren 20az geroztik, gaur egun dagoen gartzelan euskal preso bakarra da. Berari, ordea, Euskal Herriatik hurbilen dagoen Lannemezango gartzelan egotea dagokio, Euskal Herriatik 350 bat kilometrotara dagoen espetxean, hain zuzen. Hala, lerro hauek idazterakoan, ondoko egunetan Lannemezango gartzelara hurbiltzeko pausorik ematen ez bazuten, Karrerak borrokaldian sartzeko asmoa zuela iragarri zuen. Are gehiago, Karrerak gartzela horretara hurbildu arte protestarekin segituko zuela adierazi zuen Iturriak solasaldian, Euskal Herriko bisitei uko eginez eta isolamenduan sartuz.

Dispersioak edo sakabana- ketak gartzeletan daudenak eta etxeok zigortzen segitzen duela eta, Frantziako eta Espainiako gobernuak, behingoz hitzetatik ekintzetara joateko ordua dela gaineratu zuen Iturriak eskolako irakasleak eta hainbat herritar bildu ziren otsailaren 7ko solasaldian.



ARANTZAKO HERRI ESKOLA

100 pago landatu dituzte eskolakoek

Urtero bezala eta orain horretarako garaia denez, otsailaren 6an zuhaitz landaketa egin zuten eskolako Lehen Hezkuntzako lehenbiziko mailatik goitiko lagunek, Udalaren laguntzarekin. Ehun pago landatu zituzten Senberroko borda ondoko eremuan.



IGOR UGALDE

Trikitixa jaialdia apirilaren 6an

Trikitixa zaleak presta zaitezte! Udaleko Kultura batzordetik adierazi bezala, Arantzako IV. Trikitixa Jaialdiak badu data. Apirilaren 6an izanen da eta gaurgero, herriko nahiz eskualdeko trikitilari eta panderojoleak ariko dira prestatzen. Informazio gehiago aitzinerago emanen dizuegu.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Manterola
Tekniko instalatzailea
**ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA**
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

LABE ZAR
Astelenehena
ortziralerara:
07:15etik
aitzinerara
Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara
948 631 076 · BERA

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK
DESINSEKTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMENDUAK
T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

DESINBERA

Jauilena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

**Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak**

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak



Gaztetxoek ederki pasatu dute astea Izaba aldean. UTZITAKO ARGAZKIA

Izaban eskiatzen ibili dira eskolako neska-mutikoak

Herrikoak, Saldias, Legasa eta Iturengoekin batera joan ziren Aste Zurian parte hartzera, otsailaren 10etik 15era

MAIDER PETRIRENA

Sunbillako ikasleak otsailaren 10tik 15era bitarte Saldias, Legasa eta Iturengo ikasle eta irakasleekin eskiatzera joan dira. Argazkian ageri dira Iraia Ruiz Lopez, Maialen Gonzalez Goikoetxea, Eneko Sagarzazu Latasa, Oihan Apeztegia Martinez, Iker Lanza Gartzia, Julen Lazkano Alzuri, Joakin Jimenez Etcheverry, June Aiesa Rearte, Aitor Igoa Arretxea, Jon Ibarra Olaetxea, Mikel Bastante Rodriguez, Ane Zelaieta Indakoetxea, Uxue Armendariz Aizkorbe, Uxue Ibarra Mariezcurrera, Hodei Gastesi

Etxebeste, Ahielen Irazoki Ezkurra, Unax Larraburu Hermandorena, Ekhi Ezkurra Sanz eta Jaime Sein Osinaga. Goizetan Ipar Eskia egin zuten eta arratsaldetan koreografia, igerilekua, herri-kirolak, Julian Gayarre Museora bisita eta NIZ eta Festa/Xeia Erronkarin.

Bederatzi neska-mutikok eman dute izena eskolan

2019/2020 ikasturteari begira otsailaren 4tik 8rako epean Haureta Lehen Hezkuntzakoek izena eman zuten. Guztira Sunbillan bederatzi neska-mutiko berri izena eman dute.



JON ANZIZAR IBARRA

Euskal Herriko mus txapelketa

Otsailaren 23an Iruñean, Sunbillako kanporaketan bi lehendabiziko postuetan gelditu ziren bikoteek parte hartuko dute: lehenbizikoak, Jose Mari Arretxea Manterola eta Jose Martin Agirre Iriarte, eta bigarrenak, Aintzane Arretxea Pascual eta Agurtzane Zubieta Almandoz.

VII. Kantu Zaharren Eguna martxoaren 16an ospatuko dute Aritzigin

M. PETRIRENA

Aritzigin kanpinean Kantu Zaharren Eguna antolatu dute zazpigarren aldiz, martxoaren 16an. Larunbat horretan, 12:00etan Aurtizko joaldunak ibiliko dira giroa jartzen eta bazkaldu bitartean ere kantari ibiliko da jendea. Bazkaria 14:00etan izanen da eta bazkariaren, afariaren eta liburuaren prezioa, 48 euro.

Bazkaondoan eta arratsalde guztian kantari ariko dira Joxe Angel akordeoilariaren laguntzarekin. Ilunabarrean pintxoekin afari goxoa dastatzeko



Giro ederra izanen da aurten ere.

aukera izanen dute. Beti bezala, animazio handia izanen dute.

Txartelak kanpinean bertan hartu daitezke martxoaren 13ra bitarte.

Tokiko 117 dinamizazio-proiektutan jardun zuen iaz Cedernak elkarlanean

TTIPI-TTAPA

Cederna Garalur Elkartek Nafarroako Mendialdeko tokiko 117 garapen-proiektutan jardun zuen elkarlanean iaz. Guztira, 58 bileratan parte hartu zuten eta 70 zabalpen-ekintza burutu zituen. Ibon Mimentzaren iritziz, zaila da

proiektu bat gailentzea. «5.000 kilometro koadroko hedadura eta 120 udalerri dituen lurralde baten kudeaketaz ari gara. Horietako askorekin maiz jarduten gara tokiko foroetan: besteak beste, Altsasuko garapen- eta baso-batzordeetan, eta Malerreka eta Bortzirietan-

ko berdintasun-batzordeetan. Halaber, azokak eta jardunaldiak antolatzen parte hartzen dugu: hala nola, Doneztebeko udaberriko azoka; eta azienden ohiko lehiaketak Elizondon. Enpleguari dagokionez, enpresa-hobiak kudeatzen ditugu, eta 2018an toki-erakundeek antolatuta, langileak aukeratzeko 12 prozesutan hartu dugu parte». Auniz dira adibideak. Horien artean azpimarratzeko

koak dira, bertzeak bertze, iaz martxan jarritako hainbat ekimen: Cederna Garalur Elkartek Arras Baztan Marka Fundazioa martxan jartzen esku hartu izana (Baztango Udalaren ekimena), eta Remendia prozesuan izandako parte-hartzea. Era berean, Mendialdeko hainbat udalekin lankidetzan aritu zen kalitateko tokiko lehen sektorea sustatzeko.

Udal Maparen erreforma onartu du Parlamentuak

Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Malerreka, Urdazubi eta Zugarramurdi Bidasoa eskualdearen barne gelditu dira eta Arano, Areso, Leitza eta Goizueta Larraun-Leitzalde eskualdean



Tokiko Maparen Erreforma
12 eskualde

	Udalerriak	Biztanleak 2017
Arga eta Iruberría	36	361.574
Bidasoa	21	22.355
Zangotzaldea	16	9.555
Ega	66	58.514
Larraun-Leitzalde	10	8.569
Pirinioa	30	5.204
Pirinio-aurrea	12	5.539
Erribera	19	87.136
Goi Erribera	8	25.567
Sakana	15	20.185
Izarbeibar	20	12.967
Erdialdea	19	26.069
GUZTIRA	272	643.234

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Parlamentuan aldeko 26 botorekin eta kontrako 24 botorekin onartu zuten ilbeltzaren 31n Tokiko Udal Maparen erreforma. Horren arabera, 12 eskualdetan banatua gelditu da Nafarroa. TTIPI-TTAPAREN eremuari dagokionez, Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Malerreka, Urdazubi eta Zugarramurdi Bidasoa eskualdearen barne gelditu dira eta Arano, Areso, Leitza eta Goizueta Larraun-Leitzalde eskualdearen baitan.

Duela hiru urte hasi ziren Tokiko Administrazioaren Erreformatarako Legearekin bueltaka, eta azken orduko aldaketa batzuekin, Parlamentuak ilbeltzaren 31ko saioan onartu zuen Udal Maparen erreforma. Azkenera arte, Orain Bai taldearen aldetik zalantza izan zen erreforma aitzinera aterako zen ala ez, baina azkenean, Geroa Bai, EH Bildu eta Ezkerra alderdietako ordezkariak bezala, Orain Baiko parlamentariak ere babesa eman zioten erreformari. UPN, PSN eta PPK, iragarri bezala, ezezkoa bozkatu zuten.

TTIPI-TTAPAREN eremuaren kasuan, Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Malerreka, Urdazubi eta Zugarramurdiko 21 udalerrietako 22.355 biztanleek Bidasoa eskualdea osatu dute, eta Arano, Areso, Leitza eta Goizuetakoak Larraun-Leitzaldearen baitan daude. Azken eskualde horretan, guztira hamar herri dira eta 8.569 biztanle.

Erakutsi eta probetu aukerak!

TTIPI TXARTELA MALEERREKA

%10 DESKONTUA
30etik gorako erosketetan

Nagusia, 12 | DONEZTEBE
T. 948 45 01 13

%5 DESKONTUA kosmetikan
%5 DESKONTUA oparietan 50etik gora. Promozioetan ezik

Amezti | DONEZTEBE
T. 948 45 01 63

%10 DESKONTUA Skeynor Eternal kremetan

Eliza, 18 behe 2 | DONEZTEBE
T. 948 45 02 86

%10 DESKONTUA produktuetan

Intzakardi, z/g | DONEZTEBE
T. 948 45 03 64

%10 DESKONTUA arropa guztietan

Amezti | DONEZTEBE
T. 948 45 16 70

%5 DESKONTUA kosmetikan, opari artikuluetan eta haur-eramailetan

T. 948 45 14 73 | DONEZTEBE
info@kimetzelardenda.com

%10 DESKONTUA pijama eta barruko arropetan

Zazpigorutze, 11 | DONEZTEBE
T. 948 45 02 52

%5 DESKONTUA elikatzeko kontzienteko kontsultetan: elikatzeko nutrizional, energetiko eta emozionala

T. 948 45 14 73 | DONEZTEBE
lorea@kimetzelardenda.com

%5 DESKONTUA 50€ arteko erosketetan
%10 DESKONTUA 50etik gorako erosketetan Promozioetan ezik

Nagusia, 4 | DONEZTEBE
T. 948 45 07 27

%5 DESKONTUA 30etik gorako erosketetan

Nagusia, 1 | DONEZTEBE
T. 948 45 15 71

%10 DESKONTUA 30etik gorako erosketetan

Parrokia, 11 | DONEZTEBE
T. 948 45 01 12

%10 DESKONTUA erloju eta bitxietan 30etik gorako erosketetan

Amezti, 1 | DONEZTEBE
T. 948 45 09 25

%5 DESKONTUA zakur eta katuen pentsuan

Mourges, 20 Nabe 1 | DONEZTEBE
T. 948 45 18 45

%10 DESKONTUA oinetakoetan

Parrokia, 17 | DONEZTEBE
T. 948 45 02 89

%10 DESKONTUA 12etik gorako erosketetan

Elizagibela, 7 | DONEZTEBE
T. 948 45 05 21

%10 DESKONTUA eskeletan

Koskontako bidea, 7-1. | LESAKA
T. 948 63 54 58



Ate irekien egunean eskolako metodologia ezagutaraziko dute.

Askin haur-eskolako matrikulazioa zabalik

Eskaerak martxoaren 1etik 15era bitarte aurkez daitezke eskolan edo udaletxean

MARGA ERDOZAIN

0-3 urte bitarteko umeentzat zuzendutako zerbitzuak heldu den ikasturterako prestaketa abiatuko du. 2019-2020 ikasturterako izena eman nahi dutenek martxoaren 1etik 15era aurkez ditzakete eskaerak, eskolan bertan edo udaletxean. Haurrak jardunaldi osoan edo erdian matrikula daitezke.

Martxoaren 9an ate irekiak

Eskola eta beraien proiektua bertatik bertara ezagutzeko aukera ate irekien jardunaldian izanen da, martxoaren 9an, larunbatean, 10:00etatik

12:00etara. Bertara azaldutako eguneroko martxa, eskolako txokoak, jangela zerbitzua... ezagutu ahal izanen dituzte.

Aurrematrikula egin ondotik, behin-behineko zerrendak maiatzaren 20an ezagutaraziko dituzte. Erreklamazioak egiteko egun batzuk utziko dituzte eta azkenik matrikula egingen dute.

Informazio gehiago nahi dutenek Doneztebeko Udaren webgunean, askinhaurreskola@gmail.com helbidean edo 683 15 18 68 telefonoan eskura dezakete.

San Migel ikastetxeak Euskal Herriko Hiriburuak irudikatuko ditu inauterietan

M.ERDOZAIN

San Migel eskolako ikasleek Euskal Herriko hiriburuekin lotutako kolore eta soinuekin ospatuko dituzte inauteriak. Haur Hezkuntzakoek Iruñea, lehenengo ziklokoek Donostia, bigarrenekoek Bilbo eta Gasteiz eta hirugarrenekoek eta A ere-

dukoek Iparraldeko hiriburuak irudikatuko dituzte. Dagoeneko martxoaren 1ean herriko karriketan egingen duten desfile koloretsurako abestiak, dantzak... prestatzen ari dira. 11:00etatik 13:00etara herrian barna ibiliko dira; bazkalon- doan jokoak izanen dituzte.

Bi film pantailaratuko dituzte igandean

Otsailaren 24an, heldu den igandean, bi film pantailaratuko dituzte herriko zineman. Erreka Guraso Elkarteak antolatuta, 16:30ean *Los increíbles II* filma eskainiko dute. 18:30ean, berriz, Udalak antolatuta, *Ha nacido una estrella*. Lehen emanaldira joan nahi dutenek sarrera euro bat ordaindu beharko dute; bigarreneira joan nahi dutenek, berriz bi euro. Bigarren emanaldi horretatik lortutako dirua MPS elkarteari emanen diete, gaixotasun arraroen ikerketak garatzen laguntzeko.

'Askatasuna eta mugaren arteko dialektika' hizpide

Otsailaren 22an, ortziralean, *Askatasuna eta mugaren arteko dialektika haur ttipiekin* hitzaldia izanen dute Askin haur-eskolan, 16:00etan. Ane Alanedok, irakaslea eta neurosiaren prebentzioan aditua eta formatzailea denak, eskainiko du hitzaldia. Hitzaldira joan nahi dutenek aitzinetik jakinarazi beharko dute, apymaaskinhaureskola@gmail.com helbidera idatzita. Guraso eskolako gurasoendako doan izanen da, gainerakoek, berriz, bi euro ordaindu beharko dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIA

'Pumori, mendiaren alaba' emanaldia

Erreka antolatutako zinema emanaldia arrunt arrakastatsua izan zen, ia 180 lagun bertaratu ziren. Sarreretatik bildutako dirua Sos Himalayaren aldeko ekimenara bideratuko da. Elkartasun keinu ederra, are politagoa bertaratu zirenen sentipen eta hunkigarritasuna gehituz gero. Zorionak!

Intzakardin kimaketa lanak egin dituzte

Otsail hasieran parkeko zuhaitzak kimatu dituzte. Zuhaitz horien osasuna eta etorkizuna bermatzeko asmoz egin dira inausketa-lanak. Gainera, zuhaitz batzuk etxebizitzetatik hurbil daudenez ikusmen eragozpenak ere saihestu nahi izan dituzte.

Elizagibela auzoan argiztapenean hobekuntzak

Hamalau luminaria gehiago paratu dituzte Elizagibela auzoan argiaren intentsitate hobetzeko asmoz. Horrekin herritarrek egindako eskaerari erantzun ona eman dio Udalak; eta era berean argiztapen sistemaren oreka eta efizientzia hobetu nahi izan du.

V. ARGAZKI LEHIAKETA erran.eus atarian

erran.eus
Mendialdeko Albisteak

Gaia: **ESKUALDEKO INAUTERIAK**



Argazkia: "Ikusiz ikasi" - Juan Carlos Olaetxea

Informazio +
erran.eus



OINARRIAK

1. **TTIPI-TTAPA** eta **XORROXIN** zabaltzen diren eremuetan sortu edo bizi eta 16 urtetik goiti duen orok parte har dezake.
2. Argazkiak 2019ko inauterietan ateratakoak izanen dira (argazkia non atera den zehaztu beharko da).
3. Argazkiak mugikor, tablet edo argazki kamerarekin ateratakoak izan daitezke, originalak eta bertze inon argitaratu gabeak. Koloretan edo zuri-beltzean aurkez litezke eta 300 px-ko bereizmena eta 28x16 zentimetroko gutxieneko tamaina izan beharko dute (baldintza hauek betetzen ez dituztenak baztertuko ditugu).
4. Argazkiak **ERRAN.EUS** artxiboan altxatuko ditugu eta guretzat gordeko dugu jasotako lanak publikatzeko eskubidea.

Argazkiak **ERRAN.EUS** atarian lehiaketarako prestatutako formularioaren bidez bidali beharko du parte-hartzaileak.

EPEAK:

- Argazkiak bidaltzeko epea: urtarrilaren 20tik martxoaren 22ra.
- **ERRAN.EUS**eko erabiltzaileen saria emateko **bozketa fasea**: martxoaren 27tik apirilaren 12ra.
- **Irabazleak**: **ERRAN.EUS** atarian jakinaraziko ditugu apirilaren 15ean.
- **Sari-banaketa**: maiatzean.

Animatu!

SARIAK

EPAIMAHAIAREN SARIA:

NEKATUR BONO ORLEGIA
2 lagunendako 2 gau eta 2 gosari



NEKATUR NEKAZALTURISMOA
ELKARTEA
Tel: 943 327 090
www.nekatur.net



ERABILTZAILEEN SARIA:

ELGORRIAGAKO BAINUETXEAN
2 lagunendako zirkuitua + otordua



HOTEL BALNEARIO ELGORRIAGA
Errotalde, Elgorriaga
Tel: 948 45 60 45
www.sanvirilahoteles.com/
hotel-balneario-elgorriaga/



PARTE-HARTZAILEEN ARTEAN:

ELBETEKO POSADAN
2 lagunendako otordua



ELBETEKO POSADA
Nagusia, 1 ELBETE
Tel: 948 581 519
www.posadaelbete.com/eu



BERA

inauteriak 2019

HAUTIK!!!

 INPRENTA - KOPISTEGIA
 948 631 521
 material guztietan inprimatzen dugu
 hamisetak / oparitzeko artikuluaK


ZUBIONDO
 JATETXEA-SAGARDOTEGIA
 EGUNEKO MENUA
 SAGARDOTEGI MENUA
 KARTA
 OGITARTEKOAK
 PLATER KONBINATUAK...
 T. 948 625 472
 Alasta karrika • BERA
 zubiondojatetxea.com


LIXOIA
 Ongi pasa inauteriak!
 OSTATU • JATETXEA
 Itzea, 2 • 31780 BERA • 948 631 271


3. Estankoa
 ongi pasa
 inauteriak!
 Urruña Plaza 1, behea
 BERA • T. 948 63 16 37

ERREKALDE
 PLATER KONBINATUAK
 OSTATU
 PINTXOAK
 BOKATXAK
 ONGI PASA
 INAUTERIAKI!
 TFNOA: 948 630 259 BERA


ZELAIETA
 tabakodenda
 egunkariak, aldizkariak...
 Iturlandeta • BERA • 948 631 246
 ONGI PASA INAUTERIAK



egitaraua

Otsailak 23, larunbata

19:00etan kaldereroen emanaldia*,
 Illekuetatik Herriko Etxeko plazara.
 *Entsegua otsailaren 27an, ortzira-
 lean, 19:00etan musika eskolan.

Otsailak 27, asteazkena

18:00etan kontzertua kultur etxean.

Otsailak 28, ortzeguna

Goizean zingar-arrautze. **15:45ean**
 haurrek inude eta artzain moztorroak
 jantziko dituzte. Suhiltzaileen parke-
 tik Eztegar pilotalekura*.
 *Euria eginez gero Eztegar pilotale-
 kuan.
16:30ean haurrentzako dantzaldia
 Eztegar pilotalekuan. Euria eginez
 gero Eztegar pilotalekuan.



Martxoak 3, igandea

10:00etatik aitzinera inude eta
 artzainak* herrian barna, Eztegar
 pilotalekutik hasita. **18:00etan** Ezte-
 gara pilotalekutik Altzateko karrikara.
 *Entseguak otsailaren 25ean, asteaz-
 kenean; eta martxoaren 1ean, ortzira-
 lean Eztegar pilotalekuan.

Martxoak 4, astelehena

Goizean zingar-arrautze eskean ibi-
 liko dira. **Egunean zehar**, karrozak
 herriko karriketan barna.



BERAKO UDALAK
 INAUTERI ZORIONTSUAK
 OPA DIZKIZUE!



«Inauterietan parte hartzea eta gustura egotea da garrantzitsuena»

IGOR TELLETXEA

Musika eskolako irakaslea eta bandako zuzendaria

Musika da Igor Telletxearen bidela-guna. Ez da gaurkoa doinu eta letrekin duen hartu-eman. Musikazaleak dira familian, «atatxi musikaria zen eta osabak ere hala dira». Horren lekuko da, etxean duten musika-tresna kopurua: «akordeoia, tronboia, bonbardinoa, gitarrak, baxua, bateriak...». Buru baino gehiago eta denak eraginez herria mugiarazteko adina.

Ikasi eta irakatsi

Musika-eskolan 9 urte ingururekin hasi zen: «akordeoiarekin hasi nintzen. Gero, perkusioari heldu zion. Ordutik, hainbat tresna landu ditu eta egun, «bateria, tronboia, gitarra, baxua, pianoa...» jotzen ditu, «batzuk ongi samar eta bertzeak guttiago». Musika aditu eta ikasi ez ezik, irakatsi ere egiten du. Duela 15 bat urte hasi zen musika-eskolan lanean eta horretan dihardu: «perkusioa irakasten diet 20 ikasle ingururi».

Bandako kide da beratarra eta guztira 25 urte inguru daramatza taldean. Urteotan parte-hartzaile kopuruak goiti egin duela kontatu digu: «15 bat ginen hasieran eta 20 lagun inguru egun». Baina horren gainetik beraien arteko «giro ona» eta taldeak dakarren «aberasgarritasuna» nabarmenduko lituzke: «haizezko musika-tresna bat jotzen dakien edonor animatuko nuke».

Inauteriak ere musikaren bueltan

Musika non, bera han izaten da. Inauterien atarian, erraterako, ikasleekin eta bandako kideekin ikusi ahal

izanen dugu: «ortzegun gizona baino lehen musika-eskolakoek musika eta mozorroa bateratuz kontzertua antolatzen dugu; eta kaldereroetan ez dugu hutsik egiten». Bi ekitaldiokin irudimenak martxan paratu eta motorrak berotzeko aukera izaten du. Hala, «inude eta artzainen» bueltan erritmoa jartzeko eta astelehenean «kuadrillakoekin mozorrotzeko» prest izaten da. Egun horiek «bereziak» dira berarentzat. Hortaz, ongi oroitzen du huts egin zuen urtea.

Bederatzi-hamar urte zituela hasi zen inude eta artzainetan ateratzen: «kaja jotzen nuen». Bertze horrenbertze daramatza mozorrotzen. Urteren batean kuadrillakoek mozorroak prestatzen lan handia egin dutela aitortzearekin batera, aurtan ez dutela neke handirik izan gaineratu digu: «gaia eta pertsonaiak hitzartu ditugu, errepika ez daitezen». Guztia ez da materiala, eta bazterrak nahasten trebeak dira, eta beraz, bertaratzen direnek girorik ez dute faltako.

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE



INAUTERIE TAN LASAI IBILTZEKO
GARRAIO ZERBITZUA ESKAINTZEN DUGU
ASTELEHEN EGUERDIAN

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa
t. 948 631 106 w. www.zalain.com



PAGOLA
Harategia - Hestebeteak

ONDO PASA INAUTERIAK!



Altzate Plaza, 2 · Bera · T. 948 63 00 54
www.embutidospagola.es

E D A R I A K

ongi pasa inauteriak

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

Ongi pasa inauteriak!

Oiartzabal
arkitektoa

Ipar karrika, 15
31780 BERA
T. 948 630 304 • 627 955 349

KATEA BIKE

BIZIKLETEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
GIMNASTIKA ETA
FITNESS MAKINAK
bizikleta estatikoak,
lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kantlonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

ORBEA CONR SCOTT BH GIANT LIV MERIDA



LESAKA

inauteriak 2019

egitaraua

Otsailak 28, ortzeguna

Arraultze-arraultze eguna. **Goi-zean** haurrak eskean ibiliko dira eta arratsaldean, gurasoen eskutik, ikas-tolan merienda izanen dute.

Martxoak 3, igandea

Goizean Goitarrak baserriz baserri ibiliko dira; arratsaldean, berriz, herrian. **16:00etan** herriko gaztetxo eta gurasoak frontoi gibleko apar-kalekuan bilduko dira zakuak bete eta josteko. **17:00etan**, pilotalekutik abiatuta, zakuzahar tikiak karrikaz karrika ibiliko dira Lesaka Trikiti-xa Taldearekin; **19:00etan**, berriz, zakuzahar handiak aterako dira. **18:00etan** dantzaldia izanen dute Plaza Zaharrean.

Martxoak 4, astelehena

Astelehen eta astearte goizean Fraindarrak baserriz baserri eta herrian barna ibiliko dira. **Eguerdi al-dera** orgen eta mozorroen desfilea egingen dute eta **18:00etan** dantzaldia izanen dute Plaza Zaharrean.



IRU-BIDE

OSTATU • JATETXEA

Ongi pasa inauteriak!

Arratzubi Kalea 3 LESAKA
T. 948 63 71 27



IZARRA
OKINDEGIA

ongi pasa inauteriak!

PLAZA ZAHARRA 12-13 31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

TRANSPORTES IRIGOYEN

Ongi pasa inauteriak

629 592 215 • Biurrana auzoa, 1 • LESAKA



KROKETAK, PINTXOAK, BOKATAK,
ENTSALADAK, PLATER KONBINATUAK
eta giro bikaina.
PRESO TA IHESLARIAK ETXERA!

Albistur 13, Lesaka. 948 627 597

IÑAKI JANARIDENDA

ONGI PASA INAUTERIAK

Arretxea. 12 • LESAKA • 948 638 287



KAGU
LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA



- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK



«Ondorengoek inauteriez goza dezaketela ikustea pozgarria da»

MARIA JOSE PORTU ETXABIDE
Lesakako emakumezkoa

Pikabea baserriko sei senideetan lehendabizikoa da Maria Jose Portu (Lesaka, 1946). Baserriko bizimoduak eta beharrak bultzatuta, gazterik hasi zen lanean. Han eta hemen ibili ondotik, 1969an ostatua hartu zuen eta egun hortxe du bere habia.

14 urte bete gabe zituela hasi zen lanean: «eskola utzi behar izan nuen». Maletak hartu eta herrira jo zuen haurtzain: «urte eta erdiz bi haur zaindu nituen». Ondotik, medikuaren etxean aritu zen. Gisa guztietako lanak egin behar izan zituen: «etxeke lanez gain, baratzean aritzen nintzen eta gaixoak hartzen nituen». Lau urtez egunero egin zuen lan: «modua zenean, igande arratsaldetan plazan dantzatzeko edo etxekeak bisitatzeko aukera izaten nuen». Herriko fabrika ere ibilia da: «lan ona nuen baina hiru urtez bakarrik aritu nintzen, ezkondu nintzen arte. Hala izaten zen, emakumezkoek ezkontzea erabakitzen genuenean kitapena eman eta kanporatu egiten gintuzten».

Urte «gogorrak»

Jarraian egun diharduen ostatua hartu zuen. Hasiera «zaila» izan zen: «esperientziarik ez nuen, ekaina zen eta sanferminak gainean genituen...». Fabrika handitu zuten arte (1970-1972) «lan gutti» egin zuten, baina ederki sumatu zuten eragina: «orduan 100 bazkari baino gehiago eta 90 bat afa-ri ematen genituen». Lo eskaseko eta lan aunitzeko urteak izan zituzten: «aunitzetan 04:00etan ixten genuen eta 08:30 aldera ireki». Gaur egun, berriaz, «egun handienak sanferminak, San Anton eguna, kinto bestak eta inauteriak izaten dira».

Batzuek besta egin ahal izateko bertzeek lan egin behar izaten dute eta horren adibide da lesakarra. Izan

ere, egun berezi horiek guztiak lanean pasa ditu: «inauteriak legeztatu eta lehendabizikoz ospatu zirenean 17 urte inguru izanen nituen eta medikuaren etxean ari nintzen». Etxeko balkoitik ikusi ahal izan zuen lehendabiziko karro hura: «Lesakako banda atera zen, mariatziz jantzita eta mu-

«Lanean gaudenok ere giroaz gozatzeko aukera izaten dugu»

sika jotzen. Hagitz-hagitz polita izan zen...». Lehen zakuzaharrak, berriaz, ostatuko atarian ikusi zituen: «urte batean pila bat bildu zirenez, erdiek ohiko buelta egin zuten eta bertze erdiek Etxeberritik abiatu ziren».

Giro «polita eta berezia»

Bizpahiru urteren buruan, igandetan ostatua ixten hasi ziren. Hortaz, azken hamar urteetan zakuzaharrak bertatik bertara ikusteko aukera izan du. Pozgarria da berarentzat berak gozatu ez duena ondorengoek behintzat gozatu ahal izan dutela ikustea: «alabak ostatuan lanean ari ondotik hasten zuen besta eta bilobek barrutik bizitzeko aukera izan dute. Urteren batean zakukak josten ere lagundu izan diet, gusura aski gainera».

Larunbatean eta astelehenean, berriaz, sukalde bazterretik bizi ditu inauteriak: «eguneroko jantziak utzi eta paratzen dituzten mozturroak, egiten dituzten antzerkiak... ikustea aunitz gustatzen zait». Urtez urte izan duten giroa gustuko duela antzematen da, irria ezpainean duela kontaktzen ditu kontuak... Aurten ez da guttiagorako izanen. Izan ere, «fraindarrak etorriko dira astelehenean, soinua izanen dugu... polita eta berezia izanen da».

asesoria
Emaizta
AHOLKULARITZA
Kontable · Fiskala · Laborala

ongi
pasa
bestak!

Eltzeta, 20 behea LESAKA | 948 638 077 | amaia@emaitza.eu

PITTIN!

haurrentzako arropa denda

ONGI PASA INAUTERIAK!

T. 948 627 583 | Arretxea 20, Behea | LESAKA

ZOANSA ONGI PASA INAUTERIAK

MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA • TXAPA • PINTURA

Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05

e-mail: zoansa@zoansa.com

Banaria, 2 • Alkaiaga Ind. • 31789 LESAKA (Nafarroa)

KASINO

OSTATUA - RESTAURANTE

ongi pasa
inauteriak

Plaza Zaharra • 948 63 72 87
LESAKA

**MALE
REKA**
KUSTOM

**ARROPA ETA OSAGARRI
PERTSONALIZATUAK**

Nagusia, 1 · Doneztebe

T. 948 451 571

T. 636 885 190

male-reka@male-reka.com

f Male-Reka

ongi
pasa
inauteriak!

Arozena
ostatu · jatetxea

**Gosariak
bazkariak
eta afariak**

ongi pasa
inauteriak!

T. 948 450 443

Leitzako errep., 84 · Doneztebe



Amezti, 7 - Doneztebe - Tel. 948 450 271

Belarra jatetxea

ONGI PASA
INAUTERIARI!



Amezti zeharkarrika, 3 · 31740 DONEZTEBE
T. 948 450 306 · www.restaurantebelarra.com

IBARBURU

GASOLIOA ETXERA

**KALEFAKZIOA
NEKAZARITZA
AUTOMOBILGINTZA**

Vicente Arocena Andueza
T. 610 258 595

Iruña-Irun Errep. 48,5 km. 31740 DONEZTEBE

**MIKEL
OSTATUA**

Probatu...
kiloko Mikel
txuletoa,
harrian egina

- Entsalada epelak
- Plater konbinatuak
- Arrautza frijituak
- Hanburgesak
- Ogitaratekoak
- Sandwichak
- Errazioak

**Ongi pasa
inauteriak!!!**

ETXEKO POSTREAK ere dasta itzazu

T. 948 450 442 Amezti, 5 - DONEZTEBE

DONEZTEBE

inauteriak 2019



egitaraua

Otsailak 28, ortzeguna

20:00etan triki-poteoa herrian barna, Titi ostatutik abiatuta. **21:30ean** afaria Herriko Ostatuan. **Afalon-doan** dantzaldia Modestoren eskutik.

Martxoak 1, ortziralea

09:00etan Titi ostatuan elkartuko dira baserriz baserri ibiltzera joateko. **11:00etan** eskolako gaztetxoak herrian barna ibiliko dira eta Bear Zana pilotalekuan bukatuko dute ibilbidea (gaia: Euskal Herriko hiriburuak). **15:00etan** bazkaria egingen dute Herriko Ostatuan. **Ondoren** Modestoren eskutik, dantzarako tartea izanen dute.

Martxoak 2, larunbata

16:30ean karrozen desfilea egingen dute. Aparandik abiatuko dira eta herrian barna ibiliko dira.



«Desfilean karrikak jendez betetzen dira»

IBAN JUANENA
Doneztebeko gaztea



Lan guztiak alde batera utzi eta «gogo handiarekin» bizi ditu inauteriak Iban Juanenak. Egun bereziak, bakarrak, dira berarentzat: «ama tolosarra da eta han inauteriak bizi egiten dituzte. Ttikitatik barneratu didana izan da».

Ortzegunetik larunbatera ez du atsedunik hartzen: «Herriko Ostatuan afaria eginez hasten ditugu; ortzira-lean herriko gazte guztiak baserriz baserri ibiltzen gara, bazkaldu, mo-zorroto eta bestan bukatzen dugu; larunbatean, berriz, karrozen desfilea egiten dugu».

Orga «ikusgarriak»

Momentu guztiak «bereziak» badira ere, «politena» hondarreko egunean inauteriak borobiltzeko egiten duten buelta da doneztebar gaztearentzat: «lan handia egiten dugu igandeko mozorroa eta karroa prestatzen, eta egindakoa jendaurrean erakustea ederra da». Orokorrean, atera ohi diren karrozek «gibelelik lan handia» izaten dutenez, «karrikak jendez betetzen» direla adierazi du.

Haurrak zirela gurasoen laguntzarekin egiten zituzten prestaketa-lanak. Koxkortu ahala, ordea, gurasoen laguntza utzi eta bakarrik egiteari ekin zieten: «duela hamar bat urte, bakarrik atera ginen lehendabiziko urte hartan, mini-moto batekin bul-zatu genuen karroa».

Ordutik hainbat «eta urtetik urtera hobeak» izan dira landutako gaiak eta orgak. «Itsasontzi haundi bat» egin zutenekoa du gogoan, «aunitz» gus-

tatu baitzitzaion. Dena dela, ikusleentzat politena joan den urtekoa izanen zela gaineratu du: «Moulin Rouge kabaret karroza egin genuen eta txapel-dunak izan ginen...».

«Umorea» helburu

Jantzia edozein izanik ere, bada bere kuadrillak berezkoa duen zerbait. «Urtez urte prestatutako mozorroari gordinkeria ukitu bat ematen» saiatzen dira. Jakin badakite «ikusle guztiei ez zaiela gustatzen» baina horren helburua «umoretsu eta aldarte onean egotea» dela gaineratu du.

Normalean gaia pentsatu eta «hiru bat aste lehenago» hasten dira buru-belarri lanean. Hamabortz lagun inguru bildu eta «dezentea» den zerbait plazaratzeko «eginahalak» egiten dituzte. Ttikikeria batzuk falta badituzte ere, aurtengoa dagoeneko martxan dute: «denbora gutxi behar izan dugu, joan den urtekoa desegin gabe genuenez hori baliatu dugu eta».

Elkarlanean

Kuadrillarekin orga prestatzen egiten duen lanaz gain, inauterien bueltan Udalak antolatu ohi dituen bileretan ere parte hartzen du: «gazteok eta Udalak otorduak eta bertzelako kontuak zehaztu behar izaten ditugunez, lagun-taldetik baten bat joan behar izaten da». Guztien elkarlanari esker, aurtan ere inauteri ederrak prestatu dituzte Donezteben: «ongi pasatzeko ezer txarrik ez gertatzea baino ez dugu behar».





25. urteurrena
DESKONTUAK
%75
arte

LA MASCARA

Inauterietako mozorroetan den-dena daukagu
Era guztietako osagarrien salmenta
Makillaje profesionala

www.lamascara.es
mascara@lamascara.es
Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04

EDERKI tailerra



CITRÖEN
ZERBITZU OFIZIALA

‘Latigillo’ hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

ongi pasa inauteriak!

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525



INAUTERIAK, IÑAUTERIAK,
ARATUSTEAK, INOTEAK...

TXUKUNTASUNEZ ETA ERRESPETUZ
ELEGANTE PASATZEA OPA DIZUE
DONEZTEBEKO UDALAK
HERRITAR ETA BISITARI GUZTIEI





ETXALAR

inauteriak 2019



egitaraua

Otsailak 28, ortzeguna

Goizean neska-mutilak etxez etxe eskean ibiliko dira. **14:30ean** Landagain eskolako ikasleen antzerkiak plazan. **Ondotik** txapelo eta zortziko dantzatuko dituzte. Guraso elkar-tearen eskutik **merienda**, opilak eta trikitilariak.

Martxoak 3, igandea

Kinto bazkariak izanen dituzte.

Martxoak 4, astelehena

Goizean herriko gazteek La Basque ostatuan gosalduko dute eta baserriz baserri eskean ibiliko dira. **Ilunabarreen** pintxoak izanen dira Elutsa ostatuan.

Martxoak 5, asteartea

12:00etan abiatuko da desfilea. **Ondotik**, bazkaria Herriko Ostatuan. **Arratsaldean** ginkana frontoian. Larraburuako **jubilatuak bazkaria** egingen dute elkartearen egoitzan.



bai musikari
zerbitzua ematen

HERRIKO OKINDEGIA

ONCI PASA INAUTERIAK!!

Ogi naturalak, ama oreaz eginak:
Espelta | Garia | Zekalea

Egunero irekia: 06:00 > 13:00 • T. 627 033 975 • ETXALAR

ELUTSA

OSTATUA

TABAKOAK

INAUTERI ONAK
PASA ITZAZUE!

Tfnoa: 948 635 191 • ETXALAR

ETXALARKO EKITATIBA eta HARITZPE OKINDEGIAren partetik
GORA INAUTERIAK!

haritzpe
Etxalarko okindegia

T. 618 778 328 | www.haritzpeokindegia.com



«Igandeko kinto besta urte osoan elkartu ez garenak biltzeko momentua da»

PEDRO LASAGA ZUBIETA
Etxalarko inauterizalea

Inauteriak «urteko besta hoberenak» dira Pedro Lasagarentzat (Etxalar, 1961). Gaur egun, «nahiko utziak» dituen arren, igandeko kinto bestara «hutsik egin gabe» joan ohi da. Mahaiaren bueltan sortzen den giroa «berezia» da berarentzat. Izan ere, egun horretan «nomalean biltzen ez garen kuadrilla» elkartzen da. 12-15 lagunek bazkaria egiten dute, eta «horietako batzuk urteko egun horretan bakarrik ikusten ditut».

Azken urteetan bai igandeko bazkarietan, baita asteleheneko baserriz baserriko bueltan «jende gehiago» ikusteak «aunitz» poztzen du Lasaga.

Etkez etxe ia hogei urtez

Etkez etxe urte dezentez ibilia da etxalartarra: «18 urte ingururekin hasi izan nintzen eta 35 urteak bitarte ibili nintzen, urtero, bakarrik ere galdu gabe». Orduko oroitzapen «politak» ditu eta urte horietan guztietan jasotako harrera nabarmendu du: «batzuetan merezi genuena baino hobe zaintzen ginduten». Ia hogei urtez parte hartu zuenez uzteak ez zion pena handirik eman: «ordua ailegatu zen...».

Baserriz baserri ibiltzeari utziagatik, «berriki arte» mozorroa jantzi izan du etxalartar inauterizaleak. Urtez urte mozorro «aunitz» jantzi izan ditu, baina baten bat aipatzekotan «eskale moduan atera nintzenekoa edo toreroz jantzi ginenekoa» datorkio burura. Bata zein bertzea egun gogoangarriak izan dira berarentzat: «antzerki-lagun onak nituen inguruan eta herritarrak zirikatu genituen, hori aski da momentua oroitzeko».

Antzerkilari trebea

«Gustuko» du jantzi eta mozorroari berezko zaion «antzerkia» egitea. Horretarako, «jendea imitatzea» maite du. Ahalik eta hoberen irudika-

tzeko, «ideia ondokoei eman eta haiek ere lanean paratzen ditut». Dena dela, jantzi eta objektuekin ez ezik, jarrerarekin asmatzen dakiela kontatu digute. Beraz antzezle ona izateko osagai guztiak ditu etxalartarrak.

Gogoak bizi ditu. Hortaz, hurrengoie erreleboa pasatzeko asmorik ere ez du oraindik: «ez ditut erabat utziak eta bertze urteren batean seguru ate-

«Antzerki-lagunak izan eta herritarrak zirikatuz gero, mozorro guztiak onak dira»

rako naizela!». Aurten jantziko ote duen ez dakigu, ezezko borobilik ez baitu eman: «oraindik ez dut deus prestatu, baina akaso zerbait prestatuko dugu azken momentuan!». Aitalabak elkartuz gero, nor izanen da hondarreko erretiratuko dena?

Herriko Ostafua-Jatetxea

Asteburuko eta eguneroko menuak, Plater konbinatuak, Errazioak, Bokatak, Pintxoak, Hanburgesak, Pizzak...

Eta eramateko janariak ere



Andutzeta, 15 | ETXALAR | T. 948 635 465

www.etxalarherriko.eus



**ETXALARKO
UDALAK**

*inauteri onak opa dizkizue
etxalartar eta bisitari guztiei*

ELIZONDO inauteriak 2019

hiru ostalua

BERTAN JAN edo ERAMATEKO
Deskargatu gure APPa eta egin
zure eskaera

... betikoa baina ezberdina

ONGI PASA FERIAK

Kaxulak,
plater konbinatuak,
bokatak, pizzak,
hanburgesak,
ensaladak, fritoak...

Etorri eta dastatu gure
berezitasunak!

Baztan Berri 7 B | ELIZONDO | T 948 581 219



Mañonea Agentzia S.L.

GENERALI
Aseguruak

AGENTE ESCLUSIBOA Registro Zkia.: C0072871193304

www.manoneasegursl.seguros.generalis.es

ELIZONDO BAZTAN - NAFARROA

T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43 | manoneasegur@generalimediadores.es

**KONTABLE, ZERGA, LAN
eta JURIDIKO AHOLKULARITZA**

www.mainoneaagentzia.com

T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43
mainonea@mainoneaagentzia.com



egitaraua

Martxoak 1, ortziralea

09:00etan Puskebiltzea Gaztetxetik.
16:00etan haurren desfilea Ikastolako parketik (eguraldi txarrarekin Baztan pilotalekuan). **Ondotik txokolatada** Foruen plazan (eguraldi txarrarekin Iriarte pilotalekuan).
20:00etan danborrada herriko etxetik hasita (izena eman: Casino, Intza, Hiru, Saioa).

Martxoak 2, larunbata

11:30etan Orga desfilea parkeko Ikastolatik.



ELBETEKO POSADA

Ongi pasa inauteriak!

- Eguneko menua aste tarteaz
- Karta zabala eta sasoiko plater bereziak
- Asteburuetan karta
- Slow Food eta KM 0

ELBETE · Karrikaundi · T. 948 581 519
info@posadaelbete.com · www.posadaelbete.com

INTZA TABERNA

Ongi pasa inauteriak! T. 948 580 417

BOKATAK
PINTXOAK
RAZIOAK



Enkarguak hartzen ditugu
Giro ederra!!
T. 948 580 313





«Ongi pasatzeko modua eskaintzen duten mozorroak ditut gustuko»

MARIA URRUTIA
Elizondoko gaztea

Lagunekin irriak partekatzea eta musika entzutea dira Maria Urrutiaren zaletasunetako batzuk eta horretarako bide ematen dutelako «geroz eta gehiago» maite ditu inauteriak. Urte andana daramatza herriak antolatzen duen ortzirale arratsaldeko danborradan parte hartzen: «bandari, zuzendariari eta danbor hotsei esker Elizondok dar-dar egiten du».

Etxez etxe kantuan eta dantzan

Joan den urtera arte horixe zen elizondar gaztearendako inauterien hasiera. Dena dela, aukera ikusi bezala, ortzirale goizeko giroa dastatzea erabaki zuen: «lehenbizikoz, etxetzeko bueltan ibili nintzen eta zoragarria izan zen». Gaztetxean bildu eta gosari ederra egin ondotik jantzi zuten mozorroa: «kantuan eta dantzan ibili ginen, etxeetan emandako mokadutxo eta tragoxkak lagun genituela».

Musikak girotu, objektuarekin antzeztu

Biharamunari ernatzeko astirik eman gabe, «goizean goizik» hasi ohi du larunbata baztandarrak: «indarrak hartu eta kuadrilla bakoitzak prestaturiko orgarekin karriketan barna ibiltzen gara». Dena dela, aitzinetik ere lan pixka bat egin behar izaten dute: «lagun-taldean elkartu eta mozorroa pentsatzen dugu». Ideiak burutik paperera eraman ondotik, «boz-keta bidez, gai bakoitzari puntuazioa jarritz» aukeratzen dute urteko gaia. Aitortu digunez, ez da erraza izaten: «buruhauste handiak eragiten ditu eta denen gustukoa izatea zaila da».

Ongi pasatzeko gutti aski dela argi islatzen du Tarratak kuadrillak: «gaia

erabakita dugularik, ez dugu lan handirik egiten». Bada, ordea, lagungarri zaien zerbait: «musika eraman ahal izateko zerbait egiten dugu». Elizondar gaztearendako bada antzeztetakoan lagungarri den bertze gauza bat: «normalean objektu batean pentsatzen dut, esku artean zerbait izatea lagungarri zait. Itzuli eta buelta, mahai-inguruan egiten dute hurrengo geldialdia: «kuadrilla-bazkaria egiteko ohitura dugu eta gogotsu bagaude

«Larunbatean taldekako bazkarien orde, herri-bazkaria egitea ongi legoke»

ostatuetan akitzen dugu». Bazkariako solasaldiak gustuko dituela ukaezina bada ere, herri-giroa eteten duela iruditzen zaionez, bere proposamena bota du: «taldekako bazkarien orde herri-bazkaria egitea ongi legoke».

Egun guztietan mugimendua

Inauterietan «goizean hasi eta gorputzak iraun arte egoteko aukera» izaten du. Izan argi dagoelako edo izan gorputza hobe dagoelako, Urrutiak egunez diren bestak «nahiago» ditu. Ilun dagoenean ere ostatuetako argitasunean eroso sentitzen denez ez du erretiratzeko presarik izaten. Badaki berak horrenbertze gozatzeko herritar talde batek lan handia egiten duela eta ez ditu aipatu gabe utzi: «agerikoa da antolatzaileek egiten duten lana, haiei esker Elizondoko inauterietan adin guztiendako jendearendako dira».

ANZABAL
inmobiliaria



Ongi pasa inauteriak!

- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripueta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

suteia-zaldain
instalazioak
IGOGAILUAK

PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK



Santiago, 71 | ELIZONDO
T. 948 580 166 | M 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com

1 KANPOKO IGOGAILUAK


Kanpoko fatxadan guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak.



Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

2 BARRUKO IGOGAILUAK

Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe.



Mugikortasun arazoak dituzten eta gurgil-aulkian daudenentzako egokitua.

3 IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak dituzten eta gurgil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu.



Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.

EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

URDAZUBI inauteriak 2019

Pinturas
Iñaki Alzuyet
margoak

Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)

- Fatxaden zaharbertitza
- Barne-dekorazioa
- Isolamenduak pladurrean
- Pintura industrialak
- Egurra eta altzarien lakatze eta bernizatzea kabinan

pinturasalzuyet@yahoo.es

VENTA
ZUBIONDOA
Ostatua, supermerkatua, denda

Landibar, 7 Urdazubi | Tel. 948 599 041
www.zubiondoa.com | info@zubiondoa.com

SANTIAGO VILLARES S.L.
Ongi pasa inauteriak!



LUZERNA-PENTSU ETA FORRAJEAREN
SALMENTA ETA ESPORTAZIOA
LASTOA
LUZERNA

Móvil (Santiago Villares): 609 415 777
T. (0034) 948 59 91 34
Fax. 948 59 91 56

info@santiagovillares.com
www.santiagovillares.com

egitaraua

Martxoak 3, igandea

09:30ean gosaria Gauñara elkartean. Ondotik, gazteak moztortatu egingen dira (gaia: ofizioak). Indiano Baita ostatuan kafea eta kopa hartu eta Dantxarinea auzoko bentetan barna ibiliko dira, Beñat Mitxelena lagun dutela. Ilunabarrean herrira joanen dira. **18:00etan** moztorturik joaten diren haurrendako sorpresa izanen dute. **22:00etan** pintxoak eta musika denendako.

Martxoak 4 eta 5, astelehena eta asteartea

09:30 aldera herriko haurrak elkar-tu eta etxez etxe eskean hasiko dira. Eskea bukatu ondotik, herrira jautsiko dira. **10:00etan** herriko gazteak, kafea ttantarekin hartuta, etxez etxe abiatuko dira. Trikitixa eta pande-reta hotsek girotuko dute buelta. **18:00etan** haurrek animazioaz gozatu ahal izanen dute. **21:30ean** denendako musika eta pintxoak izanen dituzte.



ARRET XEA
ESTANKOA



ZIGARRO
PURUEN CAVA



DANTXARINEA (Urdazubi) | T. 948 599 018 | F. 948 599 015 | estancoarrecea@yahoo.es



«Berriz ere etxez etxe hasteko prest izanen nintzateke»

AINHOA MIURA
Urdazubiar emakumea

Egunerokoa «lanean eta etxekoekin» pasatzen duen urdazubiar emakumea da Ainhoa Miura. Inauteriak «eguneroarekin hausteko» aukera dira berarendako: «lantokian besta hartu eta ahal bezainbertze bizitzen saiatzen naiz».

Gaur egun, seme-alabak ditueneguz, egun horietan «lasaiago» ibiltzen da. Hala ere, egunez egun eta momentuz momentuz gozatzen saiatzen da: «igandean hurrekin ateratzen naiz, beraiek moztortzeko eguna izaten da. Astelehenean plazara atera eta dantzan ibiltzen gara eta gauean afora egiten dugu. Asteartean, berriz, gazteak etxera etortzen zaizkigu...».


Oroitzapen «aski onak»

Etxeko ateak zabaltu eta eskuzabaltasunez hartzen du gazteen bisita. Areago, berarendako «etxez etxeko eskearen bueltan sortzen den giroa» da politena. Egun berriz aldetik bizi

baditu ere, ongi daki zer den mahaia- ren bueltan biltzea. Oroitzapen «aski onak» iltzatuak ditu: «sei urte genituela hasi ginen, gurasoen arrimuan. Hiru taldetan banatu ohi ginen, adinaren arabera... Haundien taldean, erraterako 65 lagun inguru. Dantzan eta kantuan aritzen ginen...».

Herriko ohiturari jarraiki, ezkondu zelarik utzi zion ibiltzeari. Orain, ordea, bizirik den tradizio oro bezala, hori ere aldatzen ari denez, ezin erran berriz ibiliko ez denik: «berriz ere hasteko prest izanen nintzateke» dio irriz.

Tradizioak aldatu direla jabetzen da urdazubiarra eta aldaketak bere eginen lituzke batzuetan, baina ez du inondik inora antzinako kontuak ahanterik nahi. Horregatik, «moztortzeko etxeko arropak» janzten ditu eta «garaiko bizimodua islatzen duten momentuak irudikatzea» du gustuko: «baserria, eliza... garaiko bizimoduak eta tradizioak galtzen ari dira...».



JUANJO MIHURA
IGELTSERITZA-ALBAÑILERÍA-MAÇONNERIE

ERAIKUNTZA OROKORREAN
... ONGI PASA INAUTERIAK ...

Urbide Etxea
31710 Zugarramurdi
Nafarroa

T. 0034 607 750 425
T. 0033 674 725 680
j.mihura@hotmail.com



Urdazubiko Udalak
inauteri zoriontsuak
opa dizkizue
urdazubiar eta
bisitari guztiei !



ONGI PASA
INAUTERIAK



N-121-B errep. • Dantxarinea • 31712 URDAX • T.(0034) 948 59 92 36 • centreauto@josenea.es
Iruña-Frantzia errep. N-121-A 48,5.km • 31720 OROÑOZ-MUGAIRE • T. 948 599090 • administracion@josenea.es



GOIZUETA

inauteriak 2019



INAUTERI
ONAK PASA!!

T. 948 514 056
Plaza | GOIZUETA

Oxeguarda
ostatua

Ongi pasa inauteriak!



T. 948 514 019 • Nagusia, 34 • GOIZUETA

anaia^s
apezetxeaⁱ



- LAN ZIBILAK
- ERAIKUNTZA
- TOPOGRAFIA



Calle Berriozar 19.
Planta 2. Oficina N° 41
31013 Ansoain (Nafarroa)

info@apezetxeanaia^s.com
T. 948 315 200
www.apezetxeanaia^s.com



OKINDEGIA
GOZOTEGIA

ONGI PASA INAUTERIAK!



K. Nagusia • GOIZUETA • 948 514 242



IZKIÑA
jatetxea

Pintxoak,
bazkariak eta
afariak



Etorri GOIZUETAko fauna ezagutzera!!

Tel. 948 514 102 · GOIZUETA



egitaraua

Martxoak 3, igandea

17:00etan gaztetxoaren zahagi dantza.
18:00etatik 21:00etara Ostolaza eta Ezkerra trikitilarien saioa. **21:30ean** mozorroen afaria.

Martxoak 4, astelehena bikingoen festa

08:00etan mozorroen irteera baserrietara. **10:00etan** plaza apainduko dute. **11:00etan** hamaiketako egingen dute. **12:00etan** konpartsa herrian barrena ibiliko da. **13:30ean** umeentzako bazkaria. **14:00etik 16:30era** umeentzako tailerrak eta zinea izanen dituzte. **14:30ean** helduen bazkaria. **18:00etan** txokolate beroa. **18:30etik 21:00etara** Ostolaza eta Ezkerra trikitilarien emanaldia. **19:30etik** aurrera mozorroen etorrera dultzaineroekin. **22:00etan** mozorroen afaria.

Martxoak 5, asteartea

09:00etan mozorroen gosaria eta **10:00etan** mozorroak dantzan herriko kaleetan barrena. **14:00etan** zahagi dantza, Izkina tabernatik hasita. **16:30etik 21:00etara** Laja eta Larrañaga trikitilariak. **22:00etan** mozorroen afaria. **00:00etatik 02:00etara** Laja eta Larrañaga trikitilariak.

Martxoak 9, kontuen larunbata

13:00etan poteo musikatua Igandea Txarangarekin. **14:00** mozorroen bazkaria eta **17:30etatik aurrera** Igandea Txaranga.



Pauso eta Salto! udaleku ibiltaria antolatu du UEMAK

Usurbildik Arantzara ibilbidea egingen dute gazteek ekainaren 26tik 30era


TTIPI-TTAPA

Usurbildik Arantzarako ibilbidea egingen duen *Pauso eta Salto!* gazte topaketa antolatu du Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak. Udalekuok ekainaren 26tik 30era izanen dira eta 14 eta 18 urteko gazteei zuzendutakoak dira. Izen ematea martxoaren 31a arte egin daiteke.

Euskal hiztun gisa

«sentsibilizatzea» helburu

Elkar ezagutzeaz eta ongi pasatzeaz gain, elkargune horren xede nagusietako da nerabeak euskal hiztun gisa sentsibilizatzea, kontzientziaztea, aktibatzea eta ahalduntzea, UEMatik azaldu dutenez, «euskaraz bizi, sortu, elkarbanatu eta euskararen arnasa zabaltzeko agente bilaka daitezen».



Ekainaren 26tik 30era.

Lau eguneko ibilbidea

Usurbildik Oiartzunerako ibilbidea egingen dute 1.egunean (ekainaren 26an); bigarrenean Oiartzundik Berara; hirugarrenean Beratik Arantzara; eta Arantzara bi egun pasako dituzte (ekainaren 29a eta 30a).

Izen-ematea

Izena-ematea uema.eus edo hezkontza@uema.eus webgurearen bidez edo 948 816699ra deituz egin daiteke.

'Gara' eta lantaldeari elkartasuna TTIPI-TTAPAK

Poztasun zantzurik ez genuen sumatu *Gara*ren arduradunek egunkariaren 10.urteurrenean egindako agerraldian: erre-dakzioa hutsik eta erdi ilunpetan zegoela, datozen urteotan hiru milioi eurotik gora ordaintzera derrigortuta daudela azaldu zuten, Espainiako justiziak legez kanpokotzat jotako *Egin* egunkariaren itxieraren ondorioak ordaintzeko. Lerro xume hauen bidez, Erran.eus osatzen dugun TTIPI-TTAPA eta Xorroxin Irratiak zor horren bidegabekeria salatu nahi dugu,

Euskaraldiaren bigarren edizioa 2020ko udazkenean

Hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera handitzea xede izan duen Euskaraldia ariketa sozialaren bigarren edizioa 2020 urteko udazkenean egingen da. 2018ko azaroaren 23a eta abenduaren 3a bitartean egin den ekimenaren lehen edizioaren bukaera «jarraipena izango duen ariketa» izanen zela azpimarratu zuten Euskaraldiaren sustatzaile diren erakunde eta eragilean ordezkariek eta jadanik bigarren edizioa prestatzeko lehen urratsak ematen ari dira erakunde koordinatzaileak.



Elizalde eta Eizagirre eskuinean hilaren 3an jokaturako partidetakotako batean. EMC

Elizalde eta Eizagirrek aurrera egin dute Master Cup txapelketan

F. ETXEKOLONEA

Urtarrilaren 27an Galdakaon abiatu zen Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketa. Partidaz partida dabilta lehen eta promozio mailako jokalarriak. Txapelketa hasierako partidetan emaitza ederrak lortu ditu zubietar atzelariak eta zestoar aurrelariak osatu-

tako bikoteak. Izan ere, Aizpurua eta Ugarteren aurka 18-02 irabazi zuten; eta Sagarna eta Elorza 09-18 menderatu zituzten.

Martxoaren 3an hurrengoa

Hurrengo partidak martxoaren 3an, igandean, jokatzekoak dituzte.

Euskal Herriko Mus Txapelketako Nafarroako kanporaketara herritarrak

F. ETXEKOLONEA

Euskal Herriko Mus Txapelketaren harira, kanporaketa bat jokatu zuten urtarrilaren 11n Herriko Ostatuan. Hamar bikotek parte hartu zuten eta irabazleek eta azpitxapeldunek aurrera egiteko aukera lortu zuten. Hori horrela, Martin

Santestebanek eta Nagore Diazek eta Txomin Hualdek eta Jabier Santestebanek larunbatean Iruñeko Arrano elkartearen 08:30ean hasita jokatu den Nafarroako kanporaketan parte hartuko dute. Nafarroan guztira 157 bikote sailkatu dira.

Ipuin-kontaketa eta kontzertua izan dituzte herrian

Azpeitiko Rakugo Ekipoaren eskutik, Japoniako ipuin tradizionalak ezagutzeko aukera izan zuten herritarrek otsailaren 15ean, joan den ostira-lean. Ondotik, Herriko Ostatuan Kurkuma taldearen kontzertuaz gozatu ahal izan zuten.

Erretiratuen bazkaria egin dute Iturenen

Urtero bezala, Arkupeak elkarteak kideek bazkaria egin zuten otsailaren 9an. Elgorriagako, Iturengo eta Zubietako erretiratuak bildu ziren eta Iturengo Altxunea ostatuan bazkaldu zuten. Herritik sei lagun joan ziren. Ederki pasa zuten.

Adimen emozionala lantzeko ikastaroa otsailaren 23tik 24ra

Ikastaro teoriko-praktikoan emozioak zer diren ikasi eta horiek lantzeko baliabideak garatuko dituzte

ARKAITZ MINDEGIA

Adimen emozionala ezagutu eta lantzeko aukera izanen dute asteburuan, otsailaren 23tik 24ra, Aurtitzko Abarun aterpetxean. Ikastaro teoriko-praktikoa izanen da, eta bertzeak bertze, «adimen emozionalaren gakoak eta gaitasunak» landuko dituzte, «era praktikoa bizitzarako tresnak eskuratuz».

Donna Apellaniz Nieto adimen emozionala jorratu duen irakasle eta aholkulariak, magisteritzan diplomatua denak, eskainiko du saioa.

Bertzeak bertze, emozioak zer diren ikasteko, horien funtzioez hausnartzeko, hiztegi eta kudeaketa emozionala lantzeko, harremanak eta komunikazio ez bortitzaz solastatzeko, gatazkei ebazpen osasungarria ematen ikasteko eta enpatia eta asertibitateaz solastatzeko bilduko dira.

Plaza guztiak beteta

Ikastaroak interes handia eragin du herritarrengan eta dagoeneko plaza guztiak beteta daude. Hori horrela, izen-emaite itxita dago.



UTZITAKOAK

Kontu Egunarekin inauteriei agur

Inauteriak Kontu Egunarekin borobildu dituzte. Herriko dantzarien saioa eta herri-kirolak izan zituzten goizean eta Maialen Lujanbio eta Agin Laburu bertsolariek girotutako bazkaria ondotik. Bazkalondoan Hauspolariek taldearen erritmora dantzatu ahal izan zuten.

2019-2020 ikasturtean hamar ikasle gehiago izanen dira Pulunpa eskolan

A. MINDEGIA

2019-2020 ikasturteko aurre-matrikulazioa egin dute dagoeneko. Horren arabera, irailean hamar neska-mutil gehiagok hasiko dute ikasturtea Pulunpa eskolan.

Gisa bertsuan, azpimarregarria da Nafarroako Depar-

tamentuak eskola eraikitzeko egindako lan-eskaintza aurrerago aterako duela.

Herritarrak lanak hasteko esperoan daude, gogotsu gainera. Haien ustez «egungo egoera ez baita hezkuntza eraginkor eta egokia bermatzeko modukoa».



UTZITAKO ARGAZKIA

Pulunpariak Aste Zurian

Pulunpa eskolako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak Izaban izan ziren otsailaren 11tik 15era bitarte. Malerreka eskola ttiketako gainerako ikasleekin batera egin zuten irteera eta elkar ezagutzeko edota harremanak sendotzeko aukera polita izan zuten.

Ugaitz Elizalde martxoaren 16an hasiko du binakakoa

Garfe enpresak antolatutako binakako txapelketa jokatu du Ugaitz Elizalde. Martxoaren 16an abiatuko da txapelketa eta iturendar aurrelariak Beroiz izanen du bikote. Guztira sei bikotek parte hartuko dute txapelketan. Horien artean izanen dira, bertzeak bertze, Titin III.a, Merino anaiak, Tainta lesakarra... Denak denen aurka ariko dira eta lau bikote sailkatuen artean jokatu dituzte finalaurreko partidak. Aitzinera egitea lortzen dutenak lehiatuko dira finalean.

Herritarrak ederki Nafarroako Bertsolari Txapelketan

Nafarroako Bertsolari Txapelketa ederki hasi dute herriko bertsolariek. Alazne Untxalok otsailaren 9an Tuteran aritzeko aukera izan zuen, txapelketa hasierako txupinazoa botaz. Iker Gorosterrazu, berriz, otsailaren 10ean Urdaubini izan zen. Batek zein bertzeak saio ederra eskaini zuten eta biek ala biek bigarren postuan aitu zuten; finalaurrekotara sailkatzeko txartela eskuratuz. Orain, puntuazioaren arabera, ikusteke dago zein kanporaketetan ariko diren. Zorte on bikote!

«Sagar basatiak bildu eta bertakoekin txertatzen ditut»

JUAN GAMIO LABAIENGO ZUBIALDE PATXAKAK

ARANTXA ITURRALDE LABAIEN

Juan Gamio labaiendar gaztea dugu. Aitzindaria da sagar paxaken jardueran, mintegien sortzaile aritzen da. Duela bi urte murgildu zen proiektu berri horretan. Azpimarragarria da Juanek herrian gelditzeko eta herriaren alde egin duen apustua, gehienbat herriari bizia emateko asmoarekin. Pozik eta gustura dago bai hartutako erabakiarekin, baita bere bizitzan ireki duen bide berri honekin ere.

Nola hasi zinen proiektu honetan?

Lehen fabrian aritzen nintzen. Afizioa hartzen joan nintzen heinean, nire denbora sagar landareei eskaintzen hasi nintzen. Gaur egun saltzen diren sagar landareak adaxkatik sortuak dira eta lehengoak, berriz, hazitik sortutakoak zirela konturatu nintzen. Hau dela eta, sagarraren benetaz-



Juan Gamio, sagarrekin. UTZITAKOA

«SAGARRAREN BENETAKO ESENTZIA BERRESKURATU NAHI DUT»

ko esentzia berreskuratzeko eta mantentzeko sortua da proiektu hau.

Izan al duzu laguntzarik proiektu hau aurrera eramateko?

Ez, nik bakarrik sortua da. Gero, badira hainbat erakunde, unibertsitate publikoa esaterako, barietateak erregistratzen laguntzen didatenak. Bestalde, jende helduen informazioa ere jaso dut gai honen inguruan. Laguntza horiek guztiak neronek bakarrik bilatu ditut.

Nola lortu duzu gai honen inguruko ezaguerara?

Ez dago eskola edo instituturik produktua nola sortzen den erakusten dizunik. Hau berria da. European ez dago lan honetan jarduten denik, sagar basatitik sortzen duen bakarra neu izanen naiz. Nik landareak sortzen ditut, mendian sagar basatiak bildu eta behin landareak sortzen direnean, Euskal Herriko barietateekin txertatzen ditut. Beraz, bi pilare dauzka: batetik, landare basati bat sortu eta bestetik, barietate zaharrak txertatzen ditut, bertakoak direnak.

Zer irtenbide dauka merkatuan produktu honek?

Orain sagardotegietan sartzen ari naiz pixkanaka-pixkanaka. Horiei bakarrik oinak saltzen

dizkiet, txertatu gabeak. Beste bezero guztia partikularra da.

Nolako etorkizuna ikusten diozu lanbide honi?

Etorkizuna badauka bai. Kontua da orain arte, batetik jendearen ezjakintasunagatik eta bestetik lana handia duelako landareak modu horretan sortzeak, bi arrazoi horiengatik, ez zela horrela egiten. Baina orain jendea konturatzen hasi da adaxketatik sortutako landareak gaitzendako eta gaixotasunenendako askoz ere motelagoak direla. Bestalde, sagarraren kalitateak ere ez du deus ikustekorik. Hau dela eta, eskaera asko ditut eta gehien-goia saldua dut jadanik, nahiz eta oraindik gutxi batzuk gelditzen zaizkidan.

Arrakasta daukala ezin daiteke ukatu orduan, ez da hala?

Bai, joan den astean Arrasaten eta Amurrión egon nintzen. Ferietan nire burua ezagutzera ematen dudanez, gero bezero asko etxera etortzen zaizkit. Bidea egin beharra dago berezoak lortzeko. Batez ere ahoz aho ematen dut ezagutzera produktua. Interesaturik dagoenarentzat web orri hau bisitatu dezake: (www.zubialdepatxakak.com).



TESTUA ETA ARGAZKIA: JAIONE ARIZTEGI

Elur eta euri azpian joan dira Urrozko inauteriak

Joan dira aurtengoak ere, data zehaztuta zegoen bezala, otsailaren 1ean eta 2an ospatu baitziren inauteriak Urrozen. Eguraldia ez zen inauterietako alaitasunarekin bat etorri, baina herriko gazteentzat ez zen oztopo izan eta asteburu ederra igaro zuten. Haurren kasuan, aldiz, eguraldiarekin beldurtuta edo, aste bat atzeratu zuten beraien etxez etxeko kalejira.



Elkarteko kideak 'Mikeldiko idoloa' eskulturaren bueltan. F. ETXEBERRIA

Elkarteko kideek Bilboko interesguneak bisitatu dituzte

Hurrengo bidaiak Xabiererra, Gandiara, Benidormera eta Dantxarineko Euskal Kantuen Egunera egingen dituzte

FERNANDO ETXEBERRIA

Otsailaren 7an, ortzegunean, elkarteko 107 lagun, bi autobusetan, Bilbora joan ziren. Hasiera batean burdin-meatzeari ikusteko asmoa bazuten ere, eguraldi euritsua eta lainotua iragarri zuten, bertze interesgune batzuk bisitatu zituzten.


Hortaz, autobusez egin zuten buelta eta Guggenheim museoa, Jesusen Bihotza plaza, San Mames zelaia, Deustuko zubia, Begoña eliza eta euskal museoa bisitatzeko baliatu zuten. Horrela bada, laborantza-tresnak ikusi, ar-

tzaintza eta arrantzari lotutako hainbat kontu ikasi eta zeramika eta ehungintzaren alorreko ogibideak ezagutu ahal izan zituzten. Era berean, museoko klaustroan dagoen 'Mikeldiko idoloa' eskultura ezaguna ikusi ahal izan zuten. Ondotik, Alde Zaharreko karraketan dauden 1972ko monumentu historiko eta artistikoak ikusteko aukera izan zuten. Gustura ibili ziren.

Hurrengo bidaiak ere lotuak dituzte eta Xabiererra, Gandiara, Benidormera eta Dantxarineko Euskal Kantuen Egunera egingen dituzte.

Jose Luis Oskoz eta Patxiku Irurueta garaile

Bertizaranako topaketan, 84 lagun bildu ziren. Legasako Arotxa jatetxean bazkaldu zuten eta ondotik, mus txapelketa jokatu zuten. Jose Luis Oskoz eta Patxiku Irurueta izan ziren musulari trebeenak.



Leitzan ere bazkaria eta mus txapelketa izan dute

Otsailaren 9an jokatu zen mus txapelketan 20 bikotek parte hartu zuten eta Luzio Irazoki eta Juanito Rekondo zan ziren nagusi. Hilaren 17rako, igandarako, berriz, bazkaria aurreikusia zuten. Sagastin biltzekoak ziren eta 90 lagunek emana zuten izena.

Igantzin martxoaren 9an elkartuko dira

Igantzin otsailaren 2an jokatu zuten mus txapelketa eta Gerardo Seinek eta Raimundo Telletxeak irabazi zuten. Dena dela, herriko besta oraindik ospatzeko dute. Martxoaren 9an, larunbatean, zehaztu dute hitzordua eta Baratzondon bilduko dira.

Giro ederra izan zuten Etxalarko bestan

Etxalarren ere elkarteko besta ospatu zuten otsailaren 3an. 33 lagun bildu ziren eta ondotik musean aritu ziren. Jose Mari Maiak eta Jose Mari Olagaraik irabazi zuten mus txapelketa.



Elkarteko 32 bazkide bildu dira Ezkurran

Elkarteko 32 kide Ezkurran izan ziren otsailaren 3an. Elurrari eta hotzari aurre egin eta Barranka Ostatuan bildu ziren. Tolare eta Migel Mari Urrutiak lortu zuten museko txapela. Afari ederra eginez borobildu zuten.



Inauteriak otsailaren 28tik martxoaren 2ra

Asteazkena eta ortzeguna haurren egunak izanen dira eta ortziraletan gazteek hartuko dute lekukoa

OLATZ MUTUBERRIA

Herriko gaztetxoek heldu den asteazkenean, hilaren 27an, hasiko dituzte inauteriak. Mozorroak jantzita herriko base-rietara joanen dira. Gurasoak lagun, eskean ibili ondotik, plazan txokolate beroa hartuko dute.

Ortzegunean, otsailaren 28an, haurrendako jokoak

Ortzegunean, eskolak aitzinetik jarritako gaia ardatz moztortuko dira. Herrian barna ibili eta guztiek elkarrekin bazkalduko dute. Arratsaldean,

haur jokoez gozatzeko aukera izanen dute. Oilarra harrapatuz akituko dituzte inauteriak herriko ttikiek.

Ortziraletan moztorro-lehiaketa

Ortziraletan, martxoaren 1ean, helduek hartuko dute lekukoa. Herriko Ostatuan afalduko dute. Moztorro-lehiaketa ere egingen dute eta denak etxera joan artean Txingudi DJak girotuko ditu bazterrak.

Martxoaren 2an afaria

Larunbatean 11:00etan bilduko dira. Gosalduta eta indarrak



Ortziraletako afarian moztorro lehiaketa egingen dute. UTZITAKOIA

hartu ondotik, etxez etxe ibiliko dira, egun osoan. Inauteriak borobiltzeko 21:00etan afaria egingen dute. Parranda luzatzeko aukerarik ez da faltako.

Antolatzaileek otordu horietara joan nahi dutenek aitzinetik izena eman beharko dutela jakinarazi dute. Apuntatzeko dendan edo Herriko Ostatuan jakinarazi behar da.

DONEZTEBEN neurrira egindako etxebizitzak



PROMOCIONES

MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)

**2. faseko
AZKEN AUKERAK!**

Etorri eta erakutsiko dizuegu!



Ikusi pisu pilotoa!!



110.000€tik aurrera

Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren arabera finantziaketa,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**





Dantzarineko bazkaria ere Anjel Mariezkurrenak antolatzen du. ARTXIBOKOA

Kantu-bazkaria martxoaren 16an eskolako jangelan

Kantu-liburua, bazkaria eta luntxa 42 euro ordaindu beharko dira eta txartelak eskolan salduko dira, ostiraletan, 20:00etan

JM BARRIOLA

Martxoaren 16an, larunbatean, III. kantu-bazkaria izanen dute herrian. 14:30ean zehaztu dute hitzordua, Erleta eskolako jangelan.

Bazkaria girotzeko Anjel Mariezkurrena eta bestelako abeslari eta dantzari gonbidatuak bertaratuko dira.

Bazkari-txartelak

Kantu-liburua, bazkaria eta luntxa 42 euro ordaindu beharko dira eta sarrerak ostiraletan salduko dituzte Erleta eskolako gimnasioan, 20:00etan hasita. Joan nahi dutenek

erosteko azken eguna martxoaren 8a izanen dute.

Aurretik poteoa eta arratsaldean luntxa

Bazkariaren aurretik, giroan sartzeko, poteoa egingen dute. Hitzordua zehaztuta dute. Eguerdian, 13:00etan, plazatik abiatuko dira eta tabernaz taberna ibiliko dira.

Ilunabarrean, berriz, luntxa eskainiko dute eta ondotik nahi dutenek euskal kantak kantatzeko aukera izanen dute. Horretarako karaokea antolatu dute. Antolatzaileek parte hartzeko deia zabaldu dute.



Agirre eta Agirrezabalaga Ruiz de Larramendi izeba-ilobekin. UTZITAKOA

Agirrek eta Agirrezabalagak igandean Orozkon jokatu dute

TTIPI-TTAPA

Iera Agirrek eta Olatz Agirrezabalaga bikoteak urtarilaren 27an Mungian jokatu zuten aurtengo Master Cup Txapelketako lehendabiziko partida. Maite eta Olatz Ruiz de Larramendi izan zituzten aurkari. Leitza eta gernikarra ederrak ari ziren eta izeba-ilobek

amore eman behar izan zuten; 18-12 bukatu zuten.

Igandean Orozkon

Hurrengo kanporaketa Orozkon izanen dute igandean, otsailaren 24an, 12:30ean. Ainhoa Romero lemoarra eta Dimako Amaia Aldai izanen dituzte aurkari.

27 bikote Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketetan

JM BARRIOLA

Peritzan, Torrean eta Iruson jokatu diren Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketetan guztira 27 bikoteek parte hartu dute. Bostek lortu dute otsailaren 23an Iruñean jokatu duten Nafarroako kanporaketarako txartela: Xa-

bier Martikorena eta Kiko Ortiz; Joxe Mari Oiartzun eta Arraiotzek; Andres Zubillaga eta Mikel Martinezek; Iraia Zeballos eta Alaitz Moratok; eta Joxe Migel Gonzalez eta Iñaki Galindok. Euskal Herriko finala martxoaren 16an Lizarran jokatu da.

Eskean ibili dira Santa Ageda bezperan

Ohiturei eutsiz, Santa Ageda bezperan kantari ibili ziren herritarrek. Goizean haurren txanda izan zen; arratsaldean, berriz, helduena. Bertsolari eta trikitilariak lagun zituztela koplak kantatu zituzten.



UTZITAKOA

Drumkopters taldea otsailaren 22an Torrean

2016an sortutako Drumkopters talde zarauztarrak kontzertua eskainiko du otsailaren 22an, heldu den ostiraletan. Torrean dute hitzordua, 23:30ean. Ez da eskualdean eskainiko duten kontzertu bakarra. Martxoaren 23an Beran izanen dira, Kataku ostatuan.



Eguna antolatzen ibili den emakume taldea.

Martxoaren 8ko egitaraua prest dute dagoeneko

Goizean Donostiako mobilizaziora joateko asmoa dute, eta arratsaldean herrian hainbat ekitaldi izanen dituzte

OHIANA CALPARSORO

Joan den urtean martxoaren 8aren bueltan bildu zen lagun taldeak ez du hartu-emana eteten utzi. Orain artean feminismoaren inguruko ekitaldiak eta mezuak partekatzen ibili dira, eta azken aldian Emakumeen Nazioarteko Eguna antolatzeko bilerak egin dituzte. Otsailaren 4an eta 18an elkartu ziren, proposamenak bildu eta azken ekitaldiak lotzeko, hurrenez hurren.

Egun osoko egitaraua

Egitaraua prest dute dagoeneko eta egun osoan mugi-

mendua izanen dute. Goizean, Donostiako mobilizaziora joatea aurreikusi dute, baina ondotik herrira itzuliko dira.

Arratsaldean, Maisuenean emakumezkoentzat solasaldi bat eta tailerra prestatu dute. Horren helburuak herria betaurreko moreekin aztertzea, egungo egoeraz hausnarketa egitea eta etorkizuneko erronkak identifikatzea izanen dira teke.

Eguna borobiltzeko emakumeen afari herrikoia egiteko asmoa dutela adierazi dute. Herritar guztiei parte hartze-ko gonbidapena luzatu diete.



BEROPEL
egurrezko pelletak
ECHEVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654

31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250

info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com






MAITANE MARITORENA

Inauteri koloretsuak

Ostiralean haurrek eskolan egindako moxorroa soinean jantzi eta kalejira egin zuten. Bai ostiralean, baita larunbatean ere, Lagun Artekoak eskean atera ziren. Inauteriak afariarekin borobildu zituzten; ordu txikiak arte musika eta pesta izan zituzten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Santa Ageda bezperako ohiturak berrartuz

Guraso Elkarteko kideek urteetan herrian ahaztuak ziren Santa Ageda bezperako doinuak berreskuratu zituzten. Horiek kantatuz, herriko gurasoak eta haurrak kalez kale ibili ziren otsailaren 4an, astelehenean. Ea datozen urteetan ohiturari eusten dieten!

Lau harrera-familia behar dituzte Lauro ikastolako gazteek

Apirilaren 22tik 28ra bitarteko astea pasatzeko behar dituzte. Informazio gehiago Udalaren webgunean

TTIPI-TTAPA

UEMAk Lauro ikastolako gaztetxoak eremu euskaldunetako familietan hartzeko bost udalerrri aukeratu ditu; horien artean Goizueta. Hori horrela, gaztetxo horiek etxean hartzeko prest dauden lau familia behar dituzte.

Egonaldia eta baldintzak

Egonaldia Aste Santuan izanen da, apirilaren 22tik 29ra bitarte eta harrera-familia bakoitzari, gazte bat etxean hartzearen truk 150 euro emanen zaizkio, gazteak sor ditzakeen

jardueretako gastuak ordaintzeko. Harrera-familiiek honako baldintzok bete behar dituzte: kide guztiak euskaldunak izatea; etxeko hizkuntza euskara izatea; 3. edo 4. DBHn dagoen seme-alabaren bat izatea; eta gaztea hartzeko logela bat izatea (edo seme-alabekin partekatzea).

Egitekoak

Harrera familiiek gaztea bederatzi egunez etxean hartzearekin batera, jatorduak eman etalagunartean txertatu beharok dute.

Ikasleek landaketa pedagogikoa egin dute

Udalaren laguntzaz, eskolak landaketa pedagogikoa egiteko zuen asteazkenean. 70 ikasle inguru zabortegea zegoen tokira joatekoak ziren zuhaitzak landatzera. Autobusez igo eta oinez jaisteko asmoa zuten.



Martxoaren 3tik 5era bitarte inauteriak herrian

Martxoaren 3tik 5era bitarte, igandetik asteartera, inauteriak izanen dituzte herrian. Musika, dantza eta mozzorroak izanen dira protagonistak. Hurrengo larunbatean, berriz, kontuen larunbata izanen dute. Egitarauari buruzko xehetasunak gehigarrian.

Umore Ona elkarteko batzar orokorra martxoan

Umore Ona elkarteko urteroko batzar orokorra martxoaren 16an, larunbatean, egingen dute. Elkartearen egoitzan bilduko dira eta bi deialdi egin dituzte: lehendabizikoa 17:00etan izanen da; bigarrena, berriz, 17:30ean. Parte hartzeko gonbidapena luzatu dute.



FELIX LOIARTE

Santa Ageda bezpera makilen erritmora

Juanan Lekuona, Daniel Narbarte, Fernando Goia eta Patxi Bakero txapelak buruan eta makilak eskuan zituztela koplak kantatzen aritu ziren. Bien bitartean, Garazi Loiarde, Olaia Salaberria eta Janire Urdanpilletak trikitixak eta Janire Bakerok pandereta astindu zituzten.

'Ordu magikoa' emanaldia ostiralean ganbaran

Otsailaren 22an, ostiralean, Hodei magoaren eskutik, *Ordu magikoa* ikuskizunaz gozatzeko aukera izanen dute herrian. Adin guztietako ikusle-goari zuzendurikoa da eta ganbaran zehaztu dute hitzordua. 18:30ean hasiko da emanaldia.

'Campeones' filma eskainiko dute martxoaren 10ean

Martxoaren 10ean, igandean, nerabeei eta helduei bideraturiko zinema arratsaldean izanen dute. Javier Fesserrek zuzendariaren *Campeones* filma pantailaratuko dute, saskibaloietan entrenatzaile baten bizitza oinarri duena. Ganbaran bilduko dira, 18:30ean.

Denetarik salduko duen denda bat ireki dute herrian

Duela urtebete inguru Paristik herrira etorritako Mathilde Lucetek denda bat ireki du herrian. Otsailaren 7az geroztik, ohiko produktuak, produktu ekologikoak eta bertakoak saltzen ditu.





Imanol Elizasurekin otsailaren 9an egindako tailerrean. EDURNE BIGURIA

Elizondoko Abesbatza Ttiki 10. urteurrena ospatzen

Otsailaren 9an tailer berezia izan zuten Baztango ikastetxeetako ikasleek Imanol Elizasurekin

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Abesbatza Ttiki 10. urteurrena ezin hobe ari da ospatzen. Urte hasieran, ilbeltzaren 4an, iaz Elizondoko estreinatutako *Jolasean* musika taularatu zuten Iruñeko Gaiarre antzokian.

Bertzetik, joan den larunbatean, otsailaren 9an, Elizondoko Abesbatza Ttikik antolatatu eta Baztango ikastetxeetako ikasleei zuzenduta, (eskola ttikiak, Baztan Ikastola, Lekarozko BHI, Elizondoko eskola), musika eta abesbatzen munduan maixua den Imanol Elizasu zuzendari eta irakaslearekin tailer berezia abiatu zuten Irurritako Gizarte Bilgunean. Ahots teknika eta gorputz mugimendua uztarturik, Hainbat kanta estilo lantzen hasi ziren tailerrean: klasikoak, modernoak.. enpatea, kolorea, sentimenduen adierazpena edo espresibitatea ere landuz.

Lehenbiziko saioan aunitz ikasi zuten eta primeran pasatu zuten. Hurrengo saioa, martxoaren 16an izanen dute, goizez tailerra eta arratsaldean Irurritako dantzariarekin ema-



Neska bat kantari. EDURNE BIGURIA

naldia; eta apirilaren 6an, Haur eta Gazte Kantarien Topaketan Elizasurekin ikasitakoa erakutsiko dute Irurritan eskainiko duten kontzertuan, Errenteriako Zaria koru eskolako abesbatzarekin batera.

Emanaldiak Erratzun eta Elizondoko

Hala ere, hilabete honetan, bertze bi emanaldi izanen dituzte Elizondoko Abesbatza Ttikiko kantariak.

Otsailaren 23an, Elizondoko Abesbatza Ttiki eta Aieteko Araoz Gaztetxo abesbatzaren kontzertua izanen dute 18:30ean Erratzuko elizan.

Otsailaren 27an, berriz, Elizondoko Joaquín Iriarte adinekoen egoitzan kontzertua eskainiko dute.



JUAN MARI ONDIKOL

Turismo Bulego berria Elizondoko

Elizondoko Foruen Plazako udal eraikinaren beheko solairuan eskaintzen hasiak dira Turismo Bulegoaren zerbitzua. Lehen Purioseneko Museo Etnografikoan eta hori itxi zutenean Arizkunenean eskaintako zerbitzua, beraz, orain arte erabilpenik ez zuen eraikinean ematen hasi dira.



Orakunde Eguneko jokoetan, aniztar guztiek parte hartzen dute. M. MARITORENA

Sagardotegiko irteerarekin otsaila agurtu eta Orakunderekin martxoa hartu

MAITANE MARITORENA ANIZ

Otsailaren 23an, larunbatean, aniztar eta berroetarrek sagardotegirat irteera egingen dute. Hondarreko urteetan martxoko lehenbiziko larunbatean egiten zuten irteera, baina aurtengo Orakunde Eguna martxoaren 2an tokatzen denez, larunbat bat gibelatu dute. Autobusean eta taxian egingen dute joan-etorria.

Orakunde Eguna

Martxoaren 2an, berriz, Anizen Orakunde Eguna izanen dute. 10:00etan bilduko dira eta musikarien konpainian Aska-

gandik hasiko dira haur eta gurasoak etxez etxe; etxeetan jatera ematen zaie haurrei, eta horrez gain, inauterietan gazteek egiten duten gisa berean, haurrek zaretza izanen dute puskek biltzeko. Bildutako puskek afaria eta txokolatea prestatuko da elkartean bertaratzen diren guztiendako.

Bazkal aitzinetik aulki-dantza egingen dute frontoian, hortik haur eta helduak, bazkalazera joanen dira frontoirat. Bazkalondoko, frontoirat joanen dira jokoak ikusi eta jokoetan parte hartzera. Akitzeko, elkartean afalduko dute.

Benito Menniko langileak enpresa ereduaren kontra

Hamahiru urtez lanean ari zen emakume bat karrikaratu dutela ere salatu du Langileen Batzordeak

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Benito Menni egoitzako langileek beraien ezinegona eta inpotentzia azaldu dute eta enpresan inposatu den *Kultura berriaren* ereduaren kontra azaldu dira.

Langileen Batzordeak eta bertze 62 langilek sinatutako idatzian ageri denez, «azken hilabeteetan kudeaketa ulertezina darama lan zentroak, bai kontratazioan, bai langileen antolaketan ere. Kontratu txukunak dauzkaten langileei, kontratu okerragoak eskaintzen zaizkie, hobeak edukitzeko aukera dagoenean. Ez zaie deus axola zenbat urte bete dituen langileak ebentual moduan ezta aplikatu dituen balore profesionalak ere».

Modu berean, «unitate batetik bertzera pertsonalaren trasladoa, kaltetutak diren pertsonen abisatu gabe; egutegietan behin eta berriro akatsak, lanpostuak kubritu gabe utziz; modu programatuan kubritu gabe gelditzen diren lanpostuak, unitateak taxuz antolatzeko aukerarik utzi gabe; nominetan behin

eta berriro akatsak, gutxiago ordainduz. Horrek sortzen dituen atzerapenekin, Eta ez hori bakarrik, atzerapen horiek ere gaizki ordaintzen dira!» salatu dute.

Langileek jakin badakite diru publiko hornitutako zentro pribatu bat dela, eta lan postu bakoitzak lan karga handia duela, «baina behin eta berriro errepikatzen zaigun arazo bat jendea aurkitzeko dauden arazoak dira». Horregatik ulergaitzagoa egiten zaie kudeaketa eredu hau, «askotan autoritarismo doinu bat duena. Zaintzaileak zaindu beharrean, irainetik gertu dauden hitz eta formekin tratatzen dira, zeharo ahantziz erakutsitako lan gaitasuna eta inbolukrazioa», diote idatzian.

Politika horren ondorioak hurrengoak dira, langileen ustez: «desmotibazioa, jendeak alde egitea eta zuzendaritzarekiko mesfidantza osoa». 13 urtez egoitzan lanean aritu den emakume baten kaleratzea ere salatu dute, «enpresak sasi hautaketa-proba bat asmatu ondotik».



TESTUA ETA ARGAZKIA: AINHOA ASTIZ

Lekarozko inauteriak martxo hasmentan

Martxoaren 1ean eta 2an, Lekarozko inauteriak izanen dituzte. Ortziralean auzo eta baserrietatik ibiliko dira gazteak; larunbatean, berriz, herriko etxeetan. Esker mila eman nahi diete eskea posible egiten duten etxe guztiei: «zuengatik mantentzen baita bizirik ohitura hau!».



TESTUA ETA ARGAZKIA: AINHOA ASTIZ

Bertso-afari ederra Lekarozko Larraldean

Larraldea sagardotegian egin zen bertso-afaria ederra izan zen. Xabi Maia, Jon Maia eta Haritz Mujikaren bertsoekin gau ederra igaro zuten 80 lagunek. Trikitixa doinuak eta hainbat herriarren bertsoa ez ziren faltatu. Balorazio arras positiboa egin dutenez, ea urteroko ohitura bilakatzen den!





Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

MARMOLES SOULE

www.marmollessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmollessoule@gmail.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

Oharriz Auzoa z/g • LEKAROZ
T. 948 452 143 • 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com



EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Martxoaren 8aren bueltan ekitaldiak antolatu dituzte

Iruritan eta Elizondon ipuin-kontaketak, antzerkia eta ipuin-saioa izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Baztango Udaleko Berdintasun eta Kultura Zerbitzuak ekitaldiak antolatu ditu.

Ipuin-kontaketa Iruritan eta Elizondon

Martxoaren 3an hasiko dira ekitaldiak, Iruritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean, 18:00etan. Ameli eta Xirikituen jostunek ipuin-kontalarien eskutik, haurrendako kontaketa musikatua izanen da. Martxoaren 5ean, asteartean, 17:00etan, berriz, Elizondoko liburutegia goxatuko dute ipuin kontalariaren ahotsak eta musikak.

Helduendako antzerkia

Martxoaren 10ean, igandean, helduendako *Karramarroa*



Kontaketak Iruritan eta Elizondon.

antzerkia eskainiko dute Iruritako Gizarte Bilgunean, 19:00etan. Bertaratzen direnek Eider Rodriguezen, Miren Agur Meaberen eta Marcela Iacubent testuetan oinarrituta Dxusturi teatroak sortutako bakarrikzketak ikusi ahal izanen du.

Helduentzako ipuin-saioa

Azkenik, martxoaren 17an, Beatriz Egizabal gidari dela *Baubo* saioa izanen da Arizkunenean, 19:00etan hasita.

Eskeletako jangelak hizpide martxoaren 7an Arizkunenean

Baztango Udalaren eskutik *Nolako jangelak nahi ditugu eskeletan?* hitzaldia izanen dute martxoaren 7an, ortzegunean, Elizondon. 17:00etan zehaztu dute hitzordua Arizkunenean. Garbiñe Elizaintzin, INTIAko teknikaria eta zirkuitu motzeko eta zuzeneko salmentako dinamizatzailea, eta Nani Moré, sukaldaria, Kataluniako jangela ekologikoen elkarteko sortzailea eta *El plato o la vida* dokumentalaren zuzendaria izanen dira hizlari. Hitzaldia gazteleraz eskainiko dute.

Haziaren Eguna martxoaren 9an Gartzainen

Gartzaingo herriak, Ezkaldo elkarteak eta Hazitik Hozie taldeak antolatuta, agroekologia eskola herritarrek Gartzainen egingen du hurrengo geldialdia martxoaren 9an, larunbatean. Goiz osoko egitaraua prestatu dute. 10:30eko hazien trukaketa egiteko elkartuko dira, herriko frontoian. Eguerdian, 12:00 aldera, berriz, gaian aditua den Jakoba Errekondoren eskutik, hitzaldia aditzeko aukera izanen dute. Herriko Ezkaldo elkarteak dute bigarren hitzordu horretarako bilgune.



FERNANDO ANBUSTEGI

Aroztegia gelditzeko elkarretaratzea

Aroztegia eta gero...zer? plataformak otsailaren 9an Elizondoko plazan deitutako kontzentrazioan 150 bat lagun bildu ziren. Plataformak salatu duenez, Aroztegiko lurrak kudeatzen dituen konpentsazio batzordeak urbanizazio lanak esleitzeko prozedura publikoa abiatu du.



UTZITAKOIA

Diru-bilketa Kastelenbordaren alde

Suak oso-osorik kiskali zuen Erratzun, Izpegiko bidean dagoen Kastelenborda. Zorionez, baserrian bakarrik bizi zen emakumea onik atera zen. Orain, baserria berritzen laguntzeko, diru-bilketa kanpaina abiatu eta kontua ireki dute Rural Kutxan: ES70 3008 0043 1039 4260 4418.

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea

Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa • LEKAROZ | 948 452121 • 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa • LESAKA | 948 637212



Joan den urteko inauterietan, afaldu ondotik. UTZITAKOA

Orakunde eta inauteriak asteburu honetan Zigan

Ortziralean Orakunde eguna ospatzeaz gain, gazteak puskak biltzen ibiliko dira trikitilariekin

TTIPI-TTAPA

Ez dute aspertzeko astirik izanen asteburu honetan Zigan. Besta giroa izanen da nagusi, Orakunde egunarekin hasi eta inauterietan borobilduko dutelako asteburua.

Ortziralean, otsailak 22, Orakunde eguna izanen dute. 10:15ean meza izanen da eta ondotik, Zigaurren eta herrian barna eskean ibiliko dira Andoni musikariarekin. 14:00etan mahaiaren bueltan elkartuko dira. Arratsaldean, 16:30ean, haurrendako jolasak izanen dira eta oilarra harrapatzen ere ibiliko dira. 19:00etan txo-

kolate beroa eskainiko dute eta Andonirekin dantzaldia izanen da.

Egun berean, gazteek inauteriak hasiko dituzte. Goizean gosaldia eta Zigaurre auzoan eta baserrietan puskak biltzen ibiliko dira trikitilariekin.

Larunbatean, berriz, otsailak 23, gosaldia ondotik, gazteek herrian barna egingen dute itzulua, trikitilarien doinuekin puskak bilduz. 20:30ean frontoian moztar dantzaldia antolatu dute Andonirekin eta 22:00etan afaria izanen da. Ondotik Beñat eta Andonirekin segituko du bestak.

Garesko proiektua ezagutzeko irteera antolatu dute ortzirale honetan

TTIPI-TTAPA

Energia kontuei buruz Baztanen lanean hasi den taldeak Gareseratik ibilaldia antolatu du ortzirale honetan, otsailak 22. Ibilaldiaren helburua Ermineta egitasmoa ezagutzea izanen da, abandonaturik zegoen zentral hidroelektrikoa berreskuratzuz Gares energetikoki burujabe bihurtzeko helburua duen proiektua, hain zuzen. Garesko Udalaren energia plana ezagutzeko aukera ere izanen dute. Horretarako Oihan Mendo hango alkatearekin eta bertako teknikariek bilduko



Garesko Ermineta.

dira. Elizondoko plazatik 15:30ean abiatuko dira eta Garesen hitzordua 16:30erako egin dute. Irteeran parte hartzeko edo xehetasun gehiagorako: hazitikhozie1@gmail.com.

Ikasketa akaberako lanetarako laguntza martxoaren 8rako eskatu behar da

TTIPI-TTAPA

Aitzineko TTIPI-TTAPAN iragarri bezala, Udalak Baztan ikergai duten ikasketa eta master akaberako proiektu edo lanak egiteko 2.000 euroko diru-laguntza emanen du. Gehienez lau proiektu jaso ahal izanen dute laguntza, bakoitzak 500 eurokoa. Proposamenak martxoaren 8a baino lehen aurkeztu beharko dira, eta deialdian parte hartzeko, ikasleek eskariarekin batera, lanaren memoria aurkeztu beharko dute, gehienez lau orrikoa. Aipatu memoriak ikasketa

akaberako lanaren tutorearen oniritzia beharko du. Deialdiaren oinarriak www.baztan.eus atarian daude.

2016an lehendabiziko aldiz deialdia egin zenetik Baztanekin zerikusia duten sei lan egin dira guztira: turismoa Baztanen, XVII-XVIII. mendeetako goimailako etxeen tipologia, mutil-dantzak eta emaztekin partehartzea, Baztango haur eskolaren proiektu pedagogikoa, Amaiurko euskararen berezitasunen azterketa eta emakume etorkinen egoerari buruzko lana.

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa

- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortzen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

60 bat lagun 'Drogarik gabe hezi' solasaldian

Lekarozko institutuan lantzen ari diren *Drogarik gabe hezi* programaren baitan, izen bereko solasaldia antolatu zuten gurasoendako otsailaren 12an Arizkunenean. Erantzun ederra izan zuen, 60 bat lagun bildu baitziren eta erran dutenez, «arras ongi» atera zen.



Oihangintza, loreak eta landareak



ZELAI

baratzezaintza, lorezaintza eta abeltzaintza
albaitaritza produktuak, maskotentzako osagarriak
ehizarako eta arrantzarako ekipamendua



DANTXARINEA +34 848 478 881
ARNEGI +34 948 790 070

Oihangintza, loreak eta landareak



MENDI LANAK
EGUR ATERATZEAK
ESKABAZIOAK
GARRAIOAK
GARBITZE MEKANIKOAK
ITXITURAK
SU EGURRA ETA
PIKITEAK SALGAI

**LARRETXA
EGURRAK**

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri.
Pikiteak eta sutarako egurra.



Pio Baroja, 15 | Bera | T. 617 981 427



- PINADIEN BALORAZIOAK
- LUR NEURKETAK
- MENDIETAKO DIRULAGUNTZEN TRAMITAZIOA
- INGURUMEN TXOSTENAK OROKORREAN

ANDRES ZELAIETA ELTZAUDIA
IGANTZI - LEGASA - T. 606 31 45 26
andreszelaieta@hotmail.com

Jose Luis ANSO | Oizko artisaua

«Ezpela gaitzak jota dago baina zorionez gaitzak oraindik enborrean ez du eragin»



1994an, 34 urte zituela, hasi zen ezpela lantzen Jose Luis Anso. Ordurako egurrarekiko harremana ez zen arrotza berarentzat. Batetik, aita koilarak egiten aritzen zelako, eta bertetik, ordura arte zerrategi batean lan egina zelako.

BELAUNALDIZ BELAUNALDI

Herrian bertan eta inguruan gutti izanen dira ansotarren lana ezagutzen ez dutenak. Izan ere, urtez urte eta belaualdiz belaualdiz lanbide berari atxikita bizi izan dira: «atautxi erronkariarra zen sortzez, baina gure eskualdean ezpel aunitz zegoela ikusi eta familia guztiarekin hona etortzea era-

baki zuen. Garai hartan berak den-dena mendian eta eskuz egiten zuen. Ondotik aita horri lotu zitzaion eta nik aita erretiroa hartzekotan zenean eman nuen pausoa». Lehendabiziko urteak bizitokian bertan zuten «etxabe tiki batean» pasa zituen. Hasiera guztiei berezko zaien bezala, momentu horiek «nahiko gogorrak» izan ziren berarentzat: «ia tresneriarik gabe egiten nuen lan». Hortik bizitza ateratzea «ezinezkoa» zenez, pixkan-pixkan baldintzak hobetzeko lan egin zuen: «Gobernuak artisau gazteoi emandako diru-laguntza bati esker, etxabea mantendu eta terraza egokitu ez ezik, zerra eta lixatzeko tornuak erosi ahal izan nituen».

Horri esker, gaur egun «koilarak, sardeskak, bitsaderak, paletak eta bertzelako sukaldarako etxe-tresnak egiteko» txoko polita eta praktikoa du. Egunean «zortzi ordu inguruz» bertan egon ohi da: «lanaren arabera antolatzen naiz, badira hamar ordu pasatzen ditudan egunak ere, baina orokorrean eguneko 50-60 koilara inguru egiten ditut».

AZOKEN GAINBEHERA

Gaur egun, salgai gehienak «Iruñera, Granadara, Galiziarra...» bidaltzen ditu eta, oro har, «burdindegietan» saltzeko izaten

PRESTATU
ZAITEZ
UDABERRIRAKO



ESKAINTZA
Husqvarna
lorategiko
makinetan



Husqvarna
xurgagailu
gama berria

BB BLOK BAT
TAILERRAK

BANATZAILE OFIZIALA

Santiago Kalea, 85 • ELIZONDO (Nafarroa)
www.biokbat.com • T(+34) 948 580 898

Husqvarna
READY WHEN YOU ARE

UDABERRIA DATOR, PRESTA ZAITEZ!

Aukera paregabea

Landiflor lorendetan

Eskaintza zabala
denboraldiko loreetan,
landareetan...

Eta baita fruta arboletan ere.

Lore ontzi, lur ongarri
eta lorategi osagarriak
zuen esku.

Landiflor-en ere
Venta Peio
fideltasun
txartela
erabili daiteke.



Landiflor

Landiflor zure lorendeta egunero irekia: 9.00 - 12.30 / 13.30 - 19.00 Dantxarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@venta-peio.com

Dantxarinea Ibardin Valcarlos Behobia

www.venta-peio.com ☎ 0820 562 267 (fr) ☎ (+34) 902 210 800 (es)



Bougainvillea



Rosa



Mimosa



Verbena



Gerbera



Petunia



Surfinia



Geranium



Oihangintza, loreak eta landareak



dira. Zenbait azoketan «Basaurin, Gernikan, Iruñean...» ibiltzen bada ere, gaur egun horietan «arrunt gutti» saltzen duela nabarmendu du: «niretzat erosoagoa eta probetxuzkoagoa da burdindegiekin dudana hartu-eman. Eskatzen didatena bidaltzen diet beraiek sal dezaten».

PROZESU LUZEA

Bere lana ez da etxean hasi eta akitzen. Aitzinetik lanerako materiala eskuratu behar izaten du: «deus baino lehen Udaletxera joaten naiz, ezpela eskuratzeko baimen eske». Tonelada bat egur hartzeko «40 euro inguru» ordaindu eta mendira joaten da: «ezpela moztu, etxera ekarri eta lantzen hasten naiz».

Hasteko, «menditik ekarritako egur hori egin beharreko tresnaren tamainara egokitzeko moztu egiten dut, 30-35 zentimetroko luzera eta koilararen diametroaren araberrako zabalera emanez». Soberan duen materiala tikiagoak egiteko baliatzen du: «ahal den guztiari etekina ateratzen saiatzen naiz, ezpela ateratzeak bere lana baitu...».

Ez da goizetik gauerako prozesua ale bakoitzaren gibeletik egiten duena. Izan ere, «zerran moztu eta markatu ondotik, neguan 20-30 egun behar izaten ditu idortzeko, udan guttiago, 12 inguru». Ondotik lixatu egin behar izaten du.

Zenbaitetan pagoa erabiltzen badu ere, «bereziki» ezpelarekin egiten du lan: «ezpela material sendoa, gogorra eta iraunkorra da, tresna horiek egiteko dagoen hoberena». Dena dela, Erribera aldean zenbaitetan «metroko tresnak» eskatzen

«Gaitzari aurre egiteko erremedio eraginkorrik ez dago»

dizkiote eta halakoetan ezpelarekin egitea «arrunt zaila» zaionez, pagoa erabiltzen du: «ezpela gogorregia da okertzeko».

EZPELAREN GAITZA

UDABERRIAN «NABARMENAGOA»

Nagusiki ezpela du Ansok lehengai, eskualdean «aunitz» dagoen materiala izanagatik, azken urteotan gaitzak jota dagoena. Adierazi digunez, «Asiatik etorritako tximeleta batek eragin du gaitza». Neguan «tximeleta horiek ez dira horren agerikoak», baina udaberrian «tximeletak berriz etorri eta ezpela harrez josten dute».

Gaitz horren eragina bistakoa da eskualdean: «harrek hosto guztiak jaten dituzte eta ezpelak beharrezko du hostoa, bai udan, baita neguan ere». Zorionez, oraindik orain, «enborrean ez du eragin». Horri esker, lanean jarraitzen du oiztarrak. Kezka garri zaio egoera eta gogoan ditu inguruko mendizainak errandakoak: «haren arabera hiru urteren buruan enborrak ere ez du balioko eta oraindik jubilazioa urruti dut...».

Irtenbidea izan baden arren, horren eraginkortasun eza eta kostua tarteko, gaitza kontrolaezina dela nabarmendu du: «harrak hil daitezke, baina botika arrunt garestia da eta tximeletak akabatzerik ez dagoenez, udazkenetik aitzinera hilabetero bota behar litzaioke... ez da beraz inondik inora errentagarria».

“TELLETXEA” Lorazaintza

Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatzeko Sistema Automatikoak | Paisajismoa



T. 619 418 683

Otxangoko Ind. 18 | LESAKA
john.telletxea@hotmail.com
www.telletxealorezaintza.com

Udaberria heldu da!

Zuhaitzak eta fruitu landareak
landatzeko garaia da!

Bertako motak, hemen egoiztuak.

Loreak, tresnak, lore huntziak, kanpoko altzariak, maskotak.

Aukera haundia et hainbeste eskaintza!



84, 1945 maiatzaren 8ko etorbidea

64100 Baiona

tel: 00 33 5 59 42 24 42

www.lafitte.net



Berria!

Erlezaintzarako
tresnak eta
beharrezkoak
hemen salgai!



Julio Soto nagusitu zen txapelketako herriko saioan

Astebete beranduago Gaiñara elkartearen egindako bertso-afarian ere kantatu zuen txapeldunak Alaia Martinekin

IÑIGO IMAZ

130 bat bertsozale bildu ziren otsailaren 10ean Kultur Etxean, Nafarroako Bertsolari Txapelketako final-laurdenetako bigarren saioa aditzeko. Pronostikoak bete eta gaur egungo txapeldunak, Julio Sotok lortu zituen puntu gehien (265) eta finaleurrekoetara sailkatu zen. Ondotik sailkatu ziren Iker Gorosterrazu (246), Saioa Alkaiza (245,5), Iban Garro (240,5), Irati Majuelo (234) eta Sahats Aleman (230,5).

Nafarroako Bertsozale Elkartek Udalaren laguntza



Kultur Etxean egin zen saioa. IÑIGO IMAZ

jaso zuen saioa antolatzeko. Handik aste eskasera, berriz ere Soto bertsoan entzuteko aukera izan zuten Gaiñara elkartearen. Alaia Martinekin aritu zen bertso-afarian.



TESTUA ETA ARGAZKIA: IÑIGO IMAZ

Santa Ageda bezperan kantari

Santa Ageda egunean ohikoak diren herri-kantak gurean ere entzun ziren. Urdazubi eta Zugarramurdiko eskolako ikasle eta irakasleek Leorlasko eraikinetik Salbatore plazarantz egin zuten txangoa. Hiribereko etxeetan barna Etxeberriko zubia igaro eta plazan kantari eta dantzari ere aritu ziren.

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA

102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • T.943 623 130



Gazte batzuk joan den urteko ihauterietan. ARTXIBOA

Gazteen eskearekin hasiko dira ihauteriak martxoaren 2an

TTIPI-TTAPA

Bertze herri aintzeta bezala, martxoko lehendabiziko aste-buruan izanen dira ihauteriak Saran. Larunbatean, martxoak 2, gazteak Gaztetxean bildu eta Olhalde, Ihalar, Istilarte, Lehenbizkai eta Elbarrun auzoetan ibiliko dira eskean. Gaua delarik itzuliko dira herriko plazara. Igandean, berriz, Olhain Ikastolak, San Josephe ikastetxeak eta eskola publikoak Zazpiak Bat dantza taldearekin eta Gaztetxearekin antolatzen duten hitzordua hasiko da plazan. 11:00etatik goiti desfilea egingen da eta horrekin

batera, Zanpantzarren auzia. Kantarik eta dantzarik ere ez da faltako eta taloak dastatzeko aukera ere izanen da. Horren ondotik, gazteek etxez etxe eskean segituko dute.

Entseguak

Ihauterietako prestaketak egiteko, moztorroak hautatu eta kanta ikasteko hitzorduekin hasiak dira gazteak. Joan den igandeko saioaren ondotik, igande honetan, hilak 24, berriz bilduko dira, 18:30ean gazteen gelan. Eskean ibiltzeko bilkuretako batera joatea beharrezkoa da.



GANEX

110 erretretatu tripotxen bazkarian

Herriko Kontseiluak gomitatuta, 110 erretretatu elkartu ziren otsailaren 2an Lur Berri gelan egin zen tripotxen bazkarian. Giro ederra izan zuten eta erretretatuek eskerrak eman nahi izan dizkiete Kontseiluari. Beti Gazte elkartearen bilkura nagusia apirilaren 6an egingen dute Lur Berri gelan.

Larungo proiektuaz bilkura irekia martxoaren 5ean

Parte-hartze prozesua hasiko dute proiektuak ukituko lituzkeen lau herrietako udalen eta elkarten partehartzearekin

TTIPI-TTAPA

«Proiektua aterako da, baina espero dugu hastapenean aurreikusitako hura ez dela eginen». Halaxe mintzatu dira Larrun Ez Hunki kolektiboko Jean eta Joseph Olasso sarrak eta Philippe Lacarra azkainarra. Eta badirudi hala izanen dela. 20 hilabete pasatu dira Pirinio Atlantikoetako Departamentuak *La Rhune 2020* egitasmoa aurkeztu zuenetik eta joan den astean, hasieran aurreikusitako hura ez dela bere horretan eginen jakin zen, «egokia» ez dela ikusi dutelako.

Hiru ardatzeko proiektua

Hiru ardatz zituen Sara, Bera, Urruña eta Azkaineko lurra ukituko lituzkeen 2017ko egitasmo hark: San Inazio lepoan 110 aparkaleku gehiago egitea, trenbidea berritu eta oraingo lau trenez gain, bertze bi gehiago paratzea eta azkenik, Larungo tontorra eraberritzea. Harrabots haundia sortu zuen eta orduan sortu zen Larrun Ez Hunki kolektiboa. Geroztik mobilizazio andana eta jendetsuak egin ditu eta azken boladan «esperoan» egon direla kontatu digute Lacarrak eta Olasso anaiek.

Tarte horretan proiektuaren gidaritza batzordea hainbat alditan bildu da. Estatu frantseseko ordezkariekin batera, lau herrietako auzapezak, Jean Jacques Lasserre Pirinio Atlantikoetako Departamentuko presidentea eta hirigintza alorreko ordezkariak bildu dira. Horien artean Josu Iratzoki Berako alkatea. Berak baieztatu dio TTIPI-TTAPAri ha-

sierako proiektu hura ez dela aitzinera aterako: «bertze gisa batera eginen da». Gaineratu digunez, «ingurumenaren aldetik gehiago errespetatu beharko litzatekeela aipatu izan dugu gehienok bilera horietan». Bide beretik, «helburu gisa natura errespetatzea» ezarri dutela azpimarratu du.

Pirinio Atlantikoetako Departamentuaren lehiaketa publikoan aukeratua izan zen Andueza gabinetea 2017ko proiektu hartatik abiatuz bertze bat diseinatzekoa zen, Larrun Ez Hunkikoen arabera, «Larun tontorrerako eta San Inazio leporako bertze aukerak» aztertuz. Horretarako «hainbat partaiderekin» bildu ziren gabinetekoak: kolektibokoekin, ehiztariekin, laborariekin, hautetsiekin... Gabinetek horrek egindako azterketaren ondorioz zalantzan paratu dute hasierako egitasmoa.

Zaldaina

Hasierako proiektuan Larunen aurreikusi zuten zaldaina izan da eztabaida piztu duen gaia. Larrun Ez Hunkikoen hitzetan, «ainitz gara horren kontra, baina lehengo EPSAko lehendakaria eta orain diputatua den Vincent Bruk zaldain hori nahi du». EPSA Larungo trena kudeatzen duen enpresa da. «Hastapeneko proiektuaren helburua hobekien argitu duena» bera izan dela uste dute: «Larunen jende gehiago nahi zutela erran zuen. Duela aste batzuk berriz bildu ginen berarekin eta ideia berarekin segitzen du». Berako alkateak, ordea, honela adierazi du: «badirudi zaldaina



Larrun Ez Hunkiko Jean Olasso, Philippe Lacarra eta Joseph Olasso. TTIPI-TTAPA

edo balkoia legez ezin dela egin».

Trena eta trenbidea

Bertzalde, Olasso eta Lacarra-ren arabera, «hasieran nahi zituzten bi trenak ez omen dituzte gehituko. Motrizak edo tren-makinak bakarrik eginen dituzte». Kontseilu Orokorreko lehendakariak erran omen die hori, «baina erranak bakarrik» dira. «Tren gehiago paratuta gurutzatzeko lekua haunditu beharko litzateke, lubaki haundi bat eginez, eta Natura 2000ko gune batean hori ez daitekeela egin erran omen du estatuak». Europako Babestutako Tokiak biltzen dituen Natura 2000 Sarearen barne dago Larungo Iparraldeko aldea.

Beharrezko neurriak

«Segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko neurriak» hartzea ezinbertzekoa da kolektibokoekin irudiko, eta «komun publikoak» egitea ere bai.

Mugikortasun arazoak dituztenen «aitzakian» zaildainaren beharra «justifikatu» nahi izatea ere kritikatu dute: «zaldainak malda haundiegia izanen luke elbarrientzat. Aitzakia bat da. Normalki, arazoak sortzen direnean soluzioak bilatu behar izaten dira. Kasu honetan, ordea, soluzioekin hasi eta horiek justifikatzeko funtsezkoak ez diren arazoak antzeman dituzte».

Parte-hartze prozesua

Martxoaren 5ean alde guztiek argibide gehiago izanen dituzte. Egun horretan bilkura eginen dute Urruñan eta Iratzokik azaldu digunez, bilkura «irekia» izanen da, eta «udalekin eta elkarteekin partehartze prozesua hasiko da».

Larrun Ez Hunkitik, berriz, «esperoan» baina «erne» daukela adierazi dute. Egin beharrekoa egiteko «oraingoa baliatzea» eskatzen dute, «ingurumenean ahalik eta eragin ttikiena egin dezan».

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

GINNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK

bizikleta estatikoak, lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

Arrantzarako materialen salmenta egin dute aurten ere

Hirugarren aldia zen Arrantza saskien hustea antolatu duela Arrantzaleen Batasunak eta arrakasta ederra bildu dute

PIERRE BASTRES

Arrantza saskien hustea antolatu dute hirugarren urtez, otsailaren 9an. Ekitaldiaren antolatzailea da Urdazuriko Arrantza eta Erreken Ingurumena Zaintzeko Elkarte (AAPPMA Nivelles). Batasun hau 1937an sortu zuen Donibane-Lohitzuneko auzapezak, Urdazuri, Uhabia eta Untxin ibarretako arrantzale guztiak elkarretaratzeko.

Pilota plazan emana zuten oihaltzearen azpian iragan da egunaldia, goiz eta arratsalde, bigarren eskuko materiala ekartzen ahal zuen norberak, hantxe saltzeko edo trukatzeko. Saltokiez gainera, elkarrekin jarduerak edo aktibitateak erakusteko toki bat ere egin zuten. Cedric eta Julien dira denbora osoko langileak, eta elkarrekin berezitasunak xeheki ezagutarazten dituzte: «Gan den urtean 1.600 baimen egin ditugu, helduentzat 750, haurrentzat 500 eta hondarra egun-bateko edo aste-bateko baimenak. Holako aintz saltzen dizkiegu hemen udatarri. Bi langile gara, beraz, 50

nahianta eta milioi bat euro urteko aintzinkontua kudeatzen dugu. Eredu ttikian izanagatik ere, departamenduko AAPPMA guzietatik handienetako bat gara». Cedricen ustez «INRA (arrain migratzaileak aztertzen dituen institutu publikoa) eta St Christophe (arraingintza ikasteko eskola) esker, gure aldeko mugimendua bada hemen gaiti. Adibidez Julien eta ene postuak Migradour-ek (departamenduko arrain migratzaileen aldeko berte institutu publikoa) diruztatzen laguntzen ditu, azterketetan parte hartzen dugulako, departamenduaren osoan». Julien, bertalde, arrantza eskolaz arduratzen da, haurrekin aritzea baita elkarrekin helburu nagusienetako bat. Honek adierazten duen bezala, «urtean barna, teknika guztiak ikasgarritzen dizkiegu gazteei, aintziran edo erreketetan, eta lehiaketa bat muntatzen ere urtean behin. Aurten formakuntza egingen dut, taldeen animazioa ikasteko, aldika arituko naiz eskolan eta hemen».



Saskien hustea, arrantza eskola eta arrantzaleen biltzar nagusia. PIERRE BASTRES

«Izokin kopurua jautsi da, urtean 500etarko 70etarako»

Arrain kopuruen aldetik emaitzak onak direla erraiten du Cedric: «Lehen, amurruaren kopuruak atxikitze, hazkuntza amurruaren kume trumilka emaitzen zituzten erreketetan. Ohartu gara deusestako on ez zela, ez zutela luzaz bizirik irauten kanpoko arrain horiek. Orain, lehen tasuna da bertako amurruaren errunaldiaren laguntza: alde batetik ibarburuetako erreka ttikian garbitzea han erruten dutelako eta bertalde ur kalitatearen zaintza. Source programa segitzen dugu hori erdiesteko. Arrainen kopuruak nahiko onak baldin badira ere,

arazo bat badugu izokinarekin: bere sareak hedatzen ditu arrantzale profesional batek Donibaneko badien, Urdazuriaren aintzinean eta geroztik izokinaren kopurua jautsi da itsusi, 500etarik urtean 70etarako».

Dominique Rebergue diru zainak baieztatzen du elkartea erre-erre dela: «Gan den astean biltzar nagusia genuen, horrenbertze gazte eta neska ez nuen sekula ikusi. Edozoin ekitaldia antolatzen dugunean, izan dadin erreken garbiketako edo haurrendako ateraldia, gogo oneko nahiantak etortzen dira laguntzerat beti, eta gazte aintz. Osasun onean gara bai, bolada onean!».

VENTA PEIO
GEHIAGO EMATEN DIZU

BERA (administraritzak)
31780 Bera

IBARDIN
31780 Bera

BEHOBIA
20305 Iruñ

DANTXARINEA
31712 Urdax

LUZAIDE
31660 Luzaide

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25a eta urtarrilaren 1a izan ezik

TEL. 902 210 800 / www.venta-peio.com

ORBELA
SENDERISMOA ATERPETXEA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

744 484 361
ttipi-ttapa



Ttikienaz aitzinera hasiko dira finalak jokatzeko larunbatean. ARTXIBOKOA

Malerrekako eskuz binakakoaren finalak larunbatean jokoan

Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan zazpi kategorietako azken partidak jokatu dituzte, 09:00etatik aitzinera

TTIPI-TTAPA

Zazpi kategorietan banatuta, 176 bikote hasi ziren Doneztebeko Erreka elkarteak hamazazpigarren urtez antolatutako Malerrekako eskuz

binakako txapelketan, otsailaren 23an, larunbatean 09:00etatik aitzinera Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan jokatu diren finalerako txartelaren bila. Hainbat kan-

poraketa jokatu ondotik, dagoeneko finalistak erabaki dira.

Zazpi finalak larunbatean Donezteben

- **Benjaminak:** Munduate eta Landa (Lapke) - Antimasberes (Barañain) eta Mendizabal (Kurene).
- **Alebinak:** Lanzeta eta Seguro (Atzapar) - Raul eta Ibai (Haro).
- **Infantilak:** Sanchez eta Larrañzar (Oberena) - Otaegi eta Otaegi (Txapagain).
- **Kadeteak:** Loza eta Petite II.a (Barberito I) - Eiguren eta Elosegi (Ilunpe).
- **Jubenilak:** Alberdi (Ilunpe) eta Etxeberria (Tolosa) - Fernandez I.a (Fuenmayor) eta Etxeberria (Lapke).
- **Bigarren mailako seniorrak:** Matxin eta Elizegi (Zegama) - Adonis eta Aranguren (Zazpi-turri).
- **Elite mailakoak:** Iker Salaberria (Erreka) eta Uriondo (Lea Ibarra) - Labaka (Tolosa) eta Gorriti (Erreka).

Finalen ondotik, sari banaketa egingen dute pilotalekuan bertan eta bi urdaiazpikoren zozketa ere egingen dute. Pilotari, antolatzaile eta pilotazaleek Santamaria jatetxean bazkalduko dute gero.

Txapeldunen fasera lider pasa da Erreka eskubaloia taldea

Ez du nolanahiko liga hasiera egin Doneztebeko Erreka eskubaloia talde nagusiak. Hasierako faseko hamasei partidetatik hamaseiak irabazi ditu eta hortaz, txapeldunen fasera lider moduan pasatu da. Joan den larunbatean Tuteran hastekoa zuen fase hori, baina orain arte ikusitakoa ikusita, lauko finalerako txartela eskuratzeko aukera garbia du Erreka taldeak. Iban Mindegia entrenatzaileak dioen bezala, «oinak lurrean ditugula segitu behar dugu», baina zergatik ez tituluarekin amets egin.

Erremontearen Eguna otsailaren 23an Galarretan

Erremontearen Eguna ospatuko dute otsailaren 23an Hernaniko Galarreta Jai-Alai pilotalekuan. Larunbatean 16:30etik aitzinera erremontista guztien aurkezpena, sari banaketa, zozketak, lunch-a eta erremonte partidak izanen dituzte. Sarrera doan.



XAGU-LESAKA

640 kilokoan ere txapeldun Beti Gazte


680koan bezala, 640 kiloko kategorian ere Euskadiko txapeldun suertatu da Lesakako Beti Gazte sokatira taldea. Orain, 600 kiloko azken jardunaldia izanen dute otsailaren 23an Bilbon. Emakumeak ere hasi dira 500 kiloko kategorian eta martxoaren 2an izanen dute azken saioa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Etxeberria II.ak eta Corcherok apustua

Zigako Joxean Etxeberria II.ak eta Arabako Eloy Corcherok aizkora apustua jokatu dute otsailaren 24an Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan (12:00). Bi aizkolariek launa oinbiko eta zortzina kanaerdiko moztu beharko dituzte eta bakoitzak 3.000 euro jarriko ditu jokoan.



Aimar Olaizola mina du ezkerreko hankako kuadrizepsean. ARTXIBOA

Aimar Olaizolak eskuz binakakoa utzi behar izan du

Ezkerreko hankako kuadrizepseko tendoian duen lesioa sendatzeko lau bat hilabete beharko ditu

TTIPI-TTAPA

Aimar Olaizola Goizuetako aurrelari haundiak halabeharrez agur erran behar izan dio Binakako Txapelketari. Ezkerreko hankako kuadrizepseko tendoian lesio larria du goizuetarrak, eta medikuek jakinarazi dutenez, lau bat hilabete beharko omen ditu ongi sendatzeko.

Joan den otsailaren 4an hartu zuen mina, Beasainen (Gipuzkoa) entrenamendu fisikoak egiten ari zela. Hasiera batean uzkurdura bat baino ez zela izan pentsatu omen zuten, baina mediku azterketak egin

ondotik, Baiko enpresak bi egunen buruan eman zuen berria: ezin izanen duela txapelketa osoan parte hartu.

2010eko lesioa

2010ean ere lesio larria izan zuen 39 urteko pilotariak. Belduneko lotailu-haustura izan zuen baina ongi osatu zen eta geroztik bertze zazpi txapel jantzi zituen. 1998ko apirilean debutatu zuenetik txapel andana jantzi ditu profesionaletan; tartean buruz buru lau txapel, lau eta erdikoan zazpi, binaka hiru eta Nafarroako lau eta erdikoan bortz.

Urrezko binakako eta banakako aizkolari txapelketak finalak martxoaren 2an

TTIPI-TTAPA

Lerro hauek idazterakoan, Urrezko Banakako Aizkolari Txapelketarako txartela lortua zutenak Maika Ariztegi (Ituren) eta Nerea Sorondo (Bera) ziren. Finaleko hirugarren lehiakidea joan den asteburuan erabakitzea zen, Itxaso Onsalo (Are-

so) eta Irati Astondoaren artean. Binakakoen finalean, leitzarren bat izanen da, baina lerro hauek idazterakoan zehazteke zegoen Iker Vicente eta Ruben Saralegi (Leitza) ala Xabier Orbe gozo *Arria V.a* eta Jon Rekon-do (Leitza) izan den finaleko hirugarren bikotea.



ARTXIBOA

Nafarroako Kirol Jokoak martxoaren 17an

Igantzi, Basaburua eta BRT-Menditarrak taldeak izanen dira martxoaren 17an Txantrean hasiko den Nafarroako XXXII. Kirol Jokoetan parte hartuko duten eskualdeko taldeak. Guztira bortz jardunaldi jokatu dituzte eta bat Baztanen egingen dute, martxoaren 31n. Saioak 10:30ean hasiko dira.



Binakako txapelketaren aurkezpena otsailaren 9an egin zuen Garfek. GARFE

Elizalde eta Tainta Garfe pilota enpresaren binakako txapelketan

TTIPI-TTAPA

Sei bikotek parte hartuko dute Garfe pilota enpresak antolatutako duen eskuz binakako pilota txapelketan eta parte hartuko dute hamabi pilotarien artean, bi eskualdekoak izanen dira: Ugaitz Elizalde Bereau iturendarra eta Iker Tainta Noble lesakarra. Biak ere aurrelariak dira.

Txapelketa martxoaren 16an hasiko da eta egun horretan Tainta lesakarrak, Bergera gibelean duela, Titin III.a eta Merino II.a errioxarren aurka jokatu beharko du Fiteron (Nafarroa).

Elizalde iturendarrak, berriz, Beroizekin osatuko du bikotea. Eta gainerako hiru bikoteak hauek izanen dira: Urbieta II.a-Merino, Prado-Irusta eta Santxo-Urruzola.

Ligaxka

Hasteko ligaxka bat egingen dute eta horren barrenean, denek denek kontu ari beharko dute. Behin hori bukatuta, emaitza onenak esku-ratzen dituztenek finalerdietarako txartela lortuko dute. Finala, berriz, uztailan jokatuko dela iragarri du Garfe pilota enpresak.

OTSAILAK 21 - MARTXOAK 7

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIAK

ELIZONDO

Nutrizio-etiketak irakurtzen ikasteko saioa

Zubigainea etxean, otsailaren 25ean, 10:00etatik 12:00etara eta otsailaren 28an 17:30etik 19:30era.

'Gozoa ezinbertzekoa dut, azukrea behar dut' solasaldia

Zubigainean, martxoaren 4an, 10:00etatik 12:00etara.

'Nolako jangelak nahi ditugu eskoletan?' solasaldia

Arizkunenean, martxoaren 7an, 17:00etan.

DONEZTEBE

'Komunikazioa, jarrera aldaketen aurrean erabili beharreko tresna'

Mankomunitatean, otsailaren 21ean, 16:30etik 18:00etara.

IGANTZI

Guraso eskola

Miren Camisonekin.
Otsailaren 18an, 17:00etatik 18:30era.

IKASTAROAK

BERA

Gaita eta atabala ikastaroak

Musika eskolan, ekainera arte, 13:00etatik 14:00etara.

ITUREN

Adimen emozionala langai

Abarun aterpetxean, otsailaren 22tik 24ra.

GARTZAIN

Agroekologia eskola herritarra

Hazien trukaketa eta Joseba Errekondoren eskutik hitzaldia.
Martxoaren 9an, frontoian, 10:30ean hasita.



XAGU-LESAKA

DONEZTEBE Etxeberría eta Corcheroren arteko apustua

Lau oinbiko eta zortzi kanaerdiko lana. 6.000 euro jokoan.
Otsailaren 24an, 12:00etan Ezkurra pilotalekuan.

ELIZONDO

Bailableak

Plazan, martxoaren 10ean, 12:30ean.

IKUSKIZUNAK

GOIZUETA

'Ordu magikoa' ikuskizuna

Ganbaran, otsailaren 22an, 18:30ean.

'Campeones' filma

Martxoaren 10ean, 18:30ean.

ERRATZU

Abesbatza Ttikia eta Aieteko Araoz gaztetxeko abesbatza

Elizan, otsailaren 23an, 18:30ean.

ELIZONDO

Abesbatza Ttikia

Joaquin Iriarte adinekoen egoitzan, otsailaren 27an.

Haurrendako ipuin-kontaketa

Liburutegian, martxoaren 5ean, 17:00etan.

IRURITA

Haurrendako ipuin-kontaketa

Gizarte Bilgunean, martxoaren 3an, 18:00etan.

BERA

'La buena, la mala, la ergela y la madre que las parió'

Kultur etxean, otsailaren 24an, 19:00etan.

DONEZTEBE

Aizkora apustua

Frontoian, otsailaren 24an, 12:00etan.

IGANTZI

Eskolako haurren antzerkia

Eskolan, martxoaren 1ean.

IRURITA

Abesbatza eta dantzariak

Goizean tailerra eta arratsaldean emanaldia.

'Karramarroa' antzerkia

Helduendako antzerkia. Sarrera dohainik.
Gizarte Bilgunean, martxoaren 10ean, 19:00etan.

BERTSOA

LESAKA

Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalaurrekoa

Harriondoan, martxoaren 10ean, 17:30ean.

LEHIAKETAK

BAZTAN

Argazki lehiaketa

BRTren eskutik. Gaia: *lohia*.
Martxoaren 15a arte, info@baztanrt.com helbidera.

ESKUALDEA

Inauterietako argazki lehiaketa

ERRAN.EUS atariak antolatua.
Martxoaren 22ra arte bidai daitezke, erran.eus atariaren bidez.

IRTEERAK

BAZTAN

Albako harrira

Elizondoko plazatik abiatuta, otsailaren 24an, 07:30ean.

Astigarragara

Baztango Mendigoizaleek antolatuta.
Martxoaren 9an. Izen-emateko epea: martxoaren 1a.

INAUTERIAK

ZIGA

Inauteriak

Otsailaren 22an eta 23an.

IGANTZI

Inauteriak

Otsailaren 22an eta 23an.

SENERPE

Inauteriak

Otsailaren 23an.



INAUTERIAK Azken txanpa

Zigan, Igantzin, Beran, Etxalarren, Saran, Senperen, Aranon...
Otsailaren 23tik martxoaren 3ra bitarte.

ARANO
Inauteriak

Otsailaren 23an.

LEKAROZ
Inauteriak

Martxoaren 1ean 2an.

BERA
Inauteriak

Otsailaren 27tik martxoaren 4ra.

ETXALAR
Inauteriak

Otsailaren 28an eskolako
haurren antzerkiak eta
martxoaren 3tik 5era herrian.

NARBARTE
Inauteriak

Otsailaren 27tik martxoaren 2ra
bitarte.

DONEZTEBE
Inauteriak

Martxoaren 1ean eta 2an.

ELIZONDO
Inauteriak

Martxoaren 1ean eta 2an.

LESAKA
Inauteriak

Martxoaren 2tik 4ra.

SARA
Inauteriak

Martxoaren 2an eta 3an.

URDAZUBI
Inauteriak

Martxoaren 3tik 5era.

OSPAKIZUNAK

ZIGA
Orakunde Eguna

Otsailaren 22an.

LESAKA
Arbolaren eguna

Otsailaren 23an.

BERTIZARANA
Malerreka Kantuz

Martxoaren 2an.

ANIZ
Orakunde Eguna

Martxoaren 2an.

Nire aukera

«Aurten lanak aitzineratu
ditugu hartza eta
momotxorroak egiteko»

LEIRE FAGOAGA SARAKO GAZTEA

«Naturak eskaintzen dituen leku zoragarriez gozatzea» gustuko duen 21 urteko saratar gaztea da Leire Fagoaga. Zaletasunak eta lanbideak bateratzeko izan duen zorteari esker, gaur egun «etxeko zalditegian eta kanpoko bertze baserri batean» lan egiten du. Ez da gaurkoa aziendarekin duen harremana, etxean ikustez gain, «ttikitan» hasi baitzen zaldi gainean ibiltzen. Zaldiak bezain maiteak ditu lagunak eta horiekin «momentu goxoak pasatzea» ere «garrantzitsu» zaio. Hortaz, «lana, zaldi bueltak eta lagunarteko bestak tartekatuz» ibiltzen da saratarra. Batzuetan aukeraketa



zaila bada ere, inauterietan zalantzarik ez du izaten Fagoagak: «momentu bikaina da, erosotasuna kanpora ateratzeko parada, negutik atera eta udaberrian sartzekoa...». Aitzitik, egun horiek ospatu ahal izateko, lan ere egin behar izaten du: «gaztetxeko kideon artean etxex etxekoa antolatzen dugu: itzulia bera, mozorroa,

kantak, musikariak, traktoreak eta karroak, erosketak...». Antolatzaileek solastatutakoa herriarrekin partekatzen dute gero: «bilkura publikoak egiten ditugu eta gazteak hurbilarazteko, berotzeko, kantak ikusteko... baliatzen ditugu». Inauteriak «aski ongi» antolatzen ditu. Sarako auzoetan barna ibiltzen da, gaztetxeko eta plazako ekimenak ikusten ditu, desfilean parte-hartzen du... Eta hori guztia «eromenez» bizi du. Usaian azken mementoan hasten dira mozorroa prestatzen: «azken urteetan zirtzilez mozorrotu izan naiz, ongi errepresentatzen nauela atzeman baitut». Baina aurten aitzin hartu dute eta lanean ari dira, «herriko hartza eta momotxorroak prestatzen». Gaua eta eguna «banaezinak» dira berarentzat ez, ordea, biharamuna. Dena dela, txarrenari onena ateratzeko gaitasuna badutenez, «pasatako asteburu ona» gogotuz arintzen dute zama. Horrekin eta «haizea hartuz, lbainetako lepo ederrean barna mendi-buelta bat emanez edo berriz besta hasiz» segidan martxan izaten da. Kontent biziitzeak dakarren indarraren adibide polita da saratarra: «hori bizi naizen inguruneari eta ingurune hori osatzen duten pertsoneri zor diet» gaineratu du.

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Kanttonberri karrikan, 81 m²ko pisua salgai. Berritua dago. 3 logela, sukaldea, bainugela, egongela. Dena kanpora begira. Igogailua ere badu. ☎ 665 98 40 11.

BERA. Kanttonberri karrikan berritu beharra dagoen 81 m²ko pisua salgai. Sukaldea, egongela, 3 logela eta bainugela. Dena kanpora begira. Igogailuarkein. ☎ 650 40 77 36.

ERRENTAN HARTZEKO

BAZTAN. Etxe edo pisua bila. 350 euro. ☎ 680 47 27 85.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN HARTZEKO

BERA. Garajea edo trasteleku bila. Gehienez hilean 50 euro ordaintzeko prest. ☎ 680 94 61 49.

ERRENTAN EMATEKO

DONEZTEBE. Merkatarien Karrikan lokala errentan emateko. ☎ 686 35 50 79.

LURRAK/ORUBEAK

ERRENTAN HARTZEKO

BAZTAN. Ardi borda bat bere lur eremuarekin errentan hartuko nuke Atxuela inguruan. ☎ 663 59 17 76.

LANA

ESKARIAK

Emakume bat adinekoak edo haurrak zaintzen edo garbiketan aritzeko lan bila. Hiru alorretan esperientzia duena. ☎ 644 96 38 20.

BAZTANen bizi den 40 urteko emakumea lan bila. Hezkuntza aritua, ingeles maila altua eta ostalaritza eta sukaldaritza naturalean aritua. Base-rriko lanetan ere aritzeko prest. ☎ 679 92 83 31 / 948 45 32 28.

BORTZIRIAK. Administrazio lanak egiteko lan bila. ☎ 677 60 62 92.

ETXALARko neska bat lan bila dabil. Haurrak zaintzen, garbiketan, ile-apaindegian laguntzaile bezala eta fabriketan esperientziarekin. Ikasteko gogoz. ☎ 687 22 23 20.



744 484 361

ttipi-ttapa

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

Neska bat interna bezala aritzeko lan bila. Hagitz erreferentzia onekin, arduratsua eta serioa. ☎ 602 18 24 68.

BAZTAN-BORTZIRIAK aldean, orduka garbiketa lanak egiteko lan bila: etxeak, portalak, bulegoak... ☎ 674 15 56 52 (Deitu arratsalde).

BERAn bizi den emakume gaztea orduko lan egiteko prest, garbiketa lanetan edo adinekoak zaintzen. ☎ 631 85 29 14.

BORTZIRIAK. 50 urteko emakume euskaldun batek haurrak edo adinekoak zainduko lituzke. ☎ 650 40 79 78.

ARIZKUN. Enpresa batek langileak behar ditu. ☎ 649 62 88 49.

ESKAINITZAK

BORTZIRIAK. Aholkulari bulego batean aritzeko pertsona bat behar dute. Laboralaren arloan aditua. Interesatuek idatzi helbide honetara: laneskeintza31@gmail.com.

tuek idatzi helbide honetara: laneskeintza31@gmail.com.

IRUN. Autoak garbitu, saltzeko prestatu eta mekanika pixka bat dakien langile bat behar dute. Kontratu finkoa eskaintzen da. Interesatuak idatzi: ion@munozaarena.com.

IBARDIN. Gasolindegian aritzeko langilea behar dute. Idatzi imerida@hotmail.com helbidera edo deitu. ☎ 638 02 53 48.

ELIZONDO. Fisioterapeuta behar du AFINAK. ☎ 948 13 53 33.

LESACA. Koxkonta jatetxean esperientzia duen sukaldaria behar dute lanaldi osoan. ☎ 608 75 72 27.

IBARDIN. Egunero lan egiteko frantsesa dakien langile bat behar dute, saltzaile eta kutxazain bezala aritzeko. Bidali curriculumak helbide honetara: beolaetxea@gmail.com.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,23
- 1.koa 4,10
- 2.koa 3,96

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,34
- 1.koa 4,20
- 2.koa 4,06

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 168,00
- Idixkoak 235,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,10/6,70
- 8-10 kilokoak: 4,90/5,40

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 54 €

Zerri gizona 1,036 €

Zerramak 0,430€ kg/bizirik

Data iturria: Nafarroako Gobernua (otsailaren 1etik 8ra bitarteko prezioak)

DONEZTEBE. Auto tailer batean mekanikari lanak egiteko langilea behar dute. ☎ 948 45 03 33.

LESACA. Enpresa batek elektrizitatea eta mekanika dakien langile bat behar du. ☎ 948 62 53 95 (goizetan deitu).

BERA. Esperientzia duen estetizista behar dute. ☎ 948 630760

BERA. Asteburuetan eta udan haurrak zaintzeko eskualdeko norbait behar dute. Arduratsua, gaztea eta euskalduna dena. ☎ 677 35 72 56.

Esperientzia duen **administraria** behar dute egun erdiz lanean aritzeko. Interesatuak idatzi: beolaetxea@gmail.com.

MIARRITZE. Garbiketa enpresa batean garbiketan aritzeko jendea behar dute. Frantsesez ulertzen dutenak. Astean 35 ordu lan egiteko, 03:00etatik 13:30era, asteburuak barne. Gida-baimena eta autoa izatea beharrezkoak dira, baina lanerako autoa enpresak utziko du. Ordua 10,02 euro ordainduko dute. ☎ 0033 685 53 21 90.

BERA. Frantses pixka bat dakien neska eta mutila behar dituzte sei hilabetez Larungo benta batean zerbitzari bezala aritzeko. ☎ 607 56 60 22.

IGANTZI. IrriSarri Landek denboraldi berrirako langileak aukeratu dituzte: sukaldaria, parrileroa, zerbitzaria, monitorea eta harreragilea. Interesatuak bidali curriculumak 'Xorroxin' erreferentzia paratuz rrhh@irrisarri-land.es helbidera. Edo bertzea, hurbildu IrriSarri Landera, astelehenetan 10:00etatik 13:00etara.

ZERBITZUAK

ZURGINDEGIAK

ARANTZA
ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

MOTORRAK

SALGAI

Hyundai Tucson 5p 1.6 131 CV 4X2 Klass Nav salgai. Gasolina. 2016koa. 5 urteko garantia (2021 arte). 17.500 km inguru. Nabigatzailea, Bluetooth, Wifi, ukipen-pantaila, atzerakako kamara... Azterketa guztiak tailer ofizialean. ☎ 676 44 15 80 (Aritz) Deitu arratsalde.



VW California Beach furgoneta salgai. 2009koa. 156.000 kilometro. Hagitz egoera onean. ☎ 617 23 93 61.

TAILERRAK



ANIMALIAK

EROSI

Antxu-ardien larruak erosiko nituzke, egoera onean daudenak, pinturarik gabe edo ahalik eta pintura guttienarekin. ☎ 948 45 24 08 (Julio).

SALGAI



3 urteko behia bere umearekin salgai. Txekorrik gabe hartzeko aukera ere bada. ☎ 660 25 18 84.

5 urteko **behi mestizoa**, belga-limusina, bere **aretzearekin** salgai. ☎ 627 71 96 43.

OPARITZEKO



Bi hilabete dituen **euskal artzain txakur meua** oparitzeko. ☎ 620 13 57 21 / 696 12 76 01.

IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak gure webgunean ere argitaratzen dira hilabete batez. Ikusi iragarki guztiak Interneten: <https://erran.eus/sailkatuak/>

GOZA TEGI

ETOR ZAITEZ ZURE BASERRITAR ZAPIAREKIN

TRIKI DANTZ

+ EUSKAL MUSIKA

OTSAILAK **23** 00.00 ATE IREKIERA

SARRERAK: Aurretik **12€** (Elizondo: Intza ostatua, Doneztebe: Titi ostatua) Egunean **15€**

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak **SUZUKI**

TOYOTA LAND CRUISER
190CV • 207.000 km • 3 ate

SUZUKI GRAND VITARA
130 CV • 85.000 km • 5 ate

4x4

www.mendaurmotor.es

erran.

e APPa ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT

MEGANE IV ZEN DCI 110 CV
2018 urtekoa. 10.500 km

CLIO IV LIMITED DCI 90 CV
2018 urtekoa. 11.000 km

www.talleressantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

KATEA BIKE

2. eskuko bizikletak

1500€

800€

1800€

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

Sampi Aragón

23.900€ Finantz. prezioa

MERCEDES VIANO 2.0 136CV Nazionala!
Esku bakarrekoa - 2011 urtekoa - 59.000 km

26.900€

VW MULTIVAN 2.0 TDI 180CV DSG
www.arincar.com

26.900€

VW CALIFORNIA T5 OCEAN
www.arincar.com

DONEZTEBE | 948 450 354

OROIGARRIA

Migel
ZUBIETA OTXOTEKO

Beran, 2019ko otsailaren 8an

Zure irribarrea
ez dugu ahantziko,
Gurekin izanen
zattugu betiko,
Gure bihotzeko
Migeliko.

ETXEKOAK



Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzuen guziei, mila esker.

URTEURRENA

Gregorio
MINDEGUIA LOPEZ

Donezteben, 2018ko otsailaren 18an

I. urteurrena

Urtea pasa bada ere,
ez da egunik zutaz
oroitzen ez garenik.
Beti gure bihotzetan
eramanen zaitugu, maitasunez.

EMAZTEA, SEME-ALABAK ETA FAMILIA



Bere aldeko meza otsailaren 24an egingen da Doneztebeko San Pedro elizan, 12:00etan.

OROIGARRIA

Migel
ZUBIETA OTXOTEKO

Beran, 2019ko otsailaren 8an

Non hago?
zein xokotan
anaia maitagarria
bihotzean diagu pena
senideetan zaharrena
denen maixu izan haizena.
Berriro elkar topo egin arte.





ANAI-ARREBAK

URTEURRENA

Antonia
GOLDARAZENA OTEGI

Lesakan, 2013ko otsailaren 16an

VI. urteurrena

Ama zenbat egin duzun gugatik
orain ere laguntzen ari zara zerutik
zutaz oroitzean negarra
heldu zait bi begietatik
mila esker ama, bihotz-bihotzetik.

ZURE FAMILIA, AGUR ETA IKUSI ARTE



OROIGARRIA

Migel
ZUBIETA
OTXOTEKO

Migeliko,
beti gure
oroimenean.

BERAKO UDALEKO
LANKIDEAK



URTEURRENA

M^a Victoria
IBARRA AGESTA

Sunbilla, 2018ko otsailaren 22an

I. urteurrena

Zure oroimenak
indartzen gaitu,
ez agurrik, ez adiorik
gero arte baizik.

ZURE FAMILIA



IRACHE

tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK



BAZTAN
BIDASOA

Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERA San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

HERIOTZAK

- **Annie Loiseau**, Sarakoa, urtarilaren 21ean, 75 urte zituela.
- **Santos Jorajuria Arretxea**, Sunbillakoa, urtarilaren 31n, 78 urte zituela.
- **M^a Pilar Zugarramurdi Iriberrri**, Elbetekoa, urtarilaren 31n.
- **Julia Irigoien Aleman**, Zigakoa, urtarilaren 31n.
- **Maria Maiz Bergara**, Arantzaoka, otsailaren 1ean, 89 urte zituela.
- **Jose M. Berrueta Goia**, Lesakakoa, otsailaren 1ean, 81 urte zituela.
- **Jesusa Olagarai Uranga**, Urdazubikoa, otsailaren 1ean, 89 urte zituela.
- **Maritxu Irazusta Beñatena**, Elizondokoa, otsailaren 5ean, 90 urte zituela.
- **Carmen Zazpe Garzia**, Elizondokoa, otsailaren 6an, 87 urte zituela.
- **Sebastian Oronoz Lertxundi**, Lesakakoa, otsailaren 7an, 92 urte zituela.
- **Angela Elizondo Elizondo**, Lesakakoa, otsailaren 7an, 86 urte zituela.
- **Migel Zubieta Otxoteko**, Berakoa, otsailaren 8an, 65 urte zituela.
- **Brigida Andiarrena Etxekolanea**, Donamariakoa, otsailaren 8an, 86 urte zituela.
- **Martin Jose Maiora Istilart**, Elizondokoa, otsailaren 9an, 101 urte zituela.
- **Jose Saizar Sukuntza**, Aresokoa, otsailaren 9an, 86 urte zituela.
- **Antonio Maritoren Larrosa**, Berakoa, otsailaren 10ean, 94 urte zituela.
- **M^a Lourdes Rezusta Beraiz**, Berakoa, otsailaren 11n, 91 urte zituela.
- **Angel Arretxe Oria**, Leitzakoa, otsailaren 12an, 81 urte zituela.

SORTZEAK

- **Kaiet Mariezkurrena Arrieta**, Sunbillakoa, urtarilaren 12an.
- **Xuban Iribarren Gartziaarena**, Doneztebekoa, urtarilaren 25ean.
- **Xarika Iglesias Landa**, Etxalarkoa, urtarilaren 27an.

EZKONTZAK

- **Juan M^a Indakoetxea Petrikorena** eta **Leire Iantzi Irigoien**, Lesakakoak, otsailaren 10ean Lesakan.


URTEBETETZEAK



Aitor eta Maddi Baleztena Truebak 5 urte beteko dituzte otsailaren 26an. Zorionak eta muxu bana Eratsun, Doneztebe eta Arantzako familiaren partetik.



Iturengo **Garazi eta Aritz** 8 urte bete dituzte urtarilaren 29an. Zorionak eta muxu asko!



Berako **Eneko Telletxea San Sebastianek** 2 urte beteko ditu otsailaren 24an. Auniz urtez familiaren partetik, baina bereziki Jokin eta Laidaren partetik!!! Muxu haundi bat!!!



Lesakako **Olhain Plaza Maiak** 5 urte bete ditu otsailaren 13an. Urtebetetze on maitia, aita eta amaren partetik!



Arantzako **Naroa Mutuberria Pagolak** 7 urte bete ditu. Muxu haundi bat familia guziaren partetik. Auniz urtez, polita!



Sunbillako **Milagros Irazoki Arrietari** auniz urtez otsailaren 6ko partez. Muxuak Urdazubitik zure iloba Pablo Irazoki Olaizolaren partetik.



Leire Uribe-Etxebarria Iturriria erratzuarrak 11 urte beteko ditu otsailaren 26an. Auniz urtez pertxenta. Sukaldean arras ongi moldatzen zarenez, merendua zure kontu. Auniz maite zaitugu. Eñaut, Koldo, Nerea, Beltxi, Witxi eta Pitxi.



Izaba **Xunek** urteak... beteko ditu otsailaren 23an, eta **Maiderek** urtea otsailaren 28an. Zorionak Anartz, Elaia, Nahia eta Beñat lehengusuen eta iloben partetik. Prestatu tarta goxo-goxoa, izeba! Besarkada bat, maite zaituztegu!



Goizueta-Gazteluko **Maider Narbarte Urrozek** urtea beteko du otsailaren 28an. Zorionak familia guztiaren partetik, bereziki Anartz eta izeba Mariren partetik!!! Segi beti bezain alai, besarkada bat.



BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztan, Benan, Bortzirietan eta Malerrekan

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

Hurbiltasuna eta begirunea

T. 948 05 90 90 izarratanatorio.com

PLAZAN BAZAN



IRUDI ENGAINAGARRIAK

Egilea: Garbine Ubeda (Aiturri)



Zazpi irudi-zati hauetatik 4 engainagarri, alegia, ez daude beheko irudi nagusitik hartuta. Zeintzuk dira?



- 1
- 2
- 3
- 4

Zenbat katilu ikusten dituzu?



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



HAMARREKOA

Ikusten al dituzu irudien arteko aldeak?
Hamar dira guztira.



ITZALA

Zein da korrika
ihesi doan horren
itzal zuzena?

Ttapi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

727

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

Martiko - Lote bat

M^{re} Carmen Martiarena Sein | BERA
Okille tailerra - Eguzkilore bat
Manuel Ormart Garbalena | ELIZONDO
Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Idoia Martinez Barranco | LEITZA
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Joxemi Arbelaiztegui Hernandezorena | LESAKA
Onddo ta punto - Kamiseta bat
Juan M. Eraso Danboriena | OROÑOZ-MUGAIRI
Arkupe - Lote bat
Mertxe Arretxea Migelena | OIZ
Elkar argitaletxea - Liburu bat
Martin Irigoien Jorajuria | SUNBILLA
Elkar argitaletxea - Liburu bat
Jose Angel Elizalde Etxeberria | ELBETE

2 tiket

BAZTAN AVENTURA PARK
ELIZONDO

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com

2 sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEA
SORGINEN LEZEA
SARRERA

ZUGARRAMURDIKO LEZEA
www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera

AQUARIUM
DONOSTIA / SAN SEBASTIAN

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es

Eureka!
Museoa+Planetario

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
2 sarrera helduentzat

BUATXABAL
www.buatxabal.com

BUATXABAL
Basque Clothing Co.

Kamiseta bat

MARTIKO
www.martiko.com

MARTIKO

Lote bat

LIBURUAK



Izarrak eta as
Begiak itxita hegan
Maddalenen usain
Iker ikerlaria

ibaizabal
www.ibaizabal.com

LA GUNTZAI LEAK

erein
argitaletxea

www.erein.eus

RHUNE

www.rhune.com